



Bertsio elektronikoa honen egilea: Ales Bengoetxea.  
Iturria: *Jesusen Bihotzaren devocïoa*, Sebastian Mendiburu. Pedro Joseph Ezquerro, 1751.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MendiburuDebozioa.htm>

## JESUSEN BIHOTZAREN DEBOZIOA

**Sebastian Mendiburu**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

JESUSEN JESUSEN KONPAÑIAKO  
A. SEBASTIAN MENDIBURUK  
Euskaraz erakusten duen

## **JESUSEN BIHOTZAREN DEBOZIOA**

Behar bezala. Bigarren aldian.

Iruñean.  
Pedro Joseph Ezquerro, Librugillearen etxean.  
Urtean 1751.

*Iruñeko Obispo jaunak eman du berrogei eguneko Induljenzia edo barkazioa  
Libru onetan irakurtzen den aldi oroko.*

*Beste berrogeikoa emengo Irur Bederatzi-urreetako egun bakoitzerako.  
Berrogei eguneko emen arkitzen diran Regleetatik bakoitzak diona egiten  
duten aldi-oroko.*

*Zer den Induljenzia, ta bertze jakin behar diren gauz anitz arkituko dituzu  
Libru[ko] ostoen 346. alderditik 354. alderdiraño.*



## IRAKURLEARI

Euskarazko Liburu hau Euskaldun utsentzat egiña da; bada Franzes, Latin edo Gastelania dakitenak, neke gutiagorekin ekus dezakee beste Libruetan, onetan erakusten dena. Españiako Euskaldunik geienak Jesusen Bihotzaren debozioa arturik arkitzen dira; baña debozio onek eskatzen dituen gauzen berri, beintzat andirik, ez dutela. Euskaldun Erri larrietan badira Bihotz maite onen Ballera santu edo Kongregazioak; baña Kongregazioko egunetako ez dute, behar lukeen, Euskarazko Liburirik. Oberen bat ager dedin artean, alik ongiena moldatu dut Jesusen Bihotzaren deboziozko hau, izan dedin, nondik Kongreganteai Elizan irakurri (irakurriko dituzu onelako \*\*\* izarrekin arkitzen diran §§), ta debozio artu duten ta artuko dutenak egin behar dutena non ikasi.

Librua ez da guzia nereia, ez eta besterena ere. Onegatik ezpaziz, hitz alferra lizake *euskaraz*, Libruaren asieran edo tituloan ezarri dudana. Egiten hari nintzanean, begietan iduki dut geienean, Jesusen Konpañiako Aita Juan Croisetek debozio beraren gañean egin zuena. Hark berean dakartzien bezala arkituko dituzu onetan esaten diran gauzen asierak edo buruak. Emen arkitzen diran gauzarik geienak an arkitzen dira; baña ez dira arkitzen bietan gisa batean. Ango gisara bagenekartzi angok gauzak, ezipagenekartzi bezala izain lirake, eskolarik ez duten anitz Euskaldunentzat. Neke andirik gabe nork nai adi ditzakean moduan epeñi ditut, nere ustez, han modu eder goratuan, gizon adituentzat egiñak bezala dauden gauzak.

Orregatik lenago dauden haren zenbait gauza utzi ditut azken alde-rako; azken aldekoak ezarri ditut erdian, lenbizian edo obeki iduritu zaidan tokian. Eskriturako ta dakartzien Santuen hitzak alik zuzenena gure Euskarara ditut; baña ez beti hitzez hitz. Gañerako gauzetan ez dut begiratu, gauza adirazteko, dakartzien hitzetara; begiratu dut hitzekin esan nai duenara; ta erraten dut hau, len errana ezipalego bezala, ta euskaraz errateko, zuzenenak dirala iduritu zaizkidan hitzekin.

Utzi ditut Serore edo Monja, Relijioso, Apaiz ta beste zenbaitentzat ederki dakartzien gauzak; horien uts egiteen berririk izan ez dezaten len etzutenak; eta behar gabe ez luzatzea gatik Librua; bada orietatik zenbait ez dira arkitzen bazter oietan, ta arkitzen diranak ez dute euskarazko Libruen beharrik, egin behar dutena jakiteko.

Galdu dira, euskarazko Liburirik gabez, euskarazko anitz hitz; eta gelditu diranak, ez dituzte Euskaldun guziak aditzen. Badira Gipuzkoan, Nafartar geienak, euskarazkoak izana gatik, aditzen ez dituzten hitzketak: baita Nafarroan ere, Gipuzentzat berriak diruditenak: eta Gipuzkoako ta Nafartarren bazter batzuetan aditzen dira, beste askotan aditzen ez diran zenbait hitz-egite. Non nai adi ditezkeanak billatu ditut, al egiñean, artzen ditudala orretarako, euskarazkoak utzirik, beste zenbait hitz.

Bi ez besteak laburrak dira Aita Croisetek dakartzien meditazioak edo orazio gaiak. Jainkoak nai badu, emain zaizkitzu laster beste Libru batean, behar adiña ta behar bezain luzeak: erdi-moldatuak daude geienak. Gañerako guzia, emen arkituko dezu, lau burutara bildua. Lenbizikoan erakusten da zer ta zein ona den Jesusen Bihotzaren debozioa. Bigarrenean, zer den gure aldetik debozio onek eskatzen duena. Irugarrenean, nola egin behar diran Jesusen Bihotzaren debozioak eskatzen dituen gauzak: eta Laugarrenean, urtearen buruan egin behar dutena debozio hau artzen dutenak. Jesusek dizula, guzia ikasteko, eta ikasten dezuna egiteko, behar dezuna.

Emen bertan arkituko dituzu Jesusen Bihotzaren Kongregazioko Reglak; eta Bihotz beraren, Aita S. Ignazioaren ta S. Franzisko Xabierren Bederatzi-urrienak. Batera bildu ditut, len berez zebiltzan bi Libruak, gutiago kostatzen zaitzula, izan dezazun guzia; ta guziaz balio zaitezen zure Animaren onerako. Ori da nik lan labur onekin billatzen dudana. Jainkoak dizula maiz irakurtzeko lekua ta gogoia; ta, irakurtzen dezun aldi oro, zere animarako nik nai nukean on guzia ateratzeko grazia.



D. GASPAR  
DE MIRANDA, Y ARGAIZ  
por la Gracia de Dios, y de la  
Santa Sede Apostolica, Obispo  
de Pamplona, del Consejo de  
su Magestad, &c.

Por la presente, y por lo que à Nos toca, damos, y concedemos licencia en forma, para que, sin incurrir en pena, ni censura alguna, se pueda imprimir, e imprima el libro intitulado: *Jesus-en Bihotza-ren Devociao*, compuesto por el Rmo. Padre SEBASTIAN DE MENDIBURU, de la Compañia de JESUS, Maestro de Theologia en el Colegio de la Anunciada de esta Ciudad. Assimismo, damos licencia, y facultad para que se puedan imprimir, e impriman las Reglas, y Constituciones del Sagrado Corazon de Jesus, compuestas por el mismo de orden nuestro; como tambien las Novenas del Sagrado Corazon de Jesus, de San Ignacio de Loyola, y San Francisco Xavier, compuestas tambien por el mismo R. P. Sebastian de Mendiburu. Atento nos ha constado, no hallarse en todo lo referido cosa alguna, que se oponga à nuestra Santa Fè Catholica, y buenas costumbres. Y concedemos quarenta dias de Indulgencia à todas, y cada una de las personas de ambos sexos, que leyeren en dicho Libro por todas, y cada una de las veces, que lo executaren; como tambien à las que practicassen todas las dichas Reglas, y Constituciones, ò alguna de ellas, è hiciessen las referidas Novenas, ò alguna de ellas; por todas, y cada una de las veces, que executaren todos, y cada uno de los referidos actos. Dada en Pamplona, à catorce de Abril de mil setecientos quarenta y siete.

Gaspar Obispo de Pamplona.  
Por mandado de su Señoria Illustrissima  
el Obispo mi Señor.  
Lic. D. Joseph Eladio Collado,  
Secretario

## AITA MANUEL DE LARRAMENDIREN KARTA, LIBRU ONEN EGILLEARI BIDALDUA

Aita nerea, badakit, eta hori aspalditxo da, arazo andietan zabiltzala, argitaratzeko libru bat, Jesusen biotzarekiko deboziari dagokana. Jakiñ ez ezen, irakurri ere badet oarrez, ta arretaz zure eskuskribatua: eta ikusiaz ta erabilliaz, are geiago ezagutu det lan onen anditasuna. Gaiari banagoka batetik, eta bestetik hizkuntzari, baderitzat, gezurtatzen dituzula Erdaldunen, ta Euskaldunen usteketa txarrak, ta desegiten, ta aienatzen guzien lausoak, ta lilluramenduak.

Ona non dezun gaia, munduan dan kontuzena izatez, ta egokiz erabilli behar dana: baña zein ere dan goi, mee, ondatsu, ala oi darabilzu, aña aisa, ta itobagez, beste esku-arteko beargai errazen bat baliz bezala. Ez alzaitu antustek amilduko. Eztezu hau zerez: Jainkoaren doaia dezu, noiz, ta nori nai duen ematen diona. Etzinioke aña argi ta, garbi sail on ekingo, Jainkoak eman ezpazizun Jesusen biotzarekiko dezun jaiera hori, ain bizia, ta sutua. Ark erakusten dizkitzu gai aundi onen saiets guztiak, ark egoki santuak, ark ekarrai ezti ezti, gozo gozoak, ark gizonentzat debozio oni dariozkan Zeruko ondasunen iturburuak. Hitzetatik agiri dezu, nola dizekan zure biotzari, ta eztaauskiola mingañari, barrunbeari dirakiena, ta gañez dariona besterik. Oiez gañera etzaitu izutzen nekeak, minberakor, ta alper txarrak izutzen dituen bezala: ta orregatikan, aiek ezbezala, garaitzen dezu, lautzen, ta menderatzen.

Bestenaz banagoka zure hitzuntzari, len ere baño obekiago dakust alde oietako Euskaldunen itsumendea, zeñean darasaten, ezala gure Euskera, gauza andi, mee, goi diranak adirazteko. Ona bertan guzien gezurtamena, zure libru Euskeraz ain garbiro moldatuan. Esan biezat nork nai, zenbat zor dioten zure Euskera onek, beste hor dabilzan hizkunderen naspillai? Esan begit, zeñetan Jesusen biotzarekiko deboziaren gaia obeto, ederkiago, gozoroago berezia dagoan, zuzendua, ta apaindua? Gaiak berak ezta du, ta alderdi guzietatik ezta dario; eta arrezaz hitzegiteko ezta munduan gure Euskera bezaiñ hizkuntza itsaskorrako, eztiago, gozoagorik: ta egia onen ikusbidea zure libru hau izango da. Bañan lenbiziko saioak onelakoak diranean, esan biezatet, gerokoak nolakoak izango diraden, ikusiaz, ekinaz, landuez, aterako diranak?



Eskriturak nonbait diona da, *aurtxoak ogi eske zeuden, ta etzan nork puska ziezaten*: ta oraiñ ere auxe bera esan dezakegu Euskalerrienzat; bada Jainkoaren hitzaren ogia txikitu bageaz, sekereak igartuak bezala, goseak hilzer daude asko ta asko. Zer bada? eztabilza gure Eleizetan Predikarioz franko? eztarasate surmurrez, ta deadarrez Zeruko jakinbidea? Egia da, badabilza, ta badarasate. Ordea zer da ansi, enzunle geienak erausi hura aditzen ezpadute? Sinisterazo nai digute, aditzen dala Gaztelania, are ikasi ez dutenen artean. Ezta hori egia: alperren erausiak, eta aitzakiak dirade: hitz banakaren batzuek adituagatik, aizeak daramatzi bestea, eta Jainkoaren hitzaren ogia gelditzen da Euskaldunentzat, txeatu bagez probetxurik gabea. Baña egia baliz ere, ezta lotsagarri, hitzezin behar digute-la Euskaldunak Euskalerrietan, ez guziok dakigun hizkuntzan, ez gure erriko, gure gurasoen hizkuntzan, ez bularrarekin batean edoski genduen, ta lenbiziko giñekien hizkuntzan; baizikan Gaztelauen hizkuntza arrotzean?

Siñis nazazu, ereille gaixtoetan dago azaro txarra, eta gero uzta soi-lla, ta utsa. Alabañan gutxi daki bere jaieterriko Euskeraren erdia, eta alperrak diraden bezala, eztute ikasi nai geiago, ta eztie nai beren buruai atsekaberik eman. Baña onetatik zer gertatzen da? Dakiten piska arekin, hitz moltxo, eskumen baten diña ezta arekin, nola eziñ adierazo dituzten beren esakariak, badarasate pulpitan hitzera naasi bat, beñ Euskera, beñ Erdera, beñ Latiñera, guzia leudatua, zikindua, baraustua, zeñean dirudien, igo dirala gaiñ artara enzule guzien burla egitera: ta arritu oi naz, nola asko ta asko, bulzaka ordu gaixtoan aientzat, botatze eztituzten andikan bera. Are gogaikarriena da, txarlari oiek ikustea, ta aditzea, nola dau-den isekaz, ta musinka Euskeraz ederki dakien jolasari, beñ Nafarroako *minzoa dela*, gero Bizkaiko *berba dongea*, batean *ausaz ere* Goierriko hizketa dezula, bestean *noaskiro* Beterrikoa; atxurlarien, ta nekazarien hitzera dala hura, baserritarra dirudizula, ta milla onelako astakeria. Eztute izen obeagorik merezi. Aienatu behar ginituke, gure hizkuntza ederra galtzen diguten hizjario motel txarr oiek. Oraindik ezta-zaute, Euskaldunak Euskera duela gauzarik onena, ta honragarriena; bada ari ditxekala, beti agertuko du bere burua, dan bezala, Españar uts utsa, anziñakoen, ta are lenbizikoen etorkia, ta ondokoa, ta beragatik nastebagea, garbiena, fiñena, ta nobleena: dakiela, nondik, ta noizdanik datorren: zeña dan Euskaldun-ezak, itsuka baizik, eztakitena, ez eta jakingo ere.

Beste batzuek dituzu, gure Euskeran nai ez lukeenak beste hizkuntzetatik hiztxo batere: eta onen bidez epaiten, ta ziatzen bezala dira jolasen. Bederako ergelkeria! Etzaitela zu malmeti. Euskerari eratxi zaizka Gaztelaniatik, Latiñetik edo beste hizkuntzetatik hitz asko; baña adituaz,

ta oituz, Euskerakoak bezaiñ ongi, aditzen diranak: eta oiek utzi behar eztitugu: ta beharbada noiz edo berriz obeko da, onelakoak utsatzea, Euskerakoak baño: batez ere Eliz gauzetan, ta gure arimen salbazioari dagozten egikarietan. Lajatuko ditugu erbesteko hitz horiek, nai badegu, gure Euskerarenak, piskabana usatuaz, ta erabilliaz, eskukoi, ta jakiñak egingo diradenean. Ongi egin dezu, Nafarroako hitzen batzuek ekartzea, egokiak diranean, eta besterik eztean; Zerren lenbizian, ta batbatetan aditzen ezpadira, aurki adituko dira, ta geienak, dagoaneko, aditzen ere badira: ta ala Euskera bide batez edertzen ta ugaritzen da.

Etzaitzela tontotzarren erausiak ozpindu, ta ikaratu: eztride jendartekoak, ez kontuzkoak; hitzera ona, ta beardanezkoa zein dan, eztezu aietan aurkituko, ezta billatu behar ere. Bazterretan, ta itsu, motel, jakiñen artean daraukiote, baña ez tira gai, ezer ere danik, agertzeko, ta argitaratzeko. Zer degu, astoren batek edo bestek esanagatik, ezta onelako hitza emengoa, edo ezuela aditzen? Nafarroan *hirri*, Bizkaian *barre*, Probinzian *larra* egiten zaiela onelako, ta alako hitzen batzuei? Suertez ere neurri ederra genduke hizketarako, besterik ezpagendu. Gizon zuhur, zintzo, meneak eta jakintsuak gure alde ditugunean, eztegu beste jendalla horiei jaramon behar, ez eta aien esan mesanaz ajolarik artu.

Ekin bada ekin, Aita nerea, Euskerari, ta Euskeraz itxeki Jainkoaren darabilzun lan oni. Uste dezun baño on geiago egingo diozu Euskalerriari; zeñean hizkuntzaren naasiaz, ta aditu bageaz ozta jakiñ oi da behar dana; ta hiltunen ergelkeriaz; ta aroikeriaz ozta aditzen degu naspilla, ta Ijitukoen marmariza besterik. Kanporatzen ditut neronek aditu ditudan batzuek, argi, ta garbi minzo diranak, ta Euskerari beren onetsiari bezala darraizkanak. Erein dezu Jesusen biotzarekiko jaiera Euskalerrietan; erneko da, zorituko da, ta bilduko dezu, iñon ere nereki-ko bildu dan uztarik ederrena, ta ioriena. Sekañetan biziagatik, Euskaldunak ez tira sekañak, erriberak bai, lubera gozoak, beti giro onean daudenak, Euskeraz kontuz, ta moduz egozten zaien Jainkoaren hitza artzeko, gordetzeko, azitzeko, ta eunetan anbat emanarazteko.

Aterazazu beraz zure liburu hori, eta len baño len bana ezazu Euskalerrietan; batez ere non eta Jesusen ballera santuak jaso dituzun, ta lenago jasoak zeuden. Irakurriko dute ala Eleizetan, nola etxeetan, eta Euskeraz utsik dakitenak, ta Gaztelania arrastaka baizikan eztakitenak ere, naiko dute beñ baño geiagotan aditu, ikasi, ta gogoan sartu, hitzez predikatu ziniena, ta oraingotz, bear-bada azturik daukaten. Onela Biotz maitagaria haren landatu dezun amodiota, ta jaiera, geituz, andituaz, ta sutuz joango da. Alabiz, ta ala izango da, gizonen biotzak bere eskuan



dauzkan Jaun hark betetzen baditu bere bildurrez, bere amodioz, bere grazia egillez, ta ugariz. Nai dakiola bada oraiñ ta beti guziok beregana gaitzan artean. Agur, Aita nerea, ta gogoango al nazu zure otoitzetan. Loiolan Martxoaren 15. egunean 1747. urtean.

Zure serbitzaria biotzetik,  
JHS.  
Manuel de Larramendi

## **JESUSEN BIHOTZAREN DEBOZIOA**



## LENBIZIKO BURUA

*Zer den, ta zein ona Jesusen Bihotzaren debozioa.*

### §. I. ADITZERA EMATEN DA ZER GAUZA DEN DEBOZIOA

1. Jakin gabez zer den debozioa, anitz arkitzen dira, birtutez beterik Zeruan sarzeko daudela uste dutenean, bekatuaren loihean sartuak. Ezta debozioa, debozioa dela anitzek uste dutena. Zenbaitek uste dute debozioa dela noizean bein barutzea. Anitzen ustea da, bere orduetan ezpada, ezer ez arzea, eta orduan ere jan-edanean labur gelditzea debozio andia dela. Maiz konfesatzen diranak, egunean Meza bat entzuten dutenak, zenbait hitzeko otoiitz edo orazio erran oi dituztenak edo egunoroko Errosarioa uzten ez dutenak, debozioz urtzen daudela uste dute. Orobat uste du marabedi zenbait, bizi deño edo ill ondoan, beharrean dagoenari ematen diozkanak.

2. Onelako gauzak egiten dituztenak arki ditezke debozioz beterik eta bizitza on batean sartuak, baita bizitza gaixtoan ere, ta deboziorik gabe; bada debozioaren estalki ta azalak dira, askotan, onak diruditen gauzak; eta azal ta estalki utsak badira, Zerurako ez dira onak edo ez dira Zeruan sartuko diran gauzetatik.

3. Barren beroa edo aserrea dadukanaren baruak birtutearen estalki edo azalak dira; baña azal edo estalki utsak. Lagunaren bizitza ta lanak hitzez ta murmurazioz zikintzen ari denaren jan-edan laburrak iduri oneko gauzak dira, baña debozio garbiarekin ekustekorik ez duten gauzak. Diran *Ave Mari*, Meza enzute ta konfesioak, bihotz zikiñean arkitzen diran konfesio, Meza ta *Ave Mariak* dira, utzi artean bekatuak eta bekatuaren bideak. Nai adiña gauz on zuk egiña gatik, oharturik bizi ezpazera oroitzapen lizunen, begiratze arin, behar eztiran sartu-ateratze, danza, jostatze ta onelako gauzen artean, bekatuaren katez lotua dadukazu bihotza, edo kate horien billa zabiltza. Zer nai emana gatik beharrean dagoenari, ematen ezpadiozu berea bakoitzari, ta Jainkoari zor diozun amoreta, bizi beharko dezu beti, dezun debozioa gatik, erre ta urratuak Infernuaren erdian.

4. Ezta, bada, ez, behar den debozioa itxura edo arpegi oneko edozein gauza egitea. Arpegiko larru edo prinz ederra erakusten duten anitzek barren ustel edo galdua iduki oi dute; ta debotoak diruditen edo iduri oneko gauzak egiten dituzten zenbait, deboziorik ez duen bihotzarekin arkitzen dira; ta Ebanjelioko Fariseoa bezain utsak.

5. Sartu zen bein ausardi andiarekin Elizan Fariseoa; ta asi zen Jainkoari esaten: «eskerrak zuri, nere Jaun ta Jabe andia; bada ez naz ni beste asko ta bazter artan dagoen gizon hura bezalakoa: ez dut nik seigarren mandamentua urratzen; ez diot niori berea kenez; ta ez dut zuzen ez dabillen gauzarik egiten: egiten ditut, behar bezala, nere amarrenak, eta bitan barutzen naz haste-oro». Debototzat zedukan bere burua, baña deboziorik gabeko gizatar, arro bat zen Fariseoa. Aski zela uste zuen, deboto ta Jainkoaren adiskide izateko, seigarren mandamentuaren kontrako loihetik urrun ibiltzea, nori berea uztea, amarrenak egitea ta barutzea; baña bere baru-amarren, bere garbiro ta niori gaitzik egin gabe bizitza, etzuten bere antuste ta soberbiatik atera. Bere debozio guziarekin galdu zen azkenean, zeren haren debozio guzia debozio-azala zen.

6. Hura bezala galdu ez ditezen gauz onak egiten dituztenak eta Jesusen Bihotzaren debozioa artu duten edo artzeko daudenak, adirazi nai diet zer den egiazko debozioa. Egiazko debozioa da *Jainkoak nai duena egiteko ziñezko gogorekin bizitzea*. Ala diote Santu ta Doktore debozioaren gañean hitz egiten dutenak.

7. Bi gauza eskatzen ditu egiazko debozioak: lenbizikoa, bihotzaren garbitasuna; bigarrena, gauz onak gogotik eta maiz egitea, edo egin behar diraneko prest egotea.

8. Egiazko debozioa duenak behar du barren edo bihotz garbia: Bihotza bekatuz zikindua dadukanak ezin iduki dezake, Jainkoak nai duen guzia egiteko, benazko edo ziñezko gogoa; bada onelako gogoa duenak ez daduka Jainkoa aserre; ta aserre daduka bekatutik atera gabe bizi denak. Behar du, bada, lenbiziko lekuan, deboto izateko, bekatu mortalik gabe egon; ta egon behar du bekatu berrien bide edo okasiotik iges egiteko asmoan.

9. Bekaturik gabe arkitzea zu ez da aski, deboto izateko; bada bekatuak gabe arkitzen da bataiatuak dagoen aurra; baita, bizitza gaixto baten buruan ongi konfesatu dena, ta gauza onetarako alfer-nagi arkitzen den edozein ere; ta ez hau, ta ez aur hura dira debotoak; bada onek ezta gauza onik egiten; ta hark, egiten badu zerbait, egiten du neke andiarekin; ta, debozioa duenak, egiten ditu gauza onak maiz eta orrenbat neke gabe.



10. Ez dut orregatik erran nai deboto denak egiten dituela gauza guziak gogotik eta nekerik gabe; ez; nori nai adiña kostatzen zaio, zenbait aldiz beintzat, deboto denari hau edo hura edo gauzaren batzuek egitea. Baña onen ta bizitza gaixto baten ondoan, Jainkoa gana itzuli den, edo modu erdi otz erdi epel batean bizi denaren artean arkitzen da, ollo ta miruaren artean arkitzen den diferentzia.

11. Olloa ezin bestez egatzen da; ta egatzen denean ere, bereala nekatzen da, ta lurrera dator: baña mirua geienean egaan dabill, ta aizez aize. Olloa, egaan asia gatik, guti goratzen da. Mirua, lurra uzten duenean, goratzen da Zeruairen edo aizearen erdiraño. Olloak, egaan dabillean, erabilliz, urratu nai dituela dirudi dituen luma ta ezurrak; eta soñuz urratzen ditu bazterrak. Miruari joan oi zaizka aize gañean ordu osoak, noizean bein luma bat edo berze baizik erabilli gabe; ta dirudi, neka ez dedin, aizeak artzen duela bere besoetan, ta daramala nai duen alde ta bazterretara. Egia da ez dela beti onen aisa ibilzen egaan edo egaka Mirua ere; bada aize gogor edo biziren bat urratu behar duenean nai duen lekura joateko, ongi nekatzen da. Onelako aldietan aizeak zenbait bider garaitzen du mirua; ta azkenean, ezpada beñ saieska edo zearka, beñ inguruka, ta beti lepoa ulzatuz, ta dituen luma ta gorputz guziarekin al egiña aizearen kontra egiñez, ez da nai duen lekuratzen.

12. Orobat gertatzen zaie graziaren Zeruan edo aizean dabiltzanei; batzuek nekez goratzen dira lurretik, eta laster edo fite lurreratzen dira; goratzen diranetan agitz nekatzen dira; ta gelditzen dira lanerako gogorik gabe. Nekatzen diranetan, ez dira bakarrik nekatzen; nekatzen dituzte dituzten lagunak. Beste batzuek maiz uzten dute, edo sarritan lurra; ta dirudi ez dutela onik non ta Zeruan ez dabilzan; ta dabilzan geienetan, ezpalebilza bezain aisa ta erraz ibilli oi dira; baña ez beti; bada badituzte oek ere noizean beñ beren neke-lanak.

13. Erran dezagun, nork nai adi dezakean bezala. Meza bat entzuteak, Errosario batek, baruak edo konfesioak asko nekatzen ditu batzuek. Orietatik edozein egiten dutenean, arkitzen dira egur igar bat bezain idorrak edo leorak; eta gelditzen dira orrelako gauzarik egiteko gogorik gabe. Egiten badituzte, berriz, izaten da ezin bestez ta debozioaren intzik bihotzean ez dutela; edo egiten dituzte erranaren utsez, ta konfesoari edo norbaiti burua autsi ezker.

14. Badira ongi bizi diranetatik zenbait, kasi nekerik gabe, orrelako ta beste gauz anitz egiten dituztenak; gauz onetarako jaiok diruditenak; orietan daudenean baizik onik ez dutela diruditenak; eta beren atsegin ta gusto guzia birtutean arkitzen dutenak. Onelakoak egiten dute debozioz-

ko bizitza. Baña izan oi dituzte oek ere beren aldiak eta ordu illunak; eta askotan nola ez dakitela. Batzuetan gordetzen zaie Jainkoa, ta gelditzen dira gauza onerako batere gogorik gabe; ta, egiten dutenean bortxaz gauzaren bat, gelditzen zaie bihotza igartua bezala. Ez da hau daramaten nekerik andiena; andiagoa da, ekusi oi duten bezala, beren bihotza ekustea asmo ta tentazio gaixtoz betea. Orduan daude, Jainkoak bere eskutik utzi ta etsiak garaitu dituelako beldur andi batekin; ta, edozein gauz on egiña gatik, ez dute arkitzen negar ta nekea baizik; eta ura egitean, aitzen zaizte dituzten indarrak.

14. Baña zori oneko nekea da onelako nekea. Zenbat geiago nekatzen diran gauza onetan ongi bizi diranak, anbat geiago irabazten dute; ta dute debozio ohea! Jainkoak graziaren ezitan bustitzen dituenen, artu behar diran lan-nekeak nork nai artzen ditu gogotik; baña orduan Jainkoak egiten du geiena, ta ez guri orrenbat esker. Esker guri, bakarrik bezala uzten gaituenean nekearen azpian, ta bihotz eta barren guzia igartua bezala, ta graziaren ezti gutirekin dadukagula egiten ditugunean, egin behar ditugun gauzak.

15. Emen lurrean ere edozeinek artzen ditu gogotik, eta egiten, Erregen etxeetako egiteko ohorezkoak edo andiak: baña Soldaduz betarik dagoen Erri bat artu edo su-gar-ezpaten artean sartu behar denean, ez da edozein sartzen gogotik; eta edozeinek ezagutzen du geiago irabazten duela Erregereko, bere biziak etsirik, su-burnien artean ta perill andietan dabilleanak, dabilleanak baño guziak nai dituzten Palazioko egitekoetan. Atsegin ta gustoz beterik egiten dituenen batek Jainkoaren gauzak, egiten ditu nork-nai gogotik Errege andi baten etxeko egitekoak egiñen litukean bezala; orrelako atsegiñik bihotzean ez duela egiten dituen, etsaien artean dabil, neke andietan arkitzen da, ta egiten du bere Errege andiak geiago estimatzen duen gauza bat. Onik ez du, zenbaitek bezala, eztatiko edo atsegin utsezko deboziorik; baña badu asko ta anitz irabazteko bidea ematen dion debozioa.

## §. II.

### ZER DEN

### JESUSEN BIHOTZAREN DEBOZIOA

1. Jesusen amore-nekeen izenean Jainkoak nai duena guk egitea, edo egiteko prest egotea da Jesusen Bihotzaren debozioa. Jakiteko zer den





Jesus ona gatik egin behar duguna, lenik jakin behar da zenbat zor zaion Jesusi; bada zor onen alde da debozio onek erakusten duena.

2. Jesusi zor diogu erran ala ta anitz geiago. Gu gatik egin zen gizon; il zen gu gatik; eta gu gatik dago Jesus Aldareko Sakramentuan. Ezin neurri ditekeana da Jesusek digun nai edo amorea; ta, onen andia ez izatera, ezin egin zezakean Jesusek gu gatik egin duenaren laurdenik ere.

3. Gu gatik gizon egitea, gu gatik iltzea ta Aldarean gelditzea ez da bakarrik guk Jesusi zor dioguna. Aldarean ekusten dituen bidebage ta txarkeriak, gu gatik daramatzien gauzak dira. Aldarean Jesusek ekusten duen eskergabetasun oni damuz, ta digun ongi nai edo amoreari amorez erantzutea da beraren Bihotzaren debozioa, edo Jesusen izenean egin behar duguna.

4. Ezagutzen ezpadezu edo ohartzen ezpazera nor den Jesus, ezin ezagutuko dezu zenbat amore zor diozun Jesusi, zenbat zu gatik eraman duen ta daraman orain ere. Jesus da Aita Eternoaren Semea; ta da, Aita bera bezala, Jainkoa; baña Jainko, zu galdu etzindezen, gizon egin zena. Bizi izandu zen ogei ta amairu urtez; ta beti neke-izerdiz bete. Ezta, bere biziko azken egunetan beintzat, egin etzitzaion txarkeririk, edo eraman etzuen nekerik. Lapur gaixto edo gaizkigille andi bat bailiz bezala erabilli zuten Jerusalemen etxez etxe edo Juezez Juez, eman zekion eriotz modu gogorren bat. Hau eman artean zenbat ille-tiraka, zenbat ostiko, zenbat bearrondoko edo masalleko etzituen Jesus onak artu? Askotan bete zioten listuz arpegia, aranzeez urratu zioten burua, ta azotez gorputza. Zituen indarrak baño Gurutze andiako batekin atera zuten erritik Judu gogorrak. Hura ezin eramanez, jaiki-erori zebillela ekusirik, bidean ill zekien beldurrez, eman zioten lagun bat. Igan zen nol-ere-bait Galbarioko mendira. Han eman zituen bere azkeneko asnaseak: nola uste dezu? Lumazko koltxoien gañean ta olandazko maindireen artean? Bai; orretarako zeuden haren etsaiak. Ez, ez; ill zen Jesus Gurutzean iltzez josirik; eta iltzeak urratu zituzten bere esku-oñetatik odola zeriola.

5. Zertako onenbat Jesusen neke? Zu ta ni sekulako neke ta sutik libre geldi gindezen. Zu ta ni biok sar gindezen neke oriekin irabazi zigun Zeruko glorian. Etzuen Jesusek gure beharrik; gure onaren billa zebillen, egin zuen ta zeraman guzian. Ongi nai zigun, ta guri ongi naiez egin zen Gizon, ta eraman zituen ekusten dituzun neke gogorrak. Ezagutzen dezu orain zein andia den Jesusi zor diozun amorea? Baña adizazu oraindik.

6. Bazekien Jesusek, bere nekezko eriotzarekin Zerua guri irabazi ondoan, gurekin gelditzen bazen, ekusi beharko zituela nai etzituen anitz gauza. Bazekien Hereje gaixtoak itsatsiko zerizkala, aldarera iganik, zakur

amurratuak bezala. Bazekien, erreko zituztela hostia santuak, josiko zituztela ezpata puntaz ta iltzez, sartuko zituztela irakiten zegoen urean ta emain ziezitela zaldaletzat beren zaldiai, baita ezin esan ditekeen bezain gauza zikiñetan nastuko zituztela ere.

7. Bazekien Jesusek Hereje ez diranak ere milla ta milletan zikinduko zutela beren sakrilejio gaixtoekin komunioko Maia. Bazekien geienak ezin bestez sartuko zirala Elizan. Bazekien, Elizan sartzen ziranetan ere, han ezpalego adiña kaso egiñen zutela Sakramentuan dagoen Jesusez. Bazekien an izain zituztela behar ez tiran berriketa ta bazterretara begira egoteak; eta, non zeuden oartua gatik, egoin zirala Jauna ganako oztasun andi batekin, ta geldituko zirala fite gogoa andik urruti zedukatela. Bazekizkien, gauz oiek ez ezik, gurekin gelditu ezkeroz ekusi beharko zituen txarkeri ta laburtasun guziak; ta ala ere nai izandu zuen gelditu azken Juizioko eguneraño.

8. Zergatik uste duzu? Zeren geiegi nai digun ta maiteegi gaituen. Beinik-bein gelditu da Jesus gure zai bezala, ta guri eskua ematea gatik geren behar ta estutasun guzietan. Gure zorren alde agertzen zaio egunoro bere Aitari; ta agertzen zaio egunean zenbat Meza mundu guzian ematen diran, anbat aldiz. Agertzen zaion guzietan ari da gu ganako duen aserrea edo oztasuna kenzen.

9. Aldarean gelditu da Jesus, onetarako ez ezik, gure animen janari ta indar izateko. Bazter guziak betetzen dituen Jainkoa da Jesus; baña Jainko, indarrak guri ematera etorzea gatik, bokadu batean bilzen dena. Bokadu egiñik Elizan dago Jesus gau ta egun, noiz agertuko garan, gure begira; ta artean ekusten ditu erran ditugun hiroi edo irain, injuria arrigarri, bidegabe ta txarkeriak. Guzia gatik ere, gure amorez urtzen dago beti.

10. Ekusten dezu orain zenbat zor diozun Jesus onari? Ah zein gaizki eranzuten diogun digun amoreari! Gure amorez beterik beti Jesus; ta geienean Jesusez oroitu ere gabe gu! Gure billa, gure deiez Aldarean Jesus; ta Jesusen igesi bezala gu! Hume onak bezala arganatzen diranak ondasunez betetzen Jesus! ta arganatzen diran geienak, esker gabeko hume gaixtoak bezala, otzatasunez beterik errespetua galtzera, edo egiten dituzten sakrilejio belz, itsusi-lizunekin Eliza ta Aldarea zikinduak uztera!

11. Adimentu gabekoa behar du batek izan ez maitatzeko, onenbat bera maitatu duen Jesus. Arrizkoa da gure bihotza damuz beterik gelditzen ezpagara, Jesusek gu gatik ekusi dituen gauzak ekusi ezker. Adimentu gabeko ta bihotz gogordunetatik ezpazera zu, edo zu bazera maite gaituen Jesus maitatzen dutenetatik, eta damutzen bazaitzu, nekez len, ta gero txarkeriz ta sakrilejioz bete Jesus ekusteaz, Jesusen Biotzaren



debozioarekin arkitzen zera: [bada] Jesusek ekusi duenari damuz, ta digun amoreari amorez eranzutea da Jesusen Bihotzaren debozioa.

12. Jesusen izenean egiten dituzun gauzetan ageriko da zure argana-ko debozioa, edo zure damua ta amorea. Bat maite duenak egiten du, hari atsegín egitea gatik, al duena; eta hura neketan ekusten badu, kentzen dio al egiñean edo arintzen dio bere nekea. Ongi bizi diran ta elizan maiz billatzen dutenak dira Jesusen nekeen arinzalleak: orregatik oriekin ditu Jesusek bere atsegín ta gustoak: *deliciae mea esse cum filijs hominum*. Ezpadakizu, Jesusen nekeak dira, lenen gañ, maiz ekustera loazkeenak agertu gabez, Elizan daraman bakartasuna, ta joaten diranen moteltasun ta baldankeria; bada zenbait, nekez ta bakan baizik, ez dira Elizaratzen; ta Elizaratzen diranak, edo hitz bat Jesusi esan gabe Elizatik ateratzen dira, edo hitz egiten diote, bazterretara begira daudela, gogoa berzetan dadukatela, ta zer ari diran ez dakitela. Onelako nekeak neke andiak dire; ta, guziak baño andiagoa da Aldarean ekusten dituen bidegabe, komunio gaixto ta sakrilejioak dakartena. Bada Jesus maite duenak eztu aldegin behar Jesusen ondotik Jesusekin dagokean orduan; ta arekin dagoenean, egon behar du, maitatzen ez dutenak ez bezala, edo ark ekusten dituen txarkeri ta sakrilejioen damuz beterik. Ori da Jesusen nekeak arinzea, ori Jesus maitatzea.

13. Damu ta maitatze onekin arkitzen diranak artzen dute maiz Jaun andia; ta, hura artzeko, garbitzen dituzte, alik ongiena, beren bihotzak konfesioko iturrian. Berekin dadukaten Jesusi eskatzen diote barka ditza-la orduraño berak eta gañerakoak egin dituzten komunio gaixto ta txarkeri guziak; eta ar dezala guzien alde, alik ongiena egin duten aldi artako komunioa. Ematen diozkate eman al adiña esker, beti zor izandu dioten ta Aldarean erakusten digun amore andia gatik.

14. Jesus maite dutenak sarri dijoaz, beren ta handik igesi dabiltzanen izenean, Jesus Elizan ekustera. Nai lituzkee orduan munduan diran guzien bihotzak; guziekin Jesusi agur egiteko, edo adoratu ta maitatzeko. Egiten du nork berearekin al duena; ta bere onenen damua guti iritzirik, erakusten dio Jesusi naigabe ta damu andia, gañerako maitatu behar lukeenen txarkeri ta esker gabetasunez: eskatzen dio erakutsi dakiela ez dakitenei, zein maitagarria den Jesus; ta diela guziaz, bera maitatzeko, behar duten grazia. Elizara ezin badoake, arkitzen den toki edo lekutik esaten dio maiz ta askotan, Elizan dagoen Jesusi, Elizan errain likeon guzia.

15. Jesus maite duena ezta, al badu, geldituko Meza enzun gabe: badaki alabaña zer den ta zenbat balio duen Mezak. Meza batek badu

diran zorrak ateratzeko diña: ta, Mezaren presenta Jainkoari egiten dionak galzen badu, eskatu gabez galduko du behar duena; bada ar dezakeanak baño geiago ta geiago balio du Mezan ematen duenak; eta eztaki Jaunak orrelako orduetan eskatzen zaion gauzarik ukatzen.

16. Ekusirik Jesusek gu gatik daramana, ontzat artzen ditu haren maitatzalleak, egiten zaizkan txarkeri ta bidegabeak; eta anbat gu gatik nekatu zen Jesusen izenean artzen ditu berez neke ta mortifikazio berriak; eta egiten duen ta daraman guzia, Jesusi zor dion amoreari eranzun naiez da.

17. Jesusen nekeaz edo Jesusi egiten zaizkan bidegabeko gauzez damu ta sentimentu artzen dutenak, eta Jesusek digun amore andiari amorez erantzuten diotenak, damu-amore onek eskatzen dituen gauzak egiteko prest arkitzen dira. Onelako gauzak gogotikago ta geiagotan egiten dituztenak dira Bihotz onen debozio andiagoa dutenak.

18. Jesusen Bihotza Jainkoaren Bihotza da; ta da edozein errespetu ta adorazio zor zaion Bihotza. Orregatik ere Jesusen Bihotzaren debozioko damu ta amoreak, eta damu-amore onek eragiten dituen gauzak ez diote Jesusen aragizko Bihotz utsari begiratzen; begiratzen diote Jesus guziari. Baña begiratzen diote, bere Bihotzeko estutasun ta digun amoreak gatik: eta asko da hau, bide onetatik datorren Jesusen debozioari Jesusen Bihotzaren debozioa deitzeko edo izen hori emateko. Gurutze Santuan zegoela egin ta eraman zuena gatik Jesus maitatzeari, edo Jesus maiteari zaion debozioari deitzen zaio *gurutze santuaren debozioa*. Eta, *host lla gen debozioa*, lлага, zulo edo zauri orietatik eman zuen odolarekin erosi ziguna gatik, eta iltzez eskuak urratzen asi zitzaizkanetik ill artean eraman zituen oñaze ta doloreak gatik Jesus maitatzeari, ta maitatze onek eskatzen dituen gauzak egiteari.

19. Ez dute gure arpegiko begiak ekusten Jesusek guri digun amore; ez dituzte ekusten leneko Jesusen estutasun ta nekeak; ez eta Aldarean egiten zaizkan txarkeri ta bidegabeen erdiak ere. Orobat gertatzen zaie gure gorputzeko begi berai lla gekin ta gurutzean Jesusek egin ta eraman zuenarekin. Bada lлага Santuak eta gurutzea artzen diran bezala, guri gogora ekartzeko Jesusen gurutzeko Redenzioa, Jesusen odol-ixurtzea ta neke arrigarria: ikuskari ta oroikarritzat artzen, ta ipinten degu Jesusen Bihotza; onetaz oroitzearekin, gogora dakigun Jesusi beti zor izandu zaion ta Aldarean egunoro zor diogun amorea. Baña gauz ebetaz oroitzea ez da oroitze utserako; lan onak guri eragiteko da. Redenzioaren ta odol-ixurtzearen oroitzapena da, eraman gaitzan, orretan zor diogunaren alde, Jesus maitatzera ta aren izenean gauz on zenbait egitera: ta Jesusen Bihotzaz edo aren neke amoreaz oroitzea da guri Jesus maiteraz-



teko, ta maitatze onek eskatzen dituen gauz onak, munduan garan artean, eragiteko.

20. Llaga Santuen ta Gurutzearen debozioak diran bezala beste bi debozioak, Jesusen *Bihotzaren debozioa* da orain erakusten duguna. Bihotzaren debozioa da izena; baña Jesus guziarena da debozioa. *Llaga Santuen debozioa ta Gurutze Santuaren debozioa da* beste bi debozioen izena: baña gu gatik iltzez ta burniz urratu zuten ta gurutzean gu gatik il zen Jesusenak dira debozioak. Orregatik bada, *Jesusen Bihotzaren debozioa* da Jesus maitatzea bere Bihotzeko amore andia gatik ta egin ditugun utsegitte edo kulpen ta Aldareko Sakramentuaren kontrako txarkeri ta sakrilejio guzien damuz bihotza betetzea; ta, damu ta amore onen ondotik, egin zaizkan bidegabeko gauzen ta Aldarean erakusten digun amorearen alde al deguna egiteko ziñezko asmo bat artzea: edo *Jesusen Bihotzaren debozioa* da Jesusek gu gatik Aldarean daramanaz damu ta sentimentu andi bat artzea, Aldarean guri digun amoreari amorez erantzutea; ta daramanaren ta digun amorearen alde al deguna egitea.

21. Españiako bazterretara etorri berria bada ere, ezta berria Jesusen Bihotzaren debozioa. Debozio onekin bizitu ziran, geroago ekusiko degun bezala, anitz ta asko Santu ta Santa. Egia da izen onekin gutxik eza gutzen zutela, azken alde onetaraño. Egunoro dijoa munduan banatuaz debozio Santu au. Non-nai arkitzen ditu Jesusek bere Bihotzeko neke-amoreak gatik ziñez maitatzen dutenak. Badira Italian, badira Españian, badira Alemanian, badira Frantzian, badira Polonian, Turkoaren Errietan, badira Franzesaren ta gure Indietan, baita Persiako, Mogolko ta Txinako Inperioetan ere Jesusen Bihotzaren debozioa gogotik artu duten anitz eta asko. Debozio au artu dutenen artean arkitzen dira asko Relijioso ta Monja, anitz Apaiz jaun, Obispo ta Arzobispo; baita zenbait Errege ta Gizon andi ere. Orain bizi denak, eta beste bost Aita Santuk eman diote debozio oni beren bendizioa; bada zortzi-eun ta geiago dira, orietatik batak edo besteak emanikako Buldarekin arkitzen diran Jesusen Bihotzaren Kongregazioak. Jesus maiteari nai dakiola, ez ditezela izan Euskaldunak haren maitatzallerik txikienak, edo Jesusek diela bere Bihotzaren debozioa gogotik artzeko behar duten grazia.

### §. III.

## NOIZ TA NOLA AGERTU DEN JESUSEN BIHOTZAREN DEBOZIOA

1. Adirazi zuenetik bost eun urteren buruan egin du Jesusek egin gogo zuen gauza bat: anbeste da erran ziola Gertrudes deritzan Santari, egin behar zuela, egiñik guk ekusten duguna. Erran zion bada, oztuaz joain zela azken aldera Kristioen arganako amorea; ta amore hau, edo Kristauen bihotza berotzeko, agertu ta erakutsiko zuela bere Bihotzaren debozioa: ta au da guk egiñik ekusten duguna. Munduari gutiena zor zitzaionean egin dio Jesusek onenbat fabore. Zori onekoak gu, baldin hau galtzen ezpadegu. Gure eskuan dago zabaldua dagoen Jesusen Bihotzean sartzea ta berotzea; edo Bihotz onetatik, onak izateko ta Jauna maitatzeko, behar degun guzia ateratzea.

2. Erran degu, zenbat dituen bere alde edo fabore Jesusen Bihotzaren debozio onek. Erran behar degu orain, noiz agertu den, nola ta nori. Badira irur-ogei ta zenbait urte lenbiziko aldian Jesusek bere Bihotzaren debozioa agertu zuela; ta agertu zion Maria Margarita de Alacoque zerritzan Serore edo Monja bati. Monja edo Serore hau bizi zen orduan Paray deritzan Autungo Obispaduko Erri txikian, Bisitazioko andre Monjak an duten Konbentuan. Oni erakutsi zion zer zen debozio hau; ta agindu zion, zegoela, beraren berria zuen Jesusen Konpañiako gizon andi Aita Colombierekin, ta erran zegiola zer gertatu zitzaion, ta zegiela al egiña haren Bihotzaren debozioa erakusteko edo erakustea gatik.

3. Onetara baño len, nai izandu zuen Aita Colombierek ekusi nola-koa zen debozio hau, ta zenbat ziran andik atera zitezkeen ondasunak. Artu zuen beretzat; asi zen, eskatzen dituen gauz onak egiten; ta arkitu zuen, zela, denbora gutian zeruko ondasun ta birtute asko irabazteko bide labur erraza. Ezagutu zuen bezala, artu zuen asmo ta gogoa bide labur, edo Jesusen Bihotzaren debozio hau alik geienai erakusteko. Ala dio berak, Londresen egin zituen Exerzizioetako Libruan.

4. «Egin ditudan Exerzizioetatik behartua —dio, kasi onelako hitzekin—, atera naz, edo obligatua Jesusen aldetik adirazi zaidana egiteko, edo Jesusen Bihotz maitearen debozioa al dudana erakusteko. Aldarean dagoen Jesusen Bihotzeko ondasunak ezin adirazi ditezkeenak dira. Jesusek nai du dagidala nik al egiña ondasun oriek dakartzien bere Bihotzaren debozioa erakustea gatik. Orretan nago ni ere. Al dudana erakutsi diet emen Inglateran; ta beste bazterretan ere artu dezaten, eskribitu dut onen



gañean Franzia, ta eskatu diot, egin dezakean nere adiskide bati, dagie-la ark ere al egiña egiteko onetan. Ah nor lebilkean mundu guzian, guziei erakusten guzien onerako agertu den Jesusen Bihotzaren debozioa! Guziak ikas dezaten, ona Jesusek debozio onen gañean, ongi nai zion ta faborez bete oi zuen Serore edo Monjari erran ziona».

5. «Korpus Kristiko egunetatik batean Elizan arkitzen ninzan —dio Monjak—, Jesusi Aldarean zor nionaren alde zer egin ez nekiela; baña laster erakutsi zidan Jesusek berak zer egin behar nuen. Ezin dagikezu —esan zidan— zere zorren alde, anbatetan eskatu dizudanak adiña atsegin emain didan gauzarik. Ona —erran zidan, bularra agertzen zidala—, ona, mundukoai ongi naiez, amorez urtzen dagoen Bihotza; ta ona, haurkeria, oztasuna, histia, injuria ta sakrilejioa beste eskerrik munduko geienetatik ez duen Bihotza. Artu bedi bada, oraingo zorzi egunen ondotik datorren hortzirala; komulga bitez maite nautenak, eta egin bitzate egun onetan, Aldarean egondu nazanetan nere Bihotzari egin zaizkan bidegababean alde, al dituzten obsekio ta gauz onak. Ori egiten dutenak ez dute, ez, ezer galduko: oriendako izain dira Bihotz onen amorezko ondasunak».

6. «Zer diozu Jesus? —esan zion Monjak—; nori ematen diozu egiteko ori? nik bezalako txarkeririk ez duenen bati eman behar diozu, nai badezu ongi atera dedin. Ez orrelakorik —eranzun zion Jaunak—, ez orrelakorik; indarsuak lotsaturik uzteko, eragin oi dieztet nik nere egiteko edo lanik andienak indar guti dutenai; onetan ageri da zein andia den nere besoko indarra; bada ezin legike orren indar gabekoak edo onenbat indar ez duenak onen lan andirik».

7. «Asko da Jauna —erran zion Monjak— zuk esatea: baña erran behar didazu zuk ere zer dagikedan nik. Ongi da —erran zion—: zoaz ezagutzen dezun nere maitatzalle Aita Colombiere gana, ta erraiozu egin dezala al egiña debozio hau erakutsi ta banatua uztea gatik: uste duen baño atsegin geiago emain diola orretan nere Bihotzari, ta ez dedilla, ezin egiñen duelako beldurrarekin, izutu: bada bere indarrez etsirik, nereak uste andi ta onarekin eskatzen dituenak edozein gauza egin dezake».

8. Adirazi zion Aita Colombieri Jauna gandik ikasi zuena. Ekusirik onek, erran degun bezala, debozio onen onak eta ondasunak, eta ekusirik Aldarean Jesusi zor diogun amore ta gu gatik han ekusten dituen txarkeri ta bidegabezko gauzak, daramanaren ta digun amorearen alde utzi zion Jesusen Bihotzari bere bihotza, egin uste zituen gauz on guziekin: ta egin zuen orretarako, askotan esaten zuen ta azken aldean arkituko den otoitz edo orazio bat. Asi zen gero Jesusen Bihotzaren debozioa erakusten; ta erakutsi zien anitzi; ta, ill zen bezain fite ill ezipaliz, utzi zituen baño

Bihotz onen maitatzalle geiago lurrean utzirik, joain zen zerura, obeki an Jesus maitatzera. Ark asi zuena egiñaz doaz beste anitz: eta, Jesusek Zerutik laguntzen diela, eraman dute Lurreko bazter geienetara onen Bihotzaren debozioa.

## §. IV.

### NONDIK DEN TA ZERTARAKO JESUS ON MAITAGARRIAREN DEBOZIOA

1. Ez da erraz Jesus maitatzera garamazten bideak edo gauzak kontatzea. Guk ezagu-al baño maitagarriago da Jesus. Egia da nai duenak arkituko duela nai adiña zer gatik Jesus maitatu. Baña nola maitatzalle guziak ez dabilzan bide batez, on izain da, Jesus maitatzeko diran zenbait bide, edo maitagarri egiten duten gauzaren batzuek erakustea, bakoitzak ar dezan obeki dagokiona edo onena deritzana.

2. Iduriko zaitzu, agian, zein ona den Jesus ikastea besterik ez dela bear hura maitatzen asitzeko. Ez dut ukatzen. Baña zuk ere ezin uka deza-kezu ez dela, Jesusen izena aditzearekin, zein ona den ta zein maitagarria Jesus ezagutzen. Jesusen maitagarritasuna ta ontasuna ezagutzeko, beraren Bihotzeraño sartu bear degu. Ezin maita dezakegu bere Bihotzeko amore-nekeak gatik Jesus, Jesusen Bihotzeko berriak ikasi artean. Agertu uste ditut maitatze onetara geien lagunduko duten Jesusen Bihotzeko berriak.

3. Iru gauza dira gure bihotzak bere gana eraman oi dituztenak: gauzaren zuzentasuna, gauzan arkitzen den ondasuna, ta gauzak dakarren atsegin edo gustoa. Irurak arkitzen dira, ekusiko degun bezala, Jesusen Bihotzean, edo Bihotz onetako debozioan. Eta itsutu nai ez badegu ez ezagutzera gatik egia edo argia ez ekustea gatik, beartuko gaitu Jesusek, Bihotz aberats hau erakustearrekin, bera ziñez maitatzera. Goazen bada irurak banaka ekustera.



## §. V. GAUZA ZUZENA DA JESUSEN BIHOTZAREN DEBOZIOA

1. Ezin erran diteke zein ona ta Santua den Jesusen Bihotza; bada Santua da bazterrik ez duen Jainkoaren Santidarez. Ez da Bihotz onetan arkitzen neurri ditekean lan edo gogorik, guziak dira Jainko Gizonaren gauzak edo bazterrik gabeko gauza ta merezimentuak. Eta nork ez daki, onenbat balio duten gauzak edo merezimentuak dituen Bihotzarekin arkitzen den Jesusek, bai-duela zer gatik hura Gizonak maitatu? Non ez dakien, onelako Bihotza duen Jainko-Gizona dela den gauzarik maitagarriena?

2. Ongi nai edo debozioa diegun Zeruko Santuen edozein kutsu ta relikia anitz estimatzen dugu lurreen bizi garanak; eta orietatik baten bihotza gatik emain genuke eztaikit zer. Bada zer eztegu eman bear, ain ongi nai digun Jesusen Bihotza gatik? Santu guzien bihotzei ez diegu Jesusen Bihotzari zor diogunaren laurdenik zor: non arkituko da bada, Santuen bihotzak noiz nai maitatzeko prest dagoela, Jesusen Bihotza maitatu bear ez duela usteko duenik?

3. Mundu guziak daki zer egin zuen ta zenbat eraman gu gatik Jesus onak: bada, begiak garbiturik, sartzen bagara haren Bihotzeraño, ekusiko degu Bihotz onek hartara zuela. Bai: Bihotz onek arkitu zituen gu gaizetik atera ta Zeruan sartzeko bideak. Urzen zegoen bere Bihotzeko amorea gatik artu zituen Jesusek gu gatik eraman zituen neke gorrak. Bai, Jesusen Bihotza da, oni ongi nai zion batek dion bezala, birtute guzien tokia, Zerutik datozkidan ondasunen iturria, ta atsegin ta kontentu baizik eztauen lekua. Santuen bihotzak, Santuen ezurrak, eta askotan Santuak noizbait soñean ekarri zuten oial zatia estimatzen dutenak, ohartzen badira, arkituko dute Jesusen Bihotz onetan zer obeki adoratu ta maitatu.

4. Bihotz hau onen maitagarri egiten duten gauzen edo birtuteen artean arkitzen dira lenbiziko lekua duten hiru. Lenbizikoa, bere Aitari dion bazterrik gabeko amorea ta oraindik ekusi den errespetu ta humiltasunik andiena. Bigarrena, eraman zituen lan ta nekeak artu-erazi zioten pazientzia. Bere gain artu zituen gure oben edo kulpak ematen zioten lotsa; ta, lotsa guzia gatik ere, Aita gan zuen Semearen konfianza. Hirugarrena, gure nekeaz izandu zuen urrikaltasuna, ta guri, txarkeriz beteak ekusirik ere, digun amorea.

5. Gerta zedilla edozein gauza, estu zekiola ezin geiagoraño bere Bihotza, ta bete zekiola, Itsasoa ur gaziz bañon oñaze ta tormentu geigoz bere barrena, etzen igitzen Jesus bere tokitik; prest zegoen beti geigo ta geiago ta Aitak nai zuen guzia eramateko. Beti zen Jesus gure urrikari, neke eramalle, ta Aitaren ta gure maitatzalle.

6. Egun ere ez dirudi duela gu maitatzea beste egitekorik. Urrikari gaitu beti. Beti dago guri bear edo nai adiña grazia, doai ta ondasun emateko. Eta, besoak zabaldurik, gure begira egotea guti baliz bezala, dena guri eman naiez, edo gurea izan naiez dago.

7. Baña —nork siñistuko luke?—, hau guzia onela izanik ere, zer arkitzen du Jesusen Bihotzak Gizonen bihotzetan, ezpada gogortasuna, esker gaixtoa, ta gogoan ere, zenbat Jesusi zor dioten ez artu naia? Non arkitu uste dute munduko bihotz gorrak Jesusen Bihotza bezain gauza maitagarriak? Onek digun amoreak, gu gatik onek eraman zituen nekeak, asko lirake damuz erdiratu ta amorez urtzeko, gureak bezain arrizkoak ez lirakeen bihotzak. Gureak ere, zerbait bad-ere, beratzeko, agertu bearko degu oraindik geigo, zein maitatzekoa den Jesusen Bihotza.

## §. VI. GUZTIZ MAITAGARRIA DA ONDASUNEZ BETEA DAGOEN JESUS

1. Mundu guzian banaturik arkitzen den maitagarritasunak ezta zer ekusi Jesusek duenarekin. Ezin dagoke nior, San Agustinek dionaz, zerbait maitatu gabe; baña ez dabil bide batez guzien maitatzea. Batak maitatuko du gauza bat, artan arkitzen duen edertasuna gatik; besteak zeren den humore on edo kondizio leunezkoa; geienak maitatzen dute emalle den aberatsa; nork nai onesten du bera bezalakoa; nork-nai gauza guziak haren gogora ta ongi egiten dituen. Norbaitek hau ukatu naia gatik, ezin uka dezake ederra den, ondasunez beterik dagoen, guziai ongi egiten ari den, eta gañerako partida onez bete dagoen bat nork nai maitatzekoa dela. Eta nork uka dezake guk dakizkigun partida on ta asko geiagorekin arkitzen dela gure JESUS?

2. Edertasunik andienak, Jesusen edertasunaren aldean, lore igartua dirudi, dio Profetak. Illunbea ta belztasuna eguzkiari dariola deritzat, dio Santa Theresak, bein Jesusen edertasuna ekusi nuenetik. Ez da lurreen edertasun osoa duen gauzarik; alde batetik ezpada, bestetik itsusiak dira,



diranak edo guziak. Edertasun utsa duena ta alde edo saiets guzietatik maitagarria, Jesus da bakarrik. Jesus arkitzen da naturalezaren edertasun, Graziaren doai, Zeruko ondasun ta Jainkoaren izate edo perfekzio guziekin. Ezta Zeruan atsegin utsez arritu ta liluratua, edo amorez urtua gelditu gabe, Jesusi begira dezokeanik. Lurrekoak gara hartaz oroitu ere gabe bizi garanak.

3. Bere eskuan daduzka Jesusek Naturelezaren gauza ta graziaren ondasunak. Keñu bat aski du mundu guzia gain bera erabiltzeko. Ezta gauzarik, ezta etsairik, nai duenean bere oin pera ez dakarrenik. Aingeru ta Gizonen kontuak artzeko dago: ta onen eskutik artu bear dute Zerurako daudenak, ango atsegin, kontentu ta gloria. Non arkituko da, bada, onenbat esku duen Jaunaren beldur izain ez denik? Non, gure amorez urtzen ta guri ongi egin naiez dagoela jakinik, Jesus maitatu gabe, otz geldituko denik?

4. Bazter guziak betetzen dituen, nai duen guzia egin dezakeana ta jakinsua izana gatik Jainkoa, urrikari gaituen Bihotza daduka bere barrenean. Ilzera daramaten ardiak edo illea kentzen hari zaizkan bildotsak baño geiago bere ezpañak idiki etzituela, dio Profetak, bere nekerik gogorren ta gure obenik andienen artean.

5. Zein Bihotz bera duen guri adiraztea gatik, gure Artzai egiten da batzuetan Jesus; ta besteetan gure Guraso edo Aita. Non zebillen etzekien, ta agertu zaion Seme maiteari, badakizu, zein begitarte ona egiten dion haren billa zebillen Aitak; ohea egiten dio Jesusek bekatuaren bide galdutik etorzen zaionari. Aserretu lekuan Artzaia, atsegin ta gustoz beterik gelditzen da, arkitzen duenean galdu zitzaion ardia. Baña onen atsegin ta gustoak eztu zer ekusi Jesusek anima galdu bat bere graziara dakarrenean arzen duenarekin.

6. Eskriba ta Fariseoak eraman zioten bein aragizko loiean arkitu zuten Andre bat. Bazuten berak onelakoak arrika ilzeko eskua ta legea. Eraman zioten, ekusi naiez zer zion Jesusek edo zer sententzia ematen zion. Baña, bere Bihotzaren beratasuna erakustea gatik, etzion Jesusek *ea, zoaz, ez berriz orrelakorik egin* esatea beste sententzia edo kastigurik eman.

7. Orduan baño gogorragoa ezta egun Jesus. Ezta Jesus lurreko adiskideak bezalakoa. Askotan adiskiderik andienak, nai eztuten hitz bat aditu orduko, aserretzen dira, galtzen dute zuten adiskidetasuna; ez diote geroz elkarri arpegirik eman nai; ta gelditzen dira elkar ezagutu ezpalute baño elkar ganako oztasun geiagorekin. Ezta Jesus adiskide oietatik: ekusten du gure ar ganako aurkeria; ekusten du gure eskergabetasuna; ekusten ditu gure txarkeriak, eta gure oben edo kulpak; eta orrelakorik

ekusten ezpalu baño geiago etzaiku aserretzen; edo ekusten ezpalitu bezala dago: ta dago guri lagundu naiez geren neke ta estutasunetan, ta gu geren uts-egite txarren artetik ateratzen. Urrikari gaitu beti: illuntasun ta penaz beterik argana bagoaz, ematen digu behar degun atsegin ta argia; ta bidaltzen gaitu maite duen seme bat Aitak bidaltzen duen bezala. Eztuela dirudi, gau ta egun, ta urte guzian, guri ongi egitea ta gu ondasunez betetzea beste egitekorik.

8. Jesusi zor diogunaren laurdenik zor bagenio nori-nai, emain geniotzake milla ta geiago esker; guztiz maite izain genuke; ta, hari atsegin egitea gatik, egiñen genuke al genuen guzia. Nori berea ematen diola, ez dituela gaixtoak ekusi nai, onentzat duela, duen guzia, ta gauza guzietan dabillega zuzen Errege bat aditzen degunean, nai ta ez hura maitatzera doakigu bihotza: ta orrenbeste ta anitz geiago Jesusen gauza aditua gatik, ez gara Jesus maitatzeko! Askok bidez zor zaio Jesusi gure bihotza: eman bekio bada, beste gatik ezpad-ere, argandik Aldarean artzen ditugun ondasun ta zor diogun amoreta gatik.

## §. VII.

### EMATEN DITUEN ONDASUNAK GATIK, JESUS GUZIZ DA MAITAGARRI

1. Ondasun zalea da Gizona, ta orregatik ondasunak dira lenen hura eskura dakarten gauzak. Esaiozu bati maite dezula: zure errana besterik ekusten ezpadu, hitz alferrak dituzula usteko du, ta etzaitu siñistuko; baña nai dituen gauza zenbait ematen badiozkatzu, maite duzulako jolasik atera gabea gatik, maite dezula siñistuko du. Hau da Jesusek daraman bidea, gure berri duenak bezala: maite gaituela guri adirazteko, betetzen gaitu ongiz ta ondasunez. Haren eskutik artzen ditugun gauzekin neurritzen badegu digun amoreta, amore hau guk ezagutu al baño andiagoo dela aisa ta erraz aitortuko degu. Eman digun gauzarik txikiena ezin irabazi genezakeana da: ta da artu uste genuen ta eskatu behar genion baño andiagoo. Onenbat zor diogun Jesus nai-ta ez maitagarria da guretzat. Baña maitatzen degu guziok Jesus? Nik beintzat, ez behar bezala.

2. Ez dakit ezagutu ere dezun Jesusi zor diozuna. Zer zor diozun ezagutzen ezpadezu, nekez emain diozu Jesusi zor diozun amoreta. Oraindaño bezain eskergabekoo izan etzaitezen, idikitatzu zere begiak, zer zor diozun ezagutzeko, ta emaiou ezaguera onek eskatzen duena.



Nor gandik dezu dezun izatea? Nork eman zizun dezun anima? Nork egin zuen zure gorputza? Etzaitu Jaunak ezer-ezetik atera, ezer-ez orretan uzten dituela beste konta al baño asko ta asko geiago? Etzuen Jaunak ekusten zu ez bezalakoak izain zirala ta ongi maitatuko zutenak orietatik geienak, edo beintzat anitz eta asko? Guzia gatik ere ez ditu oriek egin, ta egin zaitu zu; ta eman dizu orietatik bati ere eman ez dion izatea. Bada zer ez diozu zor eman dizun izate orregatik?

3. Badakit etzarala zu, duen izatea Jainkoari zor dion bakarra; edo badakit Jainkoak egin dituela, zu bezala, besteak ere. Hala da; baña ez diozu orregatik gutiago zuk Jainkoari zor: bada dezun izatetik eztatze zatirik kentzen Jainkoak egin dituen zure lagunak; ta egin ezpalitu, baka-rrik bizi beharra ziñan; ta, zeren besteak ere egin dituen, eman dizun izatearen gain, Jaunari zor diozu lagunak izatea.

4. Egin ditu Jainkoak besteak ere: egia da; baña ez guziak zu egin zaituen leku ta orduan. Zu egin zaitu Jaunak bera gizon egin ezker; ta egin zaitu Kristauen artean. Mundua egin zuenetik Jainkoa gizon egin arteko laur milla urteetan izandu ziran Gizon ta Andre kasi guziak illunbean bezala bizitu ziran, edo lege gogor batean. Israelitak ez besteak, zenbaitek ezpazen, Jainkoaren berri guti zuten; ta, beren buruak betiko galdu artean etziran gelditzen. Jainkoak Moisesi eman zion legean bizi ziran Israelitak; baña nekezko bizia zen lege onetakoak zeramaten bizia: bada anitz gauza gogor egitera behartzen zituen Moisesen Legeak; eta orietatik zenbaitetan uts-egiten zutenak arrika, zakur amurratuak ill oi diran bezala, iltzen zituzten beren erritarrak. Etzinduen zu Jainkoak sartu Lege gogor onen azpian, ez eta bera gizon egin artean izandu zen illunbean ere. Egin zaitu Jesusek berekin ekarri zuen argiz ta beratasunez betea dagoen legea etorri ezker.

5. Badira orain ere leneko illunbea bezain gaixtoan bizi diran Jentil, Turko ta Herejeak. Baña guzien artetik atera zaitu Jesusek. Ekarri zaitu bere Lege garbiaren argira, ta utzi zaitu behar dezun guzia arki dezakezun lekuan.

6. Zer gatik uste dezu egin duela hori guzia zure Jainkoak? zuri ongi naiez edo zeren maite zaituen; bada ez zu ta ez besterik egin ezpalu ere, ta bera gizon egin eza gatik, orain bezain Jainko izain zen, izain zen orain bezain Santua, ta izain zuen orain duen esku ta gloria. Egin zen bera gizon zure ona gatik; eta, zu galdu etzindezen, egin ta eraman zituen arritzeko diran gauzak.

7. Odol txorta edo tanta bat ixurtzea, edo beste edozein gauza Jesusek gu gatik egitea asko zen gure zorren alde, ta guri behar genuen

guzia irabazteko. Baña zenbat nai zigun erakustea gatik eta behartzea gatik bera ziñez maitatzera, egin ta eraman zuen gu gatik eraman ta egin zezakean guzia. Ogei ta amairu urtez nekearen azpian bizitu zen Jesus. Ar zezakeala zen aberatsena, Donzella pobre bat artu zuen bere Amatzat. Neguaren erdian jaio zen, jaio zitekeala udaberrian, udan edo nai zuen orduan. Bere lagun egin zituen neke-izerdiak eta gose ta egarria. Etzion niori gaitzik egiten; ta ongigille gutxi arkitzen zituen. Itsuari ematen ziozkan begiak, oñen gañean ezin egon zenari belauetako indarrak, gorrari belarriak, mutuari mingaña edo hitza, illari bizia ta osasuna: ta guzia gatik ere, ezin ekusi zuten etsaiez ingurutua zebillen. Etsai oriek bein arrika ill nai izandu zuten; ta, etziran gelditu gurutze batean iltzez josia ta illa ekusi zuten artean.

8. Baña orretara baño len, zer etzuen Jesusek eraman? Eraman zituen illetirak, ostikoak, bearrondokoak; eraman zituen buruan dena urratu ta odoldu zioten arantzak, arpegian listu zikiñak, eta gorputzean milla ta millaka azoteak. Juez gaixto, Eskriba ta Fariseo, ta orien alde zeuden guziak ingurutu zuten Pasioko denbora guzian, adar zorrotzak dituzten ta odola irakiten dadukaten Zezenak bezala; ta utzi zien Jesusek, zegitela nai zuten guzia. Etzioten orduan neke gutiako Bihotzean ematen gogoan zedukatzen zure ta nere bekatuak. Gure bekatuak eta eskergabatasunak, itsaso gaziaren erdian itotzen dagoena bezala, zedukaten Jesusen Bihotza; ta itotze edo estutasun onetatik etzen atera Jesus, milla tormen-turen azpian bere odola ta bizia utzi artean.

9. Ona zenbat zor diogun Jesusi. Den gauzarik txikiena egin balu ere, zorko genion degun bihotza ta amorea. Bada zer zor eztiogu, gu gatik egin dituen onenbat gauza gatik? Galduak geunden ta etsaiaren eskuan guziok, guziak gatik Jauna Gizon egin artean; ta, nola nai gu erostea, ta Etsaiaren eskutik ateratzea aski ez paliz bezala, erosi ginduen ta atera, eraman al nekeren buruan. Nola nai erosteak behartuak uzten ginduen al egiñean Jesus maitatzera: bada zer maitatze ez diogu Jesusi zor, erosi ginduen bezala erostea gatik?

10. Ditugun zorrak ateratzeko behar deguna baizik eman ezpaligu ere, asko zorko genion Jesusi: ta zer eztiogu zor gañerako gu gatik egin duena gatik? Bere neke izerdiarekin irabazirik utzi digu Jesusek egin ditezkeen zorrak ateratzeko asko dena ta geiago; ta, zorrak atera gabe iltzen diranak zordun iltzen dira, Jesusen irabaziaz baliatu gabez. Zerutik ditugun lagunderak edo gaziaren indarrak Jesusek guretako irabaziak dira; ta, nai adiña Lurrekoak artua gatik, artuak baño artzeko geldituko diranak anitz aldiz geiago dira. Esan dudan guzia zor diogu Jesusi, zeren digun



ongi nai edo amoreak eragin zion gu gatik egin duen guzia. Nola bada onenbat nai digun ta gu gatik onenbeste egin duen Jesusek ez du gureztat izan behar guztiz maitagarria?

11. Aski da, ekusi degun bezala, Jesus guztiz maitagarria izateko, ill artean gu gatik egin zuena; baña ezta egin zuen guzia. Zenbat maite ginduen erakustea gatik, gelditu zen Jesus gurekin, gurekin egoteko, munduak irauten zueño edo azken Juizioko eguna etorri artean; ta egin zuen orretarako, egin duen gauzarik edo milagrorik andiena: bada sarturik gelditu zen ta janari egiñik Aldareko Sakramentuan. Bazekien Jesusek askok eta geienak, gu gatik egin ta eraman zuenaren ondoan, ta guri ongi naiez aldarean gelditua gatik, ezpaliz baño geiago etziotela begiratu; zenbaiten ekusten edo ezagutzen ezpalute bezala begiratu ziotela; ta begiratu ziotela beste askok beren etsaiari bezala. Bazekien Jesusek zein esker guti artuko zuen gu gatik egiten zuenaren alde; bazekien eskerrak artu lekuan, artuko zituela askoren eskutik milla gaixtakeri, laburtasun ta sakri-lejio; ta guzia gatik ere, digun amorearekin ezin burutuz bezala, ta amore hau guri erakustea gatik, nai izandu zuen gurekin gelditu.

12. «Nik eztakit hau nola den! —dio Jesusen maitatzalle andi batek—. Nik eztakit nola digun Jesusek aldarean erakusten digun adiña amore. Galdetzen badidazu nola egin ditekean ogia aragi, ogiaren iduria galdu gabe, ta nola aragi hau, edo Jesusen gorputz guzia, bildu ditekean hostia txiki batera ta hostiaren edozein zatitara, aisa eranzunen dizut: bada aski da ori ta geiago Jainkoak egin dezakela esatea. Baña galdetzen bazenit nola edo zer gatik maitatzen dituen Jesusek, maite dituen adiña, gu bezain gauza txar, errebes gaixtoak? ezin eranzun nezake, ezpada, bazterrik gabekoa dela, ezin ezagu ditekeana, ta mundu guzia arritu behar lukeana Jesusen gu ganako amore».

13. Gauza oietatik zenbait aditzen dituztenean orrelako berririk ez duten Indietako Jendeak, *ah! zein ona den*, esan oi dute, *Kristauen Jainkoa! zein ongi gillea den ta zein maitagarria! ta norik ezta maitatuko onen maite gaituen Jainkoa!* Zuk ezpadezu beste ain beste esaten, izain da ezagutu gabez Jesusi zor diozuna. Jesusi zor diotenari erantzutea gatik uzten dute mundua Relijioaren batean sartzen diranak, eta munduan, emen ezpaleude bezala, ta Jesus ziñez maitatzen dutela bizi diranak. Orrelako zerbait egiten ez dutenak zenbat Jesusi zor dioten ezagutzen ez dutela aditzera ematen dute.

14. Etzaitzela izan zu orietatik bat. Relijiora ezpazoaz, ta egiten ezpadezu ere ongi bizi diranak adiña, maita zazu Jesus, oraindaraño ez bezala: erakutsi zagozu Jesusi zure ta mundukoen txarkeri, uts-egite ta

bekatuak Aldarean erakutsi diotenaren damu ta urriki andi bat: eta, nai zenuen gauza egiten dizunari eskerrak ematera joan oi zeran bezala, zoaz noizean bein Elizan Jesusi bai dakizula zenbat zor diozun adiraztera; ta egiten dituzun otoitz, orazio ta gauzak egizkitzu zor onen alde, ta maite zaituen Jesus maitatzea gatik. Ori da Jesusen Bihotzaren debozioa; ori da Jesusek eskatzen duena, Jesusi zor zaiona, ta gutik egin oi dutena, ekusiko degun bezala.

## §. VIII. GURE JESUS GANAKO ESKERGABETASUNA

1. Esan ditekean baño andiagoa da, Jesusi Aldarean zor diogun amore: ta esan ditekean baño txarragoa guk Jesusi dioguna. Arrituak geldituko giñake, ezagutzen bagenu, batere zor ez digula, maite gaituela ezin geiago Jesusek. Ez giñake gutxiago arrituko, onenbat Jesusi zor diogula, ta onen guti maitatzen degula Jesus ezagutu ezker. Bazterrik gabekoa da Jesusen Bihotzean arkitzen den guganako amore: ta, oni erantzuteko gure bihotzak artzen duena, amorearen izenik ere kasi merezi ez duen amore da. Guri ongi naiez dago, ta gu ganako amorez urtzen bezala Jesusen Bihotza: ta ezer Jesusi zor ezpaliote bezain otzak daude geienen bihotzak. Nondik dator —esazu arren— onenbat eskergabetasun? Naigaberen bat erakutsi dizu Jesusek? Zuk hura maitatzeko diña ez du oraindik egin Jesusek? Oraindaraño haren eskutik artu dituzun ondasunak gatik ezpada ere, etzara noizbait Jesus maitatzen asiko, Aldarean beti dizun bazter gabeko amore gatik?

2. Begira zazu ongi zer ari den Jesus Aldarean, zeren billa dabillen ta nola; nai ezpadezu oraindaraño bezain eskergabekoa izan. Nori begiratu ezpalu bezala, gau ta egun zu maitatzen ari da edo dago Jesus. Bere maitatze guziarekin nai zinduzke irabazi zu, nai zinduzke beretu edo bere maitatzalle egin, ta orretarako egiten du Aldarean bestetan egin eztuena.

3. Zu gatik oraindaraño Jesusek egin dituen gauzetan ezta, orain bezala, alde batera utzi bere honra ta gloria. Jaio zen ezkaratz edo leku txar batean; baña laster edo fite etorri ziran Zerutik Aingeruak, menditik Artzaiak, baita urrutiko Erregeak ere, an bertan hari agur egitera, ta beren Rege ta Jainkotzat ezagutzera. Kendu zioten Judu gogorrak, Gurutze batean lapurra bezala josirik, bere bizia: baña orduan bertan erakutsi





zuten bidegabe onez zuten damua ezaguerarik eztuten gauzak ere, edo lurreko arriak berak eta Zeruko Illargi ta Eguzkiak; ta aditzera eman zioten mundu guziari Jainkoa zela Juduak gaixtotzat iltzen zedukatena. Onela begirutzen zion Jesusek gu gatik zeramatzen edo egiten zituen gauzetan bere honrari. Aldarean uzten du alde batera Jesusek honra guzia. Gañerako gauzetan, guri bezala, begirutzen zion bere honrari; baña Aldarean, beste egitekorik ezpalu bezala, guri begira dago; ta dago ezin geiagoraño gu maitatzen.

4. Orra zer zor diogun Aldarean Jesusi. Nioiz ere baño obeki adirazten digu emen, maite gaituela Jesusek. Baña nola eranzuten diogu Jesusen amore oni? Siñetsiko zenuke? Esan ditekean baño txarkiago. Gureak bezain otzak ez diran bihotzak amorez urtzeko, geiegi lizake Jesusek digun amorearen milla zatietatik bat; eta digun amore guziaren sua ez da aski gureak zerbait berotzeko. Balizake, nai digun adiña ezpali-gu nai, beste gisaz begiratuکو genikeon Jesusi. Balizake, gutxiago maitatzen bagindu Jesusek, maitatzen degun baño geiago maitatuko genukeala. Digun amorea gatik hitzik atera gabe dago, Aldareko Sakramentuan egiten zaizkan txarkeri guzien artean: txarkerigilleai ematen balie zor zaiena, ohartuagoak biziko giñake; begirutzen diogun baño obeki begiratuکو genioke Jesusi zor zaionari; ta zor onen ezaguerak eramain ginduzke naita-ez bezala, Jesus ziñez maitatzera. Ez ekusi egiten du Jesusek, egin dakiola Aldarean edozein txarkeri; bada bakan arkitzen dira orrelakoak gatik emen egin dituen kastiguak; eta guk ere, illari egiñaz baño, anitz damu geiago artzen ez degu Jesusek daramatzien txarkeriez. Ez diogu begirutzen Jesusek digun onginai andiari. Ez gara oartzen egiten zaizkan Aldareko txarkeriak emengo kastigurik gabe utzerazten diozkan amorera, ta orregatik ez gara seiatzen amore oni amorez erantzutera.

5. Begiak zabaldu nai bagenitu, ekusiko genuke zein arrigarriak diran Aldarean Jesusek ekusten dituen txarkeri, oztasun, bidegabe ta sakrilejiokak. Zer eztiote Aldarean Jesusi erakusten, Herejeak ez ezik, Kristau epel, Kristau otz eta Kristio gaixtoak ere! Elizan bakarrik dago Jesus geienean. Noizean bein agertzen zaizka maite duten zenbait. Geienak zertako dagoen Elizan, ta Elizan dagoenik ere oroitu gabe, daramazte hasteko egunak. Sartzen dira Jai-igandetan Meza bat enzutera: Mezan daude non eta zertan dauden ez dakitenak bezala; ta, Meza eman orduko Elizatik atera dira. Egun andi zenbaitez igotzen dira, konfesaturik, Aldarera: baña zertara? egunen batean ekusiko duten bezala, komunio txar, epel edo gaixto bat egitera. Ah! ta zein kontatuak diran, amorez beterik, amorezko Jesus

komunio santuan artzen dutenak! Ah! ez ekusteko obeak dira Elizan sartze ta komunio Jesusek ekusten dituen anitz eta asko!

6. Jesus beti gu maitatzen; beti guri ongi naiez Jesus; Jesus gure urrikariz beti; ta beti Jesus nondik ondasunez beteko gaituen. Itsutuak bizi behar dute, edo nor den ezagutzen ez dutela, onen Jainko ona maitatzen ez dutenak; edo behar dute izan Genobako Santa Katalinari agertu zitzaion deabruaren gisakoak. Onek esan zion Santari infernuko su ta garrak baño geiago erretzen zuela amorerik ez izateak edo Jainkoa ezin maitatuak. Jesusen Bihotzari zor diogun amoreaz oroitzea ta amore hau ezagutzea asko lizake gure bihotzak Jesusen amorez urtuak gelditzeko. Baña ez degu aditu nai Jesusek erakutsi nai digunik: ez degu ezagutu nai zenbat Jesusi zor diogun, ta orre gatik ez degu maitatzen Jesus behar bezala. Nai bagenu zer zor diogun Jesusi ezagutu, ikasi nai bagenu Jesusek erakutsi nai diguna, billatzen degun baño maizago billatuko genuke Jesus; joan oi garan baño geiagotan Elizan sartuko giñake Jesus ekustera ta haren hitzak aditzera. Jesusen igesi bezala gabilzaño, digun amorearen berri laburra izain degu, ta ez degu izain arganako amore andirik.

7. Anbat gaizkigilleren artean anbat oztasun, txarkeri ta sakrilejio gugatik Aldarean ekusten dituen ezkerok, ez ote ditu Jesusek oraindaño baño bere maitatzalle geiago Elizan ekusiko? Ez ote dituzte zenbaitek begiak idikiko, ekusteko Jesusek gu gatik daramana ta gubanako duen amore; amoreari amorez ta damuz daramanari erantzuteko? Izan zaitez harren zu orietatik bat; eta zoaz egiñaz azkeneko bi Libru onen Buruetan erakusten diran gauzak edo gauza aetatik al dituzunak: ori da Zerurako asko lagunduko dizun Jesusen Bihotzaren debozioa.

## §. IX.

### BIZITZA ON BATERA DARAMAN BIDEA DA JESUSEN BIHOTZAREN DEBOZIOA

1. Ongi bizi nai duenak maitatu behar du Jesus; ta Jesus maitatzeko, behar du Jesusen laguntza, esku ta grazia. Hau guzia irabazteko ta ongi bizitzeko, bide zuzen laburra da Jesusen Bihotzaren debozioa. Behartzea gatik gu Jesusek bera maitatzera egin ditu nor-nai arritzeko diran adiña gauza ta milagro: bada zer eztu egiñen bera maitatzen asi garala ekus dezanetik? Maitatu ginduen Jesusek, dio San Bernardok, eta bete ginduen



ondasunez, Jesus maitatzeko asmorik guk artu baño len: bada zer uka dezake asitzen garanetik ziñez maitatzen Jesus? Jesusen Bihotzaren debozioak erakusten du maitatze hau: ta orre gatik nai-ta-ez izan behar du bizi-tza onera daraman bide zuzena. Nola alabaña uka dezake bere Bihotza gatik eskatzen zaion gauzarik, Gurutze, lanza ta edozein Pasioko gauza gatik eskatzen zaiona ukatzen ez dakien Jesusek? Eta, ukatzen ezpadio, badu Jesusen maitatzalleak ona izateko behar duena.

2. «*Agertu zitzaidan bein* —esaten du Santa Metildek— Jesus maitagarria, eguzkia baño ederrago zegoen ta bazter guzietara argia zerion bere Bihotza eskuz arturik; eta esan zidan, emendik ateratzen dira Zerutik datozen ta mundukoak artzen dituzten *ondasun guziak*». Iltzeko zegoela, eskatu zion onek berak Jesusi gauza bat besterentzat; eta eskatu zioneko, *esan bear diozu* —erran zion Jesusek— *gauza ori nai duenari*: ori, ta behar duen guzia, billa dezala nere Bihotzean; maita dezala Bihotz hau; ta eska diezadala Bihotz onetan, maliziarik ez duen aurrak Aitari nai duena eskatu oi dion bezala.

3. Margarita Alacoqueri, erakustera zijoala, esan zion Jesusek, bere amorearen azken indarrak, eta agertzera bere Bihotzean daduzkan ondasunak, Bihotz onen debozioa artzen dutenei emateko. Bana bedi, esan zion, ta erakus bekie debozio hau jende modu guziaz; bada edozeinek arkituko du emen behar duena. Debozio onetan arkitzen da Jauna maitatzeko, egun oro gauzak obeki egiteko, ta bihotz gogorrek beratzeko bidea. Debozio onetan ikasten da, nola etsaiak, nola oitura ta pasio gaixtoak garaitu. Debozio hau artzen dutenak elkar ongi artzen dute, aisa barkatzen dituzte egiten zaizten txarkeri ta bidebageak, eta obeak dira berak egun oro.

4. Hau bera erakusten du S. Bernardok. «Ai Jesus! —dio— ta zein andiak diran zure Bihotzean arkitzen diran ondasunak! Aldarean dago zure Bihotza bere ondasunekin; ta nai badegu, aisa aberastuko gara, orretan arkitzen dugunarekin».

5. «Jesusen Bihotzean arkitzen dira —dio Kardenal Pedro Damianek— behar ditugun armak eta gure gaitz edo eritasunak eskatzen dituzten belarrak. Bihotz onetatik datoz gu gana datozen etsaiak garaitzeko behar diran indarrak. Bihotz onetan ditugu barreneko neke ta lazetasun guziak leuntzeko diran atsegin ta gustoak. Estu bazaude, etsaien beldur bazera, izutzen bazaituzte egin dituzun bekatu ta txarkeriak, edo barrena asaldatua badadukazu, zoaz Elizara: billazkitzu Jesusen besoak eta sar zaitzen onen Bihotzeraño; ezta Bihotz onetan dagoenari gaitzik egin dezakeon etsairik».

6. «Jesusen Bihotzean arkitzen dira —dio Lanspergiok— gure bihotzetan aldatu behar diran birtuteen belarrak; baita belarrak azitzeko ta lore ederrak emateko behar duten graziaren ura ta beroa ere. Begira zagozu Bihotz oni begi onekin. Eska zazu, hau bitarteko arturik, behar dezun guzia: bada bere eskuan ditu graziaren ondasunak. Bihotz hau da Jainkoa gana garamatzien ta Jainkoa gu gana dakarren bidea. Ase zaitzen Bihotz onek dakarren birtutezko ta graziaren urez: ezta berdin aituko zuk eta gañerakoak nai adiña edana gatik. Artu zazu Bihotz onekin ziñezko debozioa: ta, egiten badituzu debozio onek eskatzen dituen gauzak, aberastuko zera Zeruko ondasunez, zuk uste baño len».

7. Jesus agertu zitzaion bein Santa Metilderi ta eskatu zion maita zezala Aldarean erakusten duen bere Bihotzeko amorea gatik; eta esan zion atsedean zezala Bihotz onetan, bizi zen artean ta eriotzeko orduan. Orditik artu zuela, dio Santak, ziñezko debozioa Jesusen Bihotzarekin: ta ez dela, geroz artu zituen Zeruko ondasun ta faboreak ar litzakean liburirik. Orrenbat ezpada ere, aski dira debozio hau artu dutenak artzen dituzten Zeruko fabore ta ondasunak.

8. Santuak diotenaren berririk ezpagenu ere, aski lizake, zenbat ondasun dakarren, ta bizitza on baterako, zenbat Jesusen Bihotzaren debozioak balio duen jakiteko, zer den debozio hau ikastea. Debozio hau, len esan degun bezala, Jesus, Aldarean erakusten digun amorea gatik, ziñez maitatzea da: ta han daramatzien, ikusten dituen edo egiten zaizkan bidegabe ta txarkerien damuz beterik bizitzea. Eta nola ukatuko die, one-lako damu ta amorez beterik bizi diranei, eskatzen zaiona emateko dagoen Jesusek, onak izateko behar duten gauzarik? Uzten die gaixtoai Elizan sartzen; sartzen da bera komulgatzera doazenen barren zikiñean: baita ezin bestez baizik Elizara ez diranen etxe ta barrenean ere; ta ezta gogotik etorriko maite dutenen bihotzetara, bihotzak Zeruko ondasunez beterik uztera? Ezin siñistu diteke orrelakorik. Aitor bedi, bada, Jesusen Bihotzaren debozioa dela bizitza on batera daraman bide zuzen erraza.

## §. X.

### ANDIA DA, JESUSEN BIHOTZAREN DEBOZIOAK DAKARREN ATSEGIN TA KONTENTUA



1. Jainkoaren izenean egiten diran gauza on guziak dakarte beren atsegin ta kontentua: baña ez kontentu ta atsegin berdiña. Atsegin edo kontenturik andiena ekarri oi dutenak dira Jesusi Aldarean dagozkan lan, obra edo gauzak: ala aditzera ematen digute Santuen bizitza ta historiak: bada S. Franziskok, Loiolako San Ignaziok, Santa Theresa, S. Luis Gonzaga ta beste anitzek etzuten Jesusekin Elizan zeudenean adiña atsegin beren bihotzetan izan oi. Atsegin utsez bizia galdu beharrak zirala ziruditen Meza ematen edo enzuten zuten zenbait aldiz, edo komulgatzen ziranean. Onelako orduetan ta beste Elizan zeuden zenbaitetan bezain atsegin andizko suspiriorik ematen etzuten Santuen bihotzak; ez eta negar beroagorik ere orien begiak. Gañerako leku ta misterioetan artzen dira graziaren zenbait bokadu; baña Komunio Santuan artzen degu, graziarekin batean, graziaren Jaun ta Jabe Jesus guzia. Gañerako grazia arteak egun oroko barazkariak dira: barazkari andia edo atsegin ta kontentuz betea dagoen barazkaria komunioko barazkari ta grazia artea da. Aldarea da bere eskuz ondasunak emateko edo faboreak egiteko, Jesusek berezi ta artu duen lekua; ta orregatik atsegin ta gustoz beterik dagoen lekua.

2. Jesusen Bihotzaren debozioa da, eskutik artu ta bezala, Aldarera ta Aldareko atsegin ta gustoetara garamatzien debozioa. Aldarera garamatzi Bihotz onen debozioak: bada debozio onen egitekoa da Aldarean Jesusek ekusten dituen bide gabeko gauzen damuz gure bihotzak betetzea ta maite gaituen Jesusen amorez berotzea. Hau ezin dagike Elizara ezipagaramatzi edo Aldarerontz zuzenzen ezipagaitu. Ote garamatzi Aldareko atsegin ta gustoetara Jesusi diogun debozioak? Zori onekoak orien billa dabilzanak, billatzen badituzte behar bezala; bada ez diotza Jesusek ukatuko daramatzien txarkeri ta injurien damuz beterik eta haren amorez bihotza urtzen dadukala bere aldean maiz Elizan ekusten duenari.

3. Maiz Elizaratzen diranak onelako atsegin ta kontenturik gabe arkitzen badira, ez dute erakusten hari garanaren berririk, edo gogotik artu ez dute Jesusen Bihotzaren debozioa; bada gogotik artu balute, maiz edo askotan oroituko ziran Jesusen Bihotzak ekusi dituen estutasunez ta digun amore andiaz; ta amore ta estutasun oriez oroitu ezker, izain zuten beren bihotzetan atsegin ta gusto dakarten damu ta amorea. Egia da damu ta amore onek eskatzen dutela, gero adiraziko degun bezala, bihotz garbia: ta, lenik garbitzen ezten bihotzak ezta Jesusen Bihotzaren debozioak dakarren atsegin edo gustorik; ez eta Bihotz onen deboziorik ere. Baña debozio hau duenak izain ditu lenagoko Jesusen maitatzalleak artu zituzten bezalako atsegin ta gustoak.

4. «Ah! zein gauza ona den, zenbat atsegin ta kontentuz betea dagoen Jesusen Bihotzaren debozioa edo Bihotz onetan bizitzea!», erraten du debozio onen berria zuen S. Bernardok: *O quam bonum, quam iucundum habitare in corde hoc: exultabimus, & laetabimur in te memores cordis tui*. Eztut nik, dio, zure Bihotzaz oroitzea baizik bear, atsegin ta gustoz beterik gelditzeko. Debozio oni zor ziozkala, esan oi zuen Santa Klarak, Aldarean dagoen Jesusen begietaraten zenean, artzen zituen atsegin ta faboreak. Jesusen Bihotzaz oroi zediñeko, Senako Santa Katalinak Jesusen amorez urtzen zedukan bere Bihotza.

5. Nai badezu —esan zion bein Jesusek Santa Metilderi— barka ditzadan zure utsegiteak, artu zazu nere Bihotzaren debozioa. Bihotz onetatik ateratzen dira artzen dituzun graziak. Nere Bihotza da grazi ta atsegin guzien iturria: maite nautenai ematen dieztet arkitzen diran atsegin ta gustorik andienak.

6. Debozio hau artu zuen artean Aita Colombierek, birtute andizko gizona izanik ere, atsegin ta gusto guti izan oi zuen: baña besterik gertatu zitzaion, debozio hau artu zuenetik. «Ar ditzaket —dio— Jesus onaren eskutik, ematen dizkidan atsegin ta gustoak; baña ezin adirazi dezaket zein andiak diran gusto ta atsegin oiek. Ez arren Jesus; ez onenbat atsegin ta gusto niri eman: gorde zazkitzu nik baño obeki irabazi dituztenak zugana ditezen artean. Oituko naz bestela atsegin ta gustoetara; ta egin nitzake behar ez diran zenbait lan, izatea gatik onelakoren bat. Aginzen zaidana egin behar ezpanu, eztakit zer egiñen nukean atsegin edo gusto oietatik edozein irabaztea gatik. Baña nola irabazi zure atsegin ta gustoak? Eroak bezala hitz egin dut oraingo aldian. Barka zazu, Jesus, nere atrebienzia, zure fabore ta gustoak nastu didate burua; ta eztakit zer diodan. Nola irabazi nik zure atsegin ta faboreak? Ez, Jesus maitea, zuk zerorrek neke andi ta izerdiarekin irabaziak dira ni ganatzen diran fabore ta atsegin guziak. Esker milla guziak gatik, Jesus ona: ta betoz, egin nadin ni zure lagun, zenbait neke ta izerdi. Ongi ta luzaro nekatua nere burua ekusi artean, eztut maite nazula siñistuko».

7. Orra zenbat atsegin ta gusto dakartzien Jesusen Bihotzaren debozioak. Aldarean ekusten dituen txarkeriz neurritzen dituela dirudi damuz daudenai Jesusek ematen diezten atsegin ta gustoak. Nola nai, andienak dira Aldarean maite dutenai edo bere Bihotzaren debozioa artu dutenai Jesusek egiten diezten faboreak ta eman oi dituen atsegin ta gustoak.



## §. XI. ANDIA ZEN SANTUAK JESUSEN BIHOTZARI IZANDU ZIOTEN DEBOZIOA

1. Erakusle edo Maisurik onenak Santuak dira: bada, hitzez erakusten dutena erakusten dute eskuz, obraz ta lanez. Santuak, beste asko gauzaren artean, nola Jesusen Bihotza maitatu behar den, berak egin zutenarekin, erakutsi digute. Santa Klara batek etzuen arkitu, Jesusi zor zion amore andiari eranzuteko, beraren Bihotzaren debozioa bezain bide labur ta errazik. Sartzen zen egunean anitz aldiz edo maiz Elizan, Jesusen Bihotza Sakramentuan adoratu ta maitatzera; ta ateratzen zen Elizatik bere anima atsegin ta faborez betea zekarrela.

2. Azkeneko Libruaren Buruan arkituko den otoiz edo orazioak aditzera ematen du zein andia zen Santa Getrudesez Jesusen Bihotzari zion debozioa. Santa onen bizitza agertu edo eskribitu zuenak dio, iltzeko zegoenean, bidaldu zuela bere anima berak amorez idiki zion Jesusen Bihotz maitagarrira.

3. Etzuela, zirudien, Santa Metildek Jesusen Bihotzaren gañean hitz egiten etzuen egun ta orduan on edo ondasunik. Beti zuen zer kontatu Jesusen Bihotzaren deboziazko bidez artu zuen on edo fabore berriren bat. Izan zezan, bizi zen artean, non atsedean, ta, etsaien eskuetatik iges egiten zuenean non gorde, eman zion bein Jesus onak bere Bihotza.

4. Senako Santa Katalinak ere, zeren Jesusen Bihotza gogotik maitatzen zuen, ta Bihotz oni zor zionaren alde, bere bihotza eman zion, izandu zuen beretzat Jesusen Bihotza. Geroztik ez bizi nai zuela zion, ta ez egin gauzarik, ezpazen Bihotz onek nai zuen bezala.

5. San Eleazarok gaztigatu zion bein Santa Delfina bere emazteari: «Nai badituzu jakin nere gauzen ta osasunaren berriak, zoaz maiz Jesus maitea, Aldareko Sakramentuan, ekustera: sar zaitetz haren Bihotz ederrean, ta an izain dituzu nai dituzun berriak; an arkituko nazu egun guzietan, ta egunaren ordurik geienetan».

6. «Ai nere Jesus —esaten du San Bernardok—, eta zein aberats dagoen zure Bihotza! Ah! zenbat galtzen duten zure Bihotzeko amoreaz azturik bizi diranak! Nik beintzat nai dut egin egin-ala zure Bihotza ta ondasunak irabaztea gatik. Zureak izain dira gaurgero nere asmo, lan ta gogo guziak; eta guziak izain dira gauza guti orrenbat balio duen Bihotza



erosi ta nere egiteko. Baña zer? nerea Jesusen Bihotza? Bai: bada nere buruarena da, ta buruarena den gauza gorputzaren gauza da».

7. «Gaur gero Bihotz hau izain da nere Eliza; Eliza onetan egoin naz nere Jauna maitatzen. Bihotz onetan, Aldare batean bezala, utziko dut nere bihotza, bertako suarekin errea ta auts egiña geldi dedin Aitaren begietan ta izenean. Bihotz onetan ikasiko dut nola bizi; arkituko dut zerekin nere zorrak atera; ta arkituko dut munduko itsasoaren aserre ta itotzeetatik nora iges egin. Emen nagoenean esain dut, Dabidek bezala, idiro dut nere Jaunari otoitz edo orazio egiteko nere Bihotza; bada Aldarean dadukat nere Jaun, nere Adiskide ta nere Anai Jesus onaren Bihotza; eta, eztut uste Bihotz onekin eskatzen diodan gauzarik ukatuko didala nere Jaun andi Jesus beraren Aitak. Ekus dezagun bada, ta sar gaitezen, beñere andik ez ateratzeko, Bihotz onetan. Bihotz onez oroitze utsak atsegin ta gustoz urturik bezala uzten du bihotza: nola utziko du hura maitatzeak? Nola an sartu, ta atera gabe bizitzeak? Ar nazazu Jesus, ar nazazu, nazan guzia zere Bihotz maitagarrian. Edo uztazu, nerau sartuko naz bereala; bada idiki ta zabaldua dagoen Bihotzak berak sar nadi-lla bertarik erraten didala deritzat».

8. Lanspergio deritzan Gizon jakinsu ta birtutezko batek dakar, nai duena, Jaunaren amorez betea laster gelditzeko, labur ta erraza dela dion bide edo modu hau. «*Begira* —dio—; zoaz maiz gure amorez ta guri ongi egin naiez urtzen dagoen Jesusen Bihotzari, bai dakizula zenbat zor diozun ta maite dezula adiraztera. Bihotz onegatik eska zagozu Aita Zerukoari eskatu nai diozuna; ta biotz onen izenean edo onekin batean eramain diozu eman uste diozuna. Bihotz onetan daude grazia ta Zeruko ondasunak. Bihotz hau da Jaunarekin bat egiten gaituen ta Jaunaren ondasunak dakarzkigun bide zuzena. Ibilli oi zaran bazterretan paratu behar dezu Bihotz onen estampa, imajen edo pinturaren bat, hau ekusten dezunean oroi zaitezen, maitatu behar dezun Jesusen Bihotzaz. Maitatze onetara zere burua aisago eramateko, ezpañez ukizazu zenbait aldiz edo muñ egiozu, muñ egiten bazenio bezala Jesusen Bihotzari. Egizu al egiña Bihotz onekin bat zerea egitea gatik. Ez dezazula nai izan, ez ta billatu ere, Bihotz onek nai duena besterik; eta egizu kontu zerea kendu ta utzi zaitzula Jesusen Bihotza zere barrenean».

9. «Ustuko delako beldurrik gabe, ar dezakezu nai adiña, ondasunez beterik dagoen Jesusen Bihotzetik. Utzi zaitzake mundu guziak, uste ez dezunean; baña, lenik uzten ezpadezu, etzaitu utziko beñ ere Jesus maitak. Askotan Gizonak barrenean berena gorde, ta besterik esain dizute; baña Jesus, Bihotzean duena baizik, ezin esan dezakeana da. Utzi behar

dituzu, egin alean, Lurreko guziak; Jesus onarekin hastiro egoteko. Eztezu Jesusen Bihotza baño atsedentoki oberik arkituko. Jesus da ziñezko Adiskidea; ta Adiskide nondik nai bera maite dutenak ateratzen dituen. Sar zaitetz bada Jesusen Bihotzean, ta, eskatzen badiozu, behar bezala, ez dizu ukatuko, emen ta sekulan, Jauna maitatzeko behar dezun gauzarik».

10. San Franziskoren, Santo Thomas, Santa Theresa, S. Buenabentura, San Ignazio, San Franzisko Xabier, San Phelipe Neri, S. Franzisko de Sales ta S. Luis Gonzagaren bizitza ta libruak ekusi edo irakurri dituztenak edo orien berria dutenak badakite zein andia zen Jesusen Bihotzarekin zuten debozioa. Gañerakoak utzirik, nai ditut agertu Santa otsarekin il den, Armilla Nikolasaren hitz batzuek. «Lurrekoen aldetik zerbait gerta zekidaneko, Jesus ona billatzen nuen: ar gana nendiñeko, banuen nere neke ta illuntasunak garaitzeko behar nuen atsegin guzia: eta iduritzen zitzaidan Jesus nai ez nukean lan edo nekeren bat gerta zekidan beldurrez zegoela. Ar ganatzen ninzan guzietan, an gorde nendin, agertzen zidan bere Bihotza; ta agertzen zidaneko, barrenean nengoen. An sartu ezker, etziran ezer infernuko al egiñak. Denbora luzean ez nekien non negoen, ezpanengoen Bihotz onetan; ta esan oi nien nere lagunai; billatzen banazue, Jesus maitearen Bihotzean arkituko nazue; ez gau eta ez egun Bihotz onetatik atera uste det: emen ez naz igesi nabillen etsaien beldur».



## BIGARREN BURUA

*Zer den Jesusen Bihotzaren debozioak gure aldetik eskatzen duena.*

### S. I. LENBIZIKO, JESUSEN BIHOTZAREN DEBOZIOAK ESKATZEN DUEN GAUZA: BIHOTZ GARBIA

1. Egur bustian eztu suak ezer egiten; sua artzeko, utzi behar du duen bustitasuna. Zenbait egunez urean egondu den egurra baño bustiagoa gelditu zen gure bihotza, zillegi etzitzaiola, Adanek artu zuen bokaduarekin; ta idorragoa gelditzen ez da, berak, bekatu egiten duenean, artzen duenarekin. Bustitasun hau kendu artean edo gelditu artean bihotza bekaturik gabe, ezin ardezake Jesusen Bihotzaren debozioaren surik. Debozio onek dakar Jesus gogotik maitatzea; ta maitatze onek nai ta ez eskatzen du bihotz bekatu gabea; bada urak eta suak baño elkar gaizkia- go artzen dute Jainkoaren amoreak eta bekatu larriak.

2. Jesusen Bihotza guztiz garbia da ta garbitasun guziaren iturria. Maitatzen duenak, atsegin osoa hari emateko, bekatu larriekin batean, txikiak ere utzi bear ditu: zeren atsegin oso onek eskatzen du amore andia; eta amore andiak behar du, larriak bezala, bekatu txikiak ere begitan artuak daduzkan bihotza. Guztiz Jesus maite dutenak Erregeren aldean dabilzanak bezala dira. Erregeren aldean ta begietan dabilzanak garbiak dabilza ta ongi apainduak; eta horrela ezpalebilza, naiko ez lituke Erregeek ikusi ere. Jesusen maitatzalleak, nai badute ar ditzan ongi arganatzan diranean, joan behar dute bihotz alik garbien ta birtutez apainduenarekin. Bekaturik txikiak begitan artuak daduzka Jesus onak. Larririk ez izana gatik onelakoak dituztenen amorea baño naiago du bat ere gabe maitatzen duenaren amorea.

3. Zer gatik uste dezu anbat nai ziola Jesusek San Juan Ebanjelistari? Zeren, Elizak dion bezala, seigarreneko bekatu loietik urruti zebillen, edo Zirilok dionaz, zeren bihotz agitz garbia zuen. Bihotz garbiko amorea da Jesusen Bihotz garbi garbiari ongien dagokiona, edo bihotz garbia due-

naren amorea da Jesus onak geien nai edo estimatzen duena; ta hau da amorea Jesusen Bihotzaren debozioa nai dutenak billatu behar dutena.

4. Bekatu txikietara ohartzen ez tiranak andietan erortzeko bidean daude; ta, erortzen ezpadira ere, galduko dute orrelakorik gabe Jesus maitatzen dutenak izan oi duten atsedete ta atsegin andia; bada hau, bihotzeko garbitasun ta oneste edo maitatze andia dutenai baizik ez die Jesusek ematen. Garbitasun ta maitatze andi hau nai dutenak ar bezate erakusten diegun Jesusen Bihotzaren debozioko bidea: bide onetan arkitzen dira orretarako behar diran gauzak.

### BIGARRENA. ZIÑEZKO SIÑESTE EDO SIÑISTE BIZIA

5. Siñestea da maitatzearen edo amorearen beroa bihotzean sartzen duen sua edo suari bidea erakusten dion argia. Su txikian ez da artzen berotze andirik edo su txiki ta erdi illak bero andirik ezin eman dezoke otzez dagoenari; ez eta fede edo siñeste erdi ill edo txikiak ere maitatze andirik maitatzearen berorik gabe arkitzen den bihotzari. Ezta guztiz maitagarria dela Jesus aitortzen ez tuenik; eta gutxi dira Jesus gogotik maitatzen dutenak. Zer gatik uste dezu? Zeren gu gatik egin dituen gauzak behar bezala siñisten ez ditugun.

6. Zerbait uste bazenu Errege gandik eta harekin sartze ta esku andia duen Gizon bat agertuko baliz zure etxean, zer ongi etorri, zer begiratze egiñen zenioke? Etxean dezuna guti iduriko litzakezu hari emateko; ta al egiña, zurekin dagoeno, egiña gatik, behar baño geiago egin dezula etzenuke usteko. Artzai baten soñeko txarrez jaunzia dagoen Errege baten begietan etzenituke goratuko begiak. Zer gatik orrela? Zeren dakizun zer den Errege bati zor zaiona, nola-nai iauntzia egona gatik; ta dakizun Bitarteko onarekin ongi egoteak anitz balio duela Errege gandik nai dezuna izateko.

7. Ez genuke guk Jesus maitearekin egiñen gutiago, sinisten bagenu ongi eta ezagutzen ba genu hura dela behar degun bere Aitarekin eskurik geiena edo guzia duena; hura dela, ogiaren soñekoekin Aldareko Sakramentuan egona gatik, gauza guzien Jabea ta lurreko guzien ta Zeruko Aingeruen Erregea. Hau, den bezala, gogoan sartua ba geneduka, ta siñesten ba genu, goazen baño geiagotan joain giñake soñeko txarrek dagoen gure Errege Elizan ekustera; joan aldietan, egoten garantetik beste gisaz egoin giñake haren begietan: ta maitatzen degun baño obeki ta gogotikago maitatuko genuke. Ez degu egiten zeren egia hau siñisten ezpaganu bezala siñisten dugun.



8. Santuen ezur txiki ta soñeko zati bat edo erlikia ekustea aski da, izutua bezala, hari begira gelditzeko zu; ta Santuak egin zituzten zenbait gauza andi aditzen dituzunean, berak ganako nai ta amore batekin arkitzen zera. Badakizu zer gatik? Zeren ekusten ta aditzen dituzun gauzak sinisten dituzun. Siñisten dezula diozu Jesus dela Aldareko Sakramentuan dagoena: ta ezpaliz baño kaso geiago ez dezu artaz egiten. Siñisten dituzun, galdetzen bazaitzu, Jesusek egin dituen gauza andiak, baietz eranzuten dezu; ta ezetz eranzuten bazenu baño geiago igitzen etzara, zor diozunaren eskerrak eman eta bera maitatza. Argi ta su gutiko siñistea da zure bihotza orren otz uzten duen siñistea.

9. Maite diranai laburrak iduritzen zaizte elkarrekin daramazten orduak. Maite bazenu, orobat gertatuko litzaieku, Jesusekin zaudenean. Orduan ordu erdi bat: luze iduritzen zaitzu? Gutti maite dezu Jesus. Zezenak ekusten ta beste jostatze edo dibersioetan bazaude, nai baño lasterrago doakizu denbora; ta luze zaitzu ordu erdi bateko Mezan Jesusekin egotea. Badakizu aurkeriak dirala Mezaren aldean zezen ta jostatze guziak; baño zure gogo gabeko Meza enzute ta gauza txarretako gogoz egoteak aditzera ematen du siñisten ez dezula Mezako gauzarik, eta zuretzat aurkeriak dirala gauzarik andienak.

10. Jesus gurekin, Nazareteko bere Aideen artean bezala, arkitzen da. Etzekiten Jesusen Aideak nor zen Jesus: ta ez dakigula guk ere nor den aditzera ematen du gure hartaz kasorik ez egiteak. Etzuen Jesusek beste bazter edo errietan egiten zituen gauza andi edo milagroetatik bat egin Aideen artean ta bere errian: ta ez du gure bihotzean egiten ongi bizi diran ta maite dutenen bihotzetan egiñ oi duen gauz andirik. Gure itsutasunak, gure siñiste laburrak edo ezaguera gabeak lotzen diozka ondasunez beterik gu gana luzatu nai litukeen bere bi besoak.

11. Aserretzen zara bere Jainkotzat ezagutu etzuten ta Jesusi bizia kendu zioten Judu gogorrekin oiek egin zutenaz oroitzen zaran guzietan. Eta ez dezu nai aserre ditezzen zurekin zuk Jesus berarekin egiten dezuna ekusten dutenak? Ezpaliz baño geiago ez dira geienak beñere oroitzen egun guzian guzien amorez Aldarera jaitirik dagoen gure Jesus onaz; ta, oroitu ta gatik, etzaizka agertzen, ezpada ezin bestez edo jaietan baizik; eta agertzen diranean ere, non sartzen diran ta norekin dauden begiratu gabe.

12. Zenbat zor diogun Jesus onari ezpadegu obeki ezagutzen, nekez izain gara Jesusen maitatzalleak, eta eztegu damu andirik artuko Aldarean Jesusek artzen dituen bidegabe ta txarkeriez. Bizitza zikiñaren keak kentzen dute edo estaltzen ezaguera: garbia nai duenak iduki, iduki bear du loirik edo bekatuak gabe bihotza. Nai duenak garbiro ezagutze ta siniste

andi batekin bero dakion, gogotik Jesus maitatzeko, bihotza, ar beza maiz gogoan Jesusi zor diona; askotan bijoa Elizan Jesus ekustera eta eska biezago azirazi dezala oraindik txiki arkitzen zaion bere siñistea.

## IRUGARRENA.

### JESUS MAITATU NAI ANDI BAT

13. Bihotz garbiarekin ta Zeruko gauzen ezaguera edo siñiste andi bat arturik arkitzen dena fite sartuko da Jesus maitatu nai onetan. Erakutsi den debozioa Jesus maiz ta gogotik maitatzea da. Bere maitatze hau eztaio Jesusek nori-nai ematen; baño ematen die maitatu nai andiarekin arkitzen diranei: hala dio berak, *Doatsuak* —esaten duenean— *edo zori onekoak gauza onen egarriarekin arkitzen diranak; bada aseak geldituko dira ta izain dute nai dutena.*

14. Jainkoa maitatu nai onek kentzen diozka bihotzari bekatuen urak utzi ziozkan ezatasunak. Ezatua gelditu den egurra, urik gabe egona gatik, ezatasunik ez duena bezain aisa ez da erre ta auts egiten. Bekaturik ekusi ez duen bihotza bekatuarekin egondu dena baño errazago berotzen ta erretzen da; arkitzen da alabaña bekatuaren kutsurik gabe. Kutsu onetatik garbitzeko, asko balio du eskatzen dugun Jesus maitatu naiak. Gogozko naiarekin arkitzen bagara Jesus maitatzeko, azkenean arkituko dugu Jesus maitatze hau: bada eztaio oraindik iñork aditu ukatu duela Jesusek eskatu zaion amore ta maitatzea.

15. Arkitzen ez da bat Jesus maitatu nai duela ez dionik. Guziak diote Jesus onetsi ta maitatzeko nai andi batekin arkitzen dirala. Nola bada onesten ta maitatzen duten baño geiagok eta obeki maitatzen ez dute Jesus? Nola beren maitatu nai guzia maitatu naiean gelditzen zaie geienai? Ori gertatzen da zeren geienak, Jesusi baño, naiago dieten beren buruari. Ez daude orretan; baño egon ditezke. Guziak ezagutzen dute maitagarria dela Jesus ta maitatu beharra: ezaguera onen ondotik etorzen zaie hura maitatu nai iduri bat; eta orrekin uste dute Jesus ziñez ta gogotik maitatu nai ez daudela: baño ez du balio duten hura maitatu nai iduriak.

16. Oietatik bat zaran ezagutzeko, begira zazu zenbat nekatu oi zeran Jesus maitatzea gatik eta zer nola zabilzan gogotik edo ziñez nai dituzun lurreko gauzen ondoan. Agitz nai dezun gauza eskura artean, zer neurriak artu oi dituzu? Zenbat bide, zenbat lagun edo arteko billatu oi dituzu? Gau ta egun dakarzu gogoan gogotik nai dezun gauza. Nai dezun gauza zeretzeko edo eskuratzeko behar dirala dakizun neke-izerdiak, oni ta nai etzenukean besteari hitz egiteak, eta bide luzeko ibillerak etzaituzte izutzen. Egunak, hasteak, illak eta urteak doazkitzu nondik haren jabetu-



ko zaran. Egiten dezu anbeste, ta laurdenik ere, Jesus maitatzea gatik? Askotan loa galdu dezu nola maitatuko dezun Jesus ikastea gatik? Zenbati galdetu diezu non arkitzen den Jesus maitatze hau? Zenbat baru atera dituzu? Zenbat gauza on egin dituzu maitatze onen alderako, edo dizun Jesusek bere maitatze hau? Bada zerbait onelako egiten ezpadezu, siñetsi zazu, zure Jesus maitatu naia, nai uts, alfer bat dela; ta ez, Jesusen Bihotzaren debozioak eskatzen duen ziñezko nai ta deseoa. Nai utsean gelditzen diran nai edo deseok iltzen dagoen argiaren garrak bezala dira. Gar oiek garrak dira; baña aizetan laster ta fite geldituko diran garrak. Garrak dira: baña den gauzarik txikiena ez erre ta ez berotuko duten garrak; eta garrak, il ta bereala keetan gelditu beharrak. Ah! noaski oraindañoko zure Jesus maitatu naiak nai edo deseok dira, bihotza epeldua gatik, berotzen ez dizutenak; eta iltzen diranean, bekatuen keez bete ta galdurik utziko zaituzten naiak.

17. Orren lan gogorrik etorri ez dakion zure bihotzari, begira zazu zer nola bizitu zaran; ta arkitzen badezu ez dezula Jesus behar bezala maitatu, ekus-zazu zer izandu den, Jesusen lekuan, zure gogo ta bihotzean egondu den gauza; ta ken zazu alik lasterrena; artu zazu gero ziñezko Jesus maitatu nai bat; ar dezazun nai orren ondotik datorren Jesus maitatze andi beroa.

### LAUGARRENA. BIHOTZ BILDUA

18. Ezta arkitzen Jesus soñu ta eskanbillen artean: *Non in commotione Dominus*. Eskanbillen artetik aldaratzen du Jesus maiteak bere hitza adirazo nai dionaren bihotza: *Ducam eam in solitudinem, & loquar ad cor ejus*. Belarri txikiak ditu bihotzak munduko ta Jainkoaren hitzak batetan aditzeko; itsi bear diezte munduko hitzei, nai baditu Jainkoarenak aditu. Munduko hitz eta jolasak Jesus maitatzea kentzen duten egitekoz beteak daude. Hau behar bezala egin nai duenak utzi behar ditu utzi ditzakeen munduko egitekoak.

19. Ura bezala banatzen den bihotzak ezin idukiko du Jainkoa gan edo haren baitan bere asmo ta gogo: ta gogo-asmoak Jainkoagan ez daduzkanak ezin ura ziñez maita dezake. Ziñez ta maiz Jesus maitatzea da Jesusen Bihotzaren debozioak erakusten duena. Orregatik, nai duenak debozio hau, bildu behar du, egin alean, bere bihotza. Debozioak bilzen duen bihotzari Jesusek ematen dio bera maitatzeko behar duen su ta garra.

20. «Jainkoak nai dionean —dio San Gregoriok— eman bati maitatze onetarako behar duen su ta grazia, lenik ematen dio lurreko egiteko ta lagunak utzi ta bakarrik berarekin egoteko gogo andi bat. Badaki alabaña bakartasuna billatzen ez duenari ematen diozkan ondasunak ondasun galduak izan oi dirala; bada ondarrean, arean edo urean egiten diran letrak bezain laster ondatzen dira. Jainkoak bihotzari ematen diozkan ondasunak berekin bat egitea gatik ematen diozka; ta ura bezala egitekoen artean banatzen den bihotza Jainkoaren igesi bezala dabillen bihotza da; ta norbaiten gandik igesi dabillena ezin bat harekin egin diteke».

21. Animako utsegite ta kalte guziak etorri oi dira ura bezala gure bihotza banatze onetatik. Bihotza bilzera egiten ez tuenak ezta Zeruko bidean ibilze luzerik egiñen; ta dabillenean ere, ibilliko da nekez beterik edo atsegin ta gusto gutirekin. «Zer gatik uste dezu —galdetzen zuen onen berria zuen batek—, Relijioetan bizi diran guzietatik ain guti Santu egiten dirala? badute orazioa, ematen dute Meza, edo maiz ta sarri komulgatzen dira, irakurtzen dituzte Santuen bizitza ta liburu onak, eta gauza onetan daramate urte ta bizi guzia; nola bada, orrenbat gauz on egiten dituztenak ez dira guziak Santuak?».

22. Nik errain dizut: ez dute zaitzen beren bihotza edo uzten diote bihotzari dabillega gogoak ematen dion bazterretan: badakarte eskura gorputza; gorputzari eragiten diote Santuak eragin oi zien geiena: baña ez dute barrenaz Santuak zuten begiratze ta kontua: egiten dituzte Santuak egiten zituzten gauzak; baña ez Santuak bezala; ta orregatik ez Santu dira eta ez Relijioso behar bezalakoak.

23. Orobat gertatzen zaie munduan Santuen bizia dakartela dirudien askori. Gauz on añitz egiten dituzte munduko askok urtearen buruan, illean, hastean; baita egunoro ere; ta eztira orregatik atzo baño gaur obeak, joan den urtean bezain asi berriak dira aurten birtutearen bidean: igazko uts-egiteak dituzte aurten ere, igaz bezain aisa aserretzen dira, nai ez duten zerbait ekusten edo aditzen dutenean; gaizki andirik ez egiña gatik, nai ez lukeena egiten dienai ez die barkatzen; hitzez, lanez edo nola ere bait aditzera ematen die, egin diotenai, egin zaielako damu ta atseka-bearekin arkitzen dirala. Onelako ta beste utsegite zenbait gabe arkituko lirake, bihotzari ohartzan balitzaizka, ta behar ez diran ibillerak utzirazi edo kendu ta barrenean loturik idukitzen balute.

24. Alferrik ibilliko gara; Zeruko bidean aisa ta arin ibilli nai duenak, edo nai duenak Jesus gogotik maitatu, bildu beharko ditu, egin alean, bihotzaren begiak, eta bizi beharko du bere barrenean gordea bezala. Eztuten hau beste biderik arkitu, beren birtuterako, S. Ignaziok, S.





Franzisko de Sales, S. Xabier, Santa Theresa, eta gañerako Santuak. Hura bera artu beharko degu, birtutearen mendira igoko bagara. Al dugunean, utzi ditzagun lurreko egitekoak, eta goazen Jainkoak zer bihotzera esaten digun aditzera: hitz egite onek berotuko digu bera maitatzeko behar den suarekin bihotza.

25. Gure kaltearen bila dabillen etsaiak, nondik kaltea etor dakikegun dakienak bezala, egiten du al egiña Jainkoarekiko hitz egite ta bakar-tasuna guri kenzea gatik. Lan eta egiteko gaixtoetara ezin eraman gaitue-nean, billatzen ditu zenbait egiteko, onak izanik ere, beharren den bakar-tasuna kentzen digutenak; eta orien artean banatuak bezala ekusten gaituenean, egin oi du bereetatik bat, edo dezakean guzia, gu galduak uztea gatik. Bakartasun on hau galdurik dabilleni gertatzen zaio, Artzaia utzi ta sasian dabillen ardiari gertatzen zaiona. Artzaiarekin dagoenean ez da seiatzen otsoa ezer hari egitera; baña Artzairik gabe ta sasian arkitzen duenean, itsasten zaio bereala; larrutu ta urratzen du ortzekin ta iristen du laster ta fite. Anima bere Artzai on Jesus maitearekin dabillenean, ez dio gaitz andirik egiñen Infernuko otsotzarrak; baña onen ortzetan gelditze-ko bidean dabill, baldin, bere barrenaz kontu andirik ez dadukala, lurreko egitekoen sasi ta arantza artean badabill.

26. Sasi onetan ibillia gatik, etsaiaren ortzetara gabe; edo egiña gatik batek, bekatu larririk egin gabe, eskuetan dakartzien egitekoak, kalterik askirekin geldi diteke, ezpadabill ongi ohartua. Lurreko egitekoak aisa banatzen dute bihotza; ta bihotz, bein banatua, nekez oitzen da bakarta-sunera, edo Jainkoarekin hizketa luzeak izatera. Onetara ez oitu naiez gal-tzen ditu Jainkoak egin nai ziozkan ondasunak, eta ez dator beñere gogo-tik edo ziñez hura maitatzera; edo ez dator, banatu ezpaliz, egiñen zue-naren laurdenik egitera.

27. Badira batek ezin utzi ditzakeen egiteko ta lanak. Onelako lan edo egitekoetan badagoke barren bilduarekin edo bihotza banatu gabe. Orretarako, lana asitzean, eskatu behar diozu Jainkoari, hura egin artean, bera gogotik ez galtzeko grazia. Ansia ta estutasunik gabe ari behar dezu zere egitekoan: goratu behar dezu noizean bein Jainkoa gana zere biho-tza. Esain diozu orduan Jainkoari nai dezuna, ta eskatuko diozu lagun dakizula bera maitatzen, ta dizula onelako edo alako behar zenukean gauza. Lurreko asmo txarren bat ekartzen badizu etsaiak gogora, galera-ztea gatik eskuetan darabilzuna, ez dezula lan hura asi, esan behar dezu, ez eta egin edo bukatu nai ere, ongi esan dezaten ekusten zaituztenak. Asi nuen, esain dezu, lan hau, Jaunari atsegin egitea gatik, eta zeren egitera behartua nengoen; ta ez dut beste gatik bukatu nai. Alferrik ibilliko da lan

onen ondoan nere etsaia: ez du berdin den zatirik txikiena zer itxedan: emana dago, ta berriz, ta berriz ere ematen diot den guzia nere Jainko maiteari. Bukatzen edo akabatzen denean, eskerrak eman behar diozka-tzu lagundu dizun Jainkoari.

28. Eskuetan dakartzun lana erdi egiña dagoenean, kentzen badizue, edo haren lekuan ematen badizue berriren bat, etzaitzela asaldatu; ekar-tzu gogora ala nai duela ongi nai dizun zere Jainkoak, eta egin zaitzuna eragiten duela, nor zaran zu ezagutzea gatik, edo, zein maite dezun jakin naiez bezala. Ez dezazula begiratu zere gogarakoa den edo ez egin behar dezun lan edo egiteko: begira zazu nola egiñen dezun, egiten dezun lanean. Jainkoaren gogo: gogo hau egitean dago zure on ta ditxa guzia.

29. Lan edo egitekoen batean ari zaranean, oroi zaitz Jesus onak egin zuen lanen batez. Begira zazu ta ikusi nola Jesusek eta zein Bihotz garbiarekin egiten zituen bere egiteko ta lanak; nola zegoen bein ere bere Aita gogotik utzi gabe, ta egiteko artan ezpazegoen bezain gogotik maitatzen zuela. Etzion bere egitekoaz zutaz ta zuk egin behar zenuen lan orrez oroitzea kendu. Egiteko hartan zegoen ta zuri begira; egiten zuena-ekin erakusten zizun nola egin behar zenituen guziak. Egizkitzu bada, alik ongiena, Jesusi begira zaudela edo ura gogotik galdu gabe. Orrela egi-ten zituzten Apostoluak, orrela Santuak beren egiteko andi ta txikiak: zuk ere orrela egitearekin, galdu lekuan, irabaziko dezu, ta anitz al ere, zere lurreko lan ta egitekoetan.

30. «Bihotza biltzen ezteua —esaten du Jesusen maitatzalle batek—, galdua ibilliko da ezertako ez diran anitz gauzen artean, ta ezte ezagutuko ere, Jainkoak beraz egin gogo duena. Bildu balu, adiraziko zion egin behar zuena, ta ura egiteko behar zituen indarrak emain ziozkan; eta emain ziozkan bere Adiskide andiai eman oi diezten atsegin ta gusto gar-bietatik ere. Gusto ta atsegin oiek gatik aisa utzi ditezke lurreko aurkeriak —aurkeriak dira lurreko gauzarik andienak, Jainkoaren gauzen aldean—. Zeruko gauzen ta atsegin andien berririk ez dutenak bizitza nekezkoa daramatela uste dute munduaren igesi bezala dabilzanak; eta illuntasunez ta melankoliz beteak dirala Jainkoarekin diardutenak edo birtutearen bidean dabilzanak. Balekie zer den Jainkoa ta nolakoak diran Jainkoak, ziñez maitatzen dutenei, eman oi diezten atsegin ta kontentuek, bertzerik errain lukee: ez da alabaña lurrean, Zerukoen berria duenari, atsegin edo kontentu eman dezokean gauzarik.

31. Bakartasuna billatzen dutenak eta Jainkoaren gauzetan sartuak dabilzanak dira aisena bizi diranak. Jainkoaren gauzak gogotik siñesten dituztenak eskuan balute bezain ongi uste dute Jauna gandik behar duten



guzia; ta Jainkoa da gauza guziak baño geiago nai dutena, edo guzien gañean maite dutena. Deusen beldurrik ez dute. Duten Jainkoak, bera lenik uzten ez dutela, ez ditu utziko; ta hura dutela, badute behar duten guzia. Luzaro eguzkiari begira egondu diranak, begira dezatela nora nai, eguzkiari begira daudela uste dute. Jainkoarekin hitz egiten oituak daudenak ekusten, irakurtzen edo aditzen dituzten gauza guzietan arkitzen dute Jainkoa ganako bidea edo gauza; ta bazter guzietan Jainkoari begira daudela dirudi.

32. Jainkoarekin bizi denak Jainkoa gatik egiten ditu gauza guziak; egiten dituen gauzetan ez dio bere gogoari atsegin egiten; Jainkoari atsegin egitea da haren lan ta nai guzia. Baña munduko egitekoetan sarturik bizi diranak beren burua billatu oi dute geienean, egiten dituzten gauzetan; bada nai dute iduri onekoak atera ditezten guziak; eta ez die atseka-berik egiten aditzeak ongi lausengatzen dituztela orien berria dutenak. Onelako laudario ta lausengak ez dituzte berotzen Jainkoa beren gauzetan billatzen dutenak. Jainkoari atsegin egin ezker, etzaie ezer gizonen erranak gatik. Erran dezatela nai dutena Gizonak, ez illuntzen zaie ta ez arintzen arpegia. Atzo ziranak dira gaur. Beti dira hitz-egite, ibillera ta gauza guzietan berdiñak edo gisa batekoak; ta berdintasun onetan aditzera ematen dute ta erakusten barrenean duten birtute andia eta gogotik maitatzen dutela Jesus. Onelakoen esanak Zeruko esantzat bezala artu oi dira; ta guziak nai dute onelakoekin ezaguera ta tratua. Orregatik, Jesus maite duena maite du Jesusek berak; baita mundu guziak ere, edo beintzat ezagutzen dutenen zatirik andienak.

33. Beren barrenean sarturik edo bihotza bilzen dutela bizi diranak bereala datoz Zeruko maitatze andi onetara. Bihotza bilze hau arkitu edo gorde nai badezu, egin bear dituzu errain zaizkitzun zenbait gauza. Lenbizikoa, ez artu bihotzaren Jabetasuna kenduko dizun gauza edo egitekori; eta egiten dituzun gauzak egin behar dituzu lasterka edo ansiarik gabe. Bigarrena, utzi ditezkeen gauzetan ez dezazula oñik sartu edo bihotza banatu. Hirugarrena, edozein gauza egiten ari zaranean, idukazu bihotza noiz-nai Jainkoari hitz egin dezokean bezala. Laugarrena, besteren onerako edo zeretzat egiten dituzun gauzetan egon behar dezu olioan bezala. Etxearen kontua, humeak azitzea, bear dena billatzea, onekin ta gañerakoekin jardukitzea, ta beste guziak, egitekoak dira, zure bihotzak, olioak ura bezala, azpian iduki behar dituenak: orrela badaduzkatzu, noiz-nai ega diteke ta goratu, Jainkoaren billa, zure bihotza.

34. Bostgarrena, billa zazu bakartasuna; hizketa luzeak ez ditzazula artu: anitz diardenak nekez izain du bihotz bildua. Seigarrena, ez deza-

zula bekatuaren pitsik ere bihotzean iduki; iduki zazu barren garbia: autsen bat edo edozein uts-egite txiki ekusi dezazuneko, zoaz damuaren edo konfesioaren iturrira, ta garbi zazu bihotza. Dohatsuak edo zori onekoak, dio Jesus gureak, bihotz garbia dutenak: oriek dira Jainkoa ekusi behar dutenak, edo, Jainkoa gogoan dutela, biziko diranak. Zazpigarrena, gora zazu Jainkoa gana bihotza, ordua aditzean, gelan sartzean, etxetik irtetean edo ateratzean, lana asitzean, hura bukatzean, adiskidea datorki-zunean, norekin nai hitz egitean, edozein batzean edo ekustean, gauza eskuetan artzean, ta beste orrelako zenbait aldiz. Zorzigarrena, alik maizena, ekarzu gogora nola egiñen lukean Jesus maiteak, egin behar balu, zu egiten ari zaran lan ori; ta egizu al egiña ala egitea gatik. Bederatzigarrena, ohar zaitez non-nai ta edozein gauza egiten zaudenean, begira dagokizula guzia ekusten duen Jainkoa; ohar zaitez zere bihotzean, zere esku ta muñetan, ta bazter guzietan dadukazula Jainkoa; aditzen dagoela zer esaten dezun, ta etzaiola gordetzen gogoan dadukazun gauzarik ere, den txikiena izana gatik. Esaiozu siñisten dezula hau guzia, beste, Eliza Santuak erakutsi dituen, gauzekin batean. Eska zagozu bera gogotik maitatzeko, bihotza banatu gabe ta bakartasun on batean bizitzeko behar dezun grazia. Amargarrena, artu-izkitzu Bitartekotzat onetarako, bakartasun ta bihotzaren bilduera andiagoa izandu zutenak: Jesusen Ama, onen Esposo San Joseph, ta guraso San Joakin ta Santa Ana; baita San Juan Baptista ere, ta, nai dituzun guzien artean, Jesusen Konpañiako S. Luis Gonzaga.

## §. II.

### JESUSEN BIHOTZAREN DEBOZIOAK DAKAZKIEN ONDASUNAK GALERAZTEN DITUZTEN ZENBAIT GAUZA

1. Ongi bizi diranen artean bakan arkituko dira Jesusen Bihotzaren debozioa ona dela ta gustoz ta ondasunez bete dagoela ukatuko dutenak. Baña ez dira atsegin ta gustoz beteak biziko debozio onetan sartzen diran guziak, gusto ta atsegin hau izana gatik, debozio artzen dutenai, ta ziñez maitatzen dutenai, Jesusek eman oi dien ondasuna. Zer gatik ori gertatzen den, erakustera noa.

2. Anitzek diote, ta aspaldian, aitu dirala Santuak izan oi zituzten atsegin ta Zeruko gustoak. Enzuten dituzten Mezetan, beren konfesio ta komunioetan, ta gañerako gauza onetan idortasuna ta nekea besterik ez



dutela diote, ta orazioko suan sartua gatik, sartu ziranean bezain otzak edo otzagoak andik ateratzen dirala. Ez dakitela, diote, zertan dagoen ori, baña bai ez dagoela *birtutea* gusto ta atsegin orietan; edo ona izan ditekela nor-nai, bere bizian ez ekusia gatik orrelako atsegin ta gustoaren arpegia.

3. Hau ezin uka ditekian egia da; baña orobat da egia beldur izan gaitzekela kentzen diezkgula Jainkoak bere gusto ta atsegiñak, gure alferkeria ta nagitasuna gatik, edo zeren ez gabilzan ibilli gindezkean bezain bizi Zeruko bidean. Egungo Zerurako bidea Santuak izandu zuten bide bera da. Santu guziak diote bide hau atsegin ta gustoz bete arkitu zutela: ta bide onetako lan ta nekeak berak munduko gauzarik onenak baño ezti ta gusto geiagokoak dirala. Etzekitela, diote, bide onetan zebilzanak zer zen atsekabea, zer damua, zer bihotzaren illuntasuna, edo zer nekea. Nekerik andiengan, diote, eztiz beterikako eztarria baño atsegin ta gusto geiagorekin arkitzen zutela beren bihotza. Jauna galzea beste nekerik ez dela diote azkenean, Zeruko bidean gogotik dabillendako.

4. Onela hitz egiten dute, ez zenbaitek, baizik Santu guziak, eta, Jainkoari bere bizitz onarekin atsegin egitea gatik zuzen ibilli diranak. Etzaitzu noski gogorako itsutuak bizitu dirala Santu ta on guziak. Bada aitortu beharko dezu ez datorrela Jainkoaren aldetik Santuen bidea daramatela dirudien geienak Santu ta ongi bizitu ziranak izan oi zituzten atsegin ta gustorik gabe arkitzea.

5. Ez; ez dator Jainkoaren aldetik Zeruko atsegin ta Santuak izan oi zituzten gustorik gabe gu arkitzea. Gutu dira Santuak bezain ziñez ta gogotik Jesus maitatzen dutenak: guti dira, Santuak bezala, egiazko birtutearekin arkitzen diranak. Egungo egunean arkitzen dira Santuak ibilli oi ziran bezala dabilzanak; eta arkitzen dira Santuen atsegin ta gustoz beteak. Ekusi nai badezu zerk eragozten digun Zeruko atsegin ta gustoaren ondasanak artzea, begiratu behar diezu Zeruko bidean arkitzen diran arri gaixtoai. Atoz ezperen; nik erakutsiko derezkitzut.

6. Lau dira bide onetan arkitzen diran ta behar bezala ibilzea kentzen duten arri edo gauzak. Lenbizikoa, alferkeria ta nekerako nagitasuna. Bigarrena, geren buruari geiegi naia edo geren buruak geiegi maitatzea. Hirugarrena, bihotzaren arrotasuna edo antustea. Laugarrena, geren barrena ezi gabe idukitzea edo barrena pasioz beterik edo oraindik garaitu ez ditugun pasio zenbaitekin arkitzea. Lau gauza oiek dira beaz-topa Zeruko bidean eragiten diguten arriak. Guziak kentzeko, ekusi behar ditugu banaka.

## LENBIZIKO, JESUSEN BIHOTZAREN DEBOZIOKO ONDASUNAK GALERAZTEN DITUEN GAUZA: ALFERKERIA EDO NAGITASUNA

7. Jesusen Bihotzaren debozioko ondasanak nai dituenak ziñez maitatu behar du Jesus. Ez dute orrelako ziñez maitatzerik Alfer-nagiak. Orregatik bada nagitasuna edo alferkeria da debozio onek dakartzien ondasanak galerazten dituzten gauzetatik bat. Zeruko bidean nagí dabilenak ez du sekulan, Jesus ziñez ta benaz maitatzeko behar den adiña, bere bihotza berotuko: Nagiak dituen gauzak erraiak nasten dituen ur epela bezala dira. Naiago nuke, erraten dio Jainkoak Zeruko gauzetan nagí denari; naiago nuke otza baziña edo beroa; baña zeren zaran epel ta nagia, ezin iduki zaitut bihotzean, ta trukatu behar zaitut edo bota nere gandik. Erran nai du orren nagí Zeruko bidean zu ekusi baño, naiago nuke arkitzen bazindut edo bekatuan illa edo graziaz bete, ta, ziñez maitatzen nazula, pausu luzeak ematen dituzula. Pausu luzeekin bazenbiltza, ta gogotik maitatzen ninduzula, lagunduko nikezu zere bidean, ta arinduko nituke nere atsegin ta gustoekin bideko zure nekeak; eta, ni gatik egiten zenuena ekusirik, maitatuko zinduzket, hume ona bezala.

8. Arkitzen bazindut illa edo bekatuaren loo gaixtoan sartua, ots egiñen nuen zure bihotzaren atean, egiñen nituen zure belarrian desengañoen oi ta txistuak; eta, hau aski ezipazen zu esnatzeko edo iratzartzeko, eragiñen nituen zure ondoan misioaren baten soñu guziak: zabalduko zenituen noizbait begiak; ezagutuko zenuen ni ninzala zure, ardi galduaren, billa nenbillen Artzai ona; ta, ekusirik, ibilli ziñan bezala, galdurik ibilzeak dakartzien kalteak, jaikiko ziñan zeunden lekutik edo bekatutik, eta nion trukatu edo gelditu gabe, etorriko ziñan nerekin ta sartuko ziñan Zeruan.

9. Baña ez ill ta ez bizi bezala arkitzen zara; ez otz eta ez bero zaude; ta zure epeltasunak nasten derozkit errai guziak eta Bihotza. Berotuko zeralako ustea edo esperanza galdu zait kasi. Erdi loo zaude; ta zere nagitasunak ez dizu esnatzera uzten. Igitzen bazera noizbait zauden tokitik, laster nekatzen zara, edo, nekatzen baziña bezala, gelditzen zara, ta ez dezu nai Zeruko bidean ibilli. Bekatuaren loan sarturik zeudenak esnatu edo iratzarri dituzten Zeruko txistu, oi, ots-egite, deitze ta soñuak aditu dituzu; baña esnatzera egin, ta lentsu bezala gelditu zera. Ezin zaduzkaket geiago: bota behar zaitut nere gandik: *Utinam frigidus esses, aut calidus: sed quia tepidus es, & nec frigidus, nec calidus, incipiam te evomere ex ore meo* (Apoc. cap. 3. vers. 15.16). Orra zertara dakarren bat bere Zerurako nagitasun ta



alferkeriak. Alferkeri onetan bizi diranak ez dute siñistu nai alferrak dirala; gogotik dabilzala, uste dute, Zeruko bidean; edo uste dute ez dela zer biziroago ibilli. Badakizu zer gatik? Zeren oben edo kulpa larririk ez izana gatik, garaitzen edo eskura ekartzen ez dituzten pasio gaixtoak. Orrelako pasioen kez betea dadukate burua; ta arkitzen dira egiten dituzten uts-egiteak ezagutzeko behar lukeen Zeruko graziaren argi asko gabe; ta gelditzen dira erdi itsutuak edo illunbean daudenen gisa. Badute oraindik zer-bait argi; baña ez die, ez nekatzea gatik, agertzen diezten egiai begiratu nai. Agertzen die lagunarekin ez ongi etortzea, gatza bezain hitz gaziak esatea, besteak baño burua gorago ekarri naia, ta beste gauza anitz, larriak ez diranean ere, kulpa larrien bide zuzenak dirala; baña ez ekusi egiten dute; ta, len bezala dabilza.

10. Ez dakiola Jainkoari nai zu orretaratzea, edo etzaitzala Jainko onak toki illun orretan sartzen utzi. Zere alferkeri edo nagitasuna gatik orretaratzen bazera, uts-egite txikiak edo larriak ez diran bekatuetatik zenbaitetara ohartuko ere etzara; ta, ezagutzen dituzunak, larriak ez diralako aitzakian, ez dituzu kenduko. Konfesatuko zara; zere Jauna artuko dezu; ez dituzu utziko zere debozio ta iduri oneko gauzak: baña egiten badituzu, egiñen dituzu zer egiten dezun ezpazenek bezala, ta gogoan lurreko gauzetan banaturik darabilzula. Nagi zabilza ta epel Zeruko bidean, ta ongi begiak idiki gabe, non arkitzen zaran ekusteko.

11. Idikitzen bazenitu begiak, ekusiko zenuke geiena egiña dadukazula, ta, ezerez bat ez egitea gatik, galtzen dezula Jainkoaren izatea, galtzen dituzula Jaunaren eskutik emen izain zenitukeen atsegin ta kontentutak, eta galtzen dezula azkenean, azken orduan asaldatuko etzinduen eriotz on bat. Orren merke erosten diran ondasun andiak ez dira galzeakoak. Autsi zenituen bekatuaren kate lodiak, eta nasten zara eulien sarean. Asi ziñan ezker atsegin Jesusi egiten, zer gatik ez diozu egiten osoa? Errege batekin etziñake Jaunarekin bezain labur ibilliko. Etzenioke edozein adiskideri ukatuko Jesusi ematen ez diozun atsegin edo gustoa. Aztu bide zaitzu Jesus dela zure Errege ta adiskide: ez bide dago zure gogoan zenbat zor diozun Errege andi ta Adiskide maite oni. Ez bide dakizu, ukatzen badizu azken grazia, etzaitzula betiko damu, negar ta nekea besterik gelditzen. Zenbat arkitzen dira zu bezain ongi asi ta nekatu ziranak; eta orregatik sekulako galduak? Etzoazen oriei lagun egitera beren suzko nekean, utzatzu noizbait oriek galdu zituen alferkeria; ta zoaz, uts-egite larriak bezala, besteak kenduaz.

12. Ez da eskatzen zaitzuna uste dezun bezain gauza gaitza: egin dute orrenbeste zuk bezain uste guti ta zuk baño osasun laburragoa zuten

anitzek. Gazteak, zarrak, diranak dagikee zuri eskatzen zaitzuna; ta eskatzen zaitzu zere onerako. Zenbat aldiz esaten dezu maite dezula zere burua edo anima: oni ematea gatik sekulako atsegin ta Zerua ez dela egiñen etzenukean gauzarik. Izutzen zaituela, diozu, betiko suan erre beharrak; ikara uzten zaituela etsaien artean arki zindezkela lurpeko leze arrigarrian oroitzeak. Bada orrenbat ezaguera, beldur ta ikararekin arkitzen bazera, nola ikara, beldur ta ezaguera orrek eskatzen duena ez dezu egiten? Orrek eskatzen duena da: lenena, oben larri ta kulpa andiak uztea; ta gero, berriz, oriek ekartzeko biderik etsaiari ez ematea. Orretarako etsaiak artzen dituen bideak dira zuk ezertan ez daduzkatzun uts-egite txiki edo kulpa benialak.

13. Txikitat daduzkatzun zere uts-egiteak eskutik eramain zaituzte larrienetara, zere alferkeri-nagitasuna utzirik, uzten ezpedituzi alde-bat. Ez dizut nik esaten; Espiritu Santuak dio aditzen dezuna: *qui spernit modica, paulatim decidet*. Badakizu nora daraman gero edozein oben edo kulpa larrik. Atera bazenitu zenbait aldiz oraingo kontuak, etziñan orain arkituko arkitzen zaran bezain nagí. Nagitasun ori uzteko, aterazkitzu berriz ta berriz ere kontu oriek: eta ez dakizula ispillura begiratzen duenari gertatzen zaiona gerta. Onek, begiak ispillutik kendu orduko, ez daki, dio Apostol Santiagok, nolakoa den ekusi duen bere arpegia. Atera dituzun kontuak utzi orduko, gelditzen bazara zere nagitasunaren berririk gabe, nagí geldituko zara, ta sekulako zere burua galtzeko bidean.

14. Edozein gauza ikasten igaro bazenitu Jauna maitatzea ikasten egin dituzun urteak, eta urteen buruan arkitzen baziña gauza hartan maitatze onetan bezain berri, lotsaz ta alkez arpegia galduko zenuke; ekusiko zenuke alabaña, lenbiziko illean zenekien baño geiago ez dakizula anitz urteren buruan. Lotsa ta alke andiangoarekin utzi etzaitzan egunen batean Jesus ziñez maitatzen ikasi-gabeak, utzazu noiz bait nagitasuna; garbi zazu zere mastia axeri txarretatik edo zere bihotza oben txiki, kulpa ta utsegi-teetatik; ta egiozu Jesusi maitatze onaren, ta birtuteen matsezko present on bat, nai ba dezu dizun emen eman oi duen atsegin ta kontentua; ta gero ekusten bera beti, ta ziñez maitatzen egotea.

## BIGARRENA.

### GEROI GEIEGI NAIA EDO GEREN BURUAK BEHAR EZ BEZALA MAITATZEA

15. Beren buruak maitatzen ez dituzten guti arkitzen dira munduan. Gaizki bizi diranak aisa ezagutzen dute maite dituztela beren buruak. Gauza onak egin oi dituztenak ere, ezagu dezakee, nai badute. Egiten



dituzten gauzetan Jainkoa billatzen dutenak ez dute beren burua maite: maite dute Jainkoa: baña, geienak uste duten baño geiago behar da orrela Jainkoa billatu ta maitatzeko. Billatzen dezun edo ez ezagutzeko, ekusi behar dezu zer egin oi dezun ta zer gatik.

16. Osasuna galzeko beldurrez zabilza? Beldur onegatik uzten dituzu, guziak ezpada ere, Jainkoa maite dutenak egin oi dituzten neke ta gauzak? Zabilza maiz gorputzari on egiñen diola deritzatzunaren billa? Beldur naz geiegi nai diozula zere buruari, ta egiten dituzun gauzak ere uts-egitez beteak daudela. Erran dezakezu maite dezula Jesus ta Jesus ona gatik utzi nai dituzula lurreko gauza guziak, baña etzaitut siñistuko. Zuk diozuna ziñez dionak ez dio bere buruari zuk adiña begirutzen: onek ez du begirutzen gaitza den edo erraza Jainkoak agintzen dion gauza; etzaio ezer oni ona izan edo ez osasunarako, Jainkoari atsegin egiten dion ta egin dezala erraten zaion gauza. Jainkoa maite duena Jainkoari begira dagoka, berak edo beraren eskua duenak erraten diona laster ta trikatu gabe egiteko.

17. Nai ez dezuna agintzen zaitzunean inguruka bazabilza, nondik, ura egin gabe, ongi geldituko zaran; zerorrek nai dituzun gauzak gogoak ematen dizunean egiten badituzu; egiten dituzun gauz onetan ere artu utzi bazabilza; nai ta ez egin behar dituzun gauzetan barreneko illuntasun ta atsekabe batekin arkitu oi bazera; ona izateko asmoak etortzen zaizkitzunean, orretarako gogoratzen diran neurriak edo gauzak izutzen bazaituzte, ta behar diranak artu gabe gelditzen bazera, zere burua billatzen dezula aditzera ematen dezu, ta etzaituela, egiten dituzun gauzetara, Jauna maitatu naiak eramaten.

18. Obe lizake, behar bada, ezpazenu dituzun zenbait gauza on; beintzat ezagutuko zenuke orduan uste dezun baño beharsuagoa zerala, ta Jainkoaren begietan, deritzazun adiña balio ez dezula. Egiten dituzun gauzak itsutua bezala zaduzkee; bada orietan, zere ona billatzen dezunean ere, Jainko maitearen billa zabilzala iduritzen zaitzu; ta, orretan ezpazeunde, egiñen zenituke egiten ez dituzunak. Egiten dituzun gauzen artean gaizki dirudienik agertzen ezpada, egin dezula uste dezu egin behar zenuen guzia; ta etzara ohartzin behar den barren ta bihotzarekin egiten ez diran gauzak animarik ez duen gorputza bezala dirala.

19. Zure Konfesoreak behar bezala estutzen ezpazaitu, loiean dautzan bekatoreak baño gaizkiago arkitzen zara; bada oiek izutu ta arritzen ditu egia bat aditzeak edo uste gabeko eriotza ekustek; baña zu, orrelako gauzak aditu ta ekusia gatik, ezer ekusten edo aditzen ezpazenu bezala gelditzen zara zere zauden tokian. Beti zabilza nondik gogo aze, ekus-

ten dituzun ta ongi iduritzen zaizkitzun gauza txarrekin; ta, zenbait uzten badituzu, izan oi dira gutiena nai dituzunak. Zurekin ongi datozenekin baizik etzenuke hitz egin ere nai. Zere burua erakustea gatik egiten dituzu egin oi dituzun zenbait gauza. Besteri datorkion eritasuna Jainkoaren ondasuna dela diozu; baña ez dezu ondasuntzat ezagutzen zerorri etortzen zaitzunean; bada illuntzen zara laster ta zerekin ezin burutuz bezala zabilza, luzatzen badu beintzat, zuk uste baño geiago.

20. Ondu behar dezulako asmoarekin zabilza beti, ta beti arkitzen dira len bezain berriak zure uts-egite ta txarkeriak. Askotan erraten dezu guztiz nai diozula Jaun andiari, maite dezula zere Jesus, ta onek nai duena besterik ez dezula nai; baña gutitan onek nai duenik egiten dezu. Badakizu gurutzepean nekaturik ibilli zen Jesusen ondotik doanak artu behar duela bere neke ta mortifikazioaren gurutzea: baña onek izutzen zaitu; ta, ez arzea gatik, billatzen dituzu ezer balio ez duten eun ta geiago aitzaki. Hitz bian guzia errateko, gogoak ematen dizuna baizik egiten ez dezu, edo egiten ba dezu, izan oi da zere buruaren ongi naiak eragiten derezkitzun asko uts-egiterekin.

21. Onela bizi zaraño, Jesus maite dezula zuk errana gatik, ez Jesus, zere burua dezu maite zuk. Beste bizitza artu artean, birtutezkoaren izena izan dezakezu; baña, birtutezkoak duten Jauna maitatze andirik gabe biziko zera. Ez du Jesus maite Jesusen neke-izerdien igesi dabillenenak. Alferrik utziko dituzu Gurasoak, Aideak, Adiskideak eta dituzun gauzak; etzaitut neretzat ezagutuko, etzaitut nere eskolan artuko; gañerako gauzekin batean zere gogoa edo zere buruari nai ori uzten ezpadezu, dio Jesusek, *adhuc autem, & animam suam*. Ez da, bada, gogo txarra garaitu gabez, Jesus maitatzeak dakartzien ondasun andiak zer galdu.

## HIRUGARRENA.

### BIHOTZAREN ARROTASUNA EDO ANTUSTEA

22. Bihotzaren arrotasun gaixtoa da birtutezko bidean dabilzanai egitekorik geiena ematen dien etsaietatik bat, eta agian gaixtoena; bada gañerakoak egin ala egin ondoan, ateratzen zaie bidera, indar osoekin ta armaz beterik. Begira, bide onetan zabilzana, etsai onek, zu garaiturik uzteko, aski du gañerakoak garaitu dituzulako gogorazioak dakarren atsegin ta berotasuna. Gauza onak garaitzen dituzte gañerako etsaiak: baña gauza onak berak dira etsai onek, gu garaitzeko, artzen dituen armak.

23. Ezpadituzu nai egiten dituzun gauza on guziak galdu; galdu nai ezpadituzu birtutezko bidetik, edo Jesus maitatzetik datozen ondasunak, ez da zer bihotzean arrotasun gaixto edo antuste oni lekuri egin; bada



egiten badiozu, galduak dira diranak. Zabilza beti erne; bestela sartuko zaitzu barrenera zuk uste gabe; ta, bidaltzen badezu ere, aterako da, arkitzen duen guzia berekin daramala.

24. Ongi ohartua ezpazaude, arrotasun onetatik datorrena Zeruko gauza iduriko zaitzu; ta ona delakoan, leku egiñen diozu zere bihotzean asmo gaixtoari. Agertzekoa den gauzaren bat egiteko zaudenean etortzen zaitzun barreneko estutasun larri ta gaizki gelditzeko beldurra, arrotasun edo antuste gaixtotik datorren gauza da. Jainkoaren billa bazenbilza egiten dituzun gauzetan, zere aldetik egin ezker al egiña, ansiatuko etziñake etorkizunaren gañean, zeren ezagutuko zenuke ez duela Jainkoak eskatzen ezin ditekean gauzarik.

25. Nai dezu izan dezaten begitarte ona zuk egiten dituzun gauzak; edo nai dezu zure gauzak ongi iduri dakiezen ekusten dituzten guziaz; ori zuk uste dezu egiten dezula Jauna gatik; edo deritzazu, onzat bazaduzkate, obeki artuak izain dirala zuk egiten edo esaten dituzun gauzak, eta aisa-go zuzenduko dituzula zuzen ez dabilzanak; baña, Jainkoaren honraren billa zabilzalako aitzakian, zere burua billatzen dezu, edo zere honraren billa zabilza; bada, ekusten zaituztenai gaizki iduri dakien beldurrak, uzten dituzu zenbait aldiz, bestela egiñen zenitukeen, ta agian egitera behartua zauden zenbait gauza. Nai zenieke, Jainkoari bezala, lurrekoai ere atsegin eman; baña gertatu oi dena da guziekin gaizki zu atzenean gelditzea. Zure bihotz arro, antustez betearenak dira, ez Jainkoarenak, lan oriek.

26. Lan orietan zabilzaño, ez dezu irabaziko bihotz humil garbizkoai Jaunak eman oi diezten Zeruko atsegin edo gustoetatik bat; eta lurrean arkitzen diran atsegin-gustoak gusto ta atsegin laburrak dira ta gezurtiak; bada, ken ditezeneko, gelditzen da bihotza utsa ta illuna. Asaldatzen zaitu orduan, erraten zaitzun edozein hitzek; ekusten dituzun besteren gauza onak atsekabe egiten dizute; nioren onik ezin eraman dezu; labur zabilza geienekin; ta etzenuke nai zurekin lebillen labur bat ere: zu baño geiagokoak ez diranekin latza da zure hitz-egitea ta gogorra: etzenuke nai arki ledin zu baño geiagokorik; damuz bezala zaude gizon jakintsu ta andien artean zaudenean: ezin bestez egoin zara orrelakoekin: billatzen dituzu nai adiña hitz egiten uzten dizutenak; baña lurrean billatzen dituzu arkitzen ez diran atsegin ta gustoak.

27. Egin badituzu zenbait gauza on, ez dituzu luzaro estaliak idukitzen: ez dezu galduko orien berria banatzeko biderik: bidea dezun guzietan aterako dituzu: ta aterako dituzu zureak bai lira bezala, edo Jainkoak lagundu ezpalizu, egin gabeak geldituko ziralda oroitu gabe. Gelditzen badira ixill ta otzak zure gauzak aditzen dituztenak, otzago gelditzen zara

zu ta laudatu etzaituztelako damuarekin. Oik guziak bihotz arro, burua goratu naiez dabilenaren arrastoak dira.

28. Zu bezala ez dabilzanak ez deritzazu dabilzala zuzen. Zere gisara nai zenituke gauza guziak; onelakoak ezpadira, begitan artzen dituzu diran onenak. Ez da zuzenatzen zu aseko zaituenik: Den onena gatik izain dezu beti zer esan; ta ez deritzazu dela bat zu edo zure gauzak gatik hitz bat esan behar duenik. Bada nola nai dezu sar ditezen lurreko asmoz ta arrotasun gaixtoz betea dadukazun bihotz orretan, orrelakorik gabe dauden bihotzetan baizik sartzen ez diran Jainkoaren atsegin ta kontentuenak?

29. Arrotasun ta antuste orrek, egiten dituzun gauzarik onenak igartuak utziko ditu, barrenean sartzen zaien arrak utzi oi dituen bezala pagorik ederren ta andienak, ezpadezu kentzen zere bihotzetik. Bihotzean dadukazuño, ez da zer itxedan Jesusen maitatzalleak duten atsegin edo gustorik. Lurreraño edo guzien oñetara beratzen zen Bihotza duen Jesus maiteak ezin ekusi du burua goraturik ibilli nai duen bihotz arrotik. Maite du Jesusek, Jesusek betetzen du Zeruko atsegin ta ondasunez berak bezala bihotz beratx, arrotasun gabeko ta humilla duena. Bihotz arrotasun gaixtoz betea dutenak arkitzen dira azken orduan ez aberats, uste zuten bezala, baizik asko utsekin ta Zerurako ezer gabe; bada beren arrotasun ta antustek igartu zituen edo usteldu, egin zituzten gauzak.

## LAUGARRENA.

### OITURA, AZTURA EDO KOSTUNBRE GAIXTOA

1. Oitzen bazera, besteak utzia gatik, gauza txar gaixtoren batera, galduko dituzu, orrelakorik gabe, maite dutenak izan oi dituzten Jesusen atsegin ta ondasunak. Jauna maitatu nai dutenak garaitu naiez dabilza beren etsaiak edo pasio gaixtoak, eta, andik datozen oiturak: baña geienai gertatzen zaie Sauli, Amalek garaitzera joan zenean, gertatu zitzaiona.

2. Jaunak agindu zion Sauli etziozala barka Agag zeritzan Amaleziten Erregeri, ez eta onen jende ta gauzai ere; edo agindu zion gal zitzaula guziak arras. Baña, gañerakoak ill, ta barkatu zion Agag Erregeri; ta, aren bazterretan arkitu zituen gauza txarrak galdu ta gorde zituen onak eta ederrak. Jaunak manatu ziona egin lekuan, egin zuen gogoak eman ziona. Baña zer gertatu zitzaion? Zer? Erri bateko zenbait ondasun gatik galzea bere ondasun guziak; eta azkenean zuen erresuma edo reinua: *Projeat te Dominus, ne sis rex* [(1. Reg.c.15.v.26)]. Saul bezala bazabilza, hura bezain gaizki gelditzeko bidean zaude. Aztura gaixtoak, bat ere utzi gabe, gal ditzatzula agintzen dizu zere Jainkoak; uzten dezun edozein, begitan artu-ko du, ta azkenean ken legikezu zere erreñua edo bere Zerua.



3. Gañerakoak kendua gatik, gelditzen zaie geienai aztura gaixto bat edo beste. Oitzen dira utzi behar lukeen gauzaren batera; ta, hau ez uztea gatik, billatzen dituzte zenbait aitzaki; baña aitzakiak, argiz ingurutua dagoela, itsutu nai duena baizik ezin ase dezakeenak. Batzuek uts-egiten dute beren buruak edo humeak geiegi apaintzean; besteak jokoan edo hitz egitean. Erraz aserretzen dira zenbait; zenbait dabilza ondasunen ondoan edo beren buruak agertu ta erakutsi naiez. Onelako gauzetan uts-egiten ez dutenak, besteri atsegin egitea gatik, galtzen dituzte berriketan ordu osoak. Aurrak lotzeko aski ez diran ari zunza edo gauza txarrekin nasten ditu gure etsaiak, edo geldirazten asko ta anitz Zeruko bidean. Anitz dira, natural gaixtoa eskura ekarri gabez, galduaz ta galduaz doazenak.

4. Nola, esain dezu, etorri diteke orren kalte andia onen uts-egite txikitik? Aisa. Esazu ezperen, zirritu txiki bat ez da asko itsasoko onzirik andiena urean galtzeko? Etixerik ederrenak ez dira urratzen, ez dira auts egiten, aizeak eraman zuen tellaren zulotik sartzen den urarekin? Iltze, kanibeta edo beste edozein gauzak egiten duen zuloa aski da ohartzen etzaionaren aragi-ezurak ustelzeko. Zer bada? Ez dira zulo txikiak orrenbat kalte dakarten zuloak? Siñistu zazu bada, barrenean uzten zaion oitura edo uts-egite txarraren irriñ artetik egin dezakeala gure etsaiak, gu galtzeko, behar duen guzia. Gertatzen bazaitzu gaitz eta kalte ori, etzara izain zu lenbiziko orrela kaltear gelditu dena.

5. Nai ezpadezu, zartzen zaranean, uts-egite berekin edo andiagoe-kin zere burua ekusi, asi zaitetz bereala dituzun aztura ta kostunbre gaixtoak kentzen; ta, kentzen ezpadituzu, gutianean galduko dituzu kentzen dizutenak, eta gero Jesus ziñez maitatzen dutenak dituzten atsegin ta gus- toak. Munduak, haren ondoan dabilzanak zulatzeko, sagarroiak edo trikuak baño arantza geiago ditu; ta gusto txar baten ondotik, ematen ditu anitz damu ta atsekabe. Jesus da, Jesus, maite dutenai atsegin andi, garbi ta betikoa ematen diena. Utzazu bada mundu gaixtoa; zoaz bihotz garbi batekin billatzera ongi egiten baizik ez dakien Jesus; ta hau ziñez maita zazu.

### §. III.

## JESUSEN BIHOTZAREN DEBOZIOKO ONDASUNETARA DARAMAN BIDEA GARBITZEKO EGIN BEHAR DIRAN BI GAUZA

### LENBIZIKOA.

#### BERE BURUA HILDURATZEA EDO MORTIFIKATZEA

1. Jesusek bere Bihotzaren maitatzalleai eman oi diezten ondasunak galerazten dituzte, esan degun bezala, alferkeriak, nork bere buruari geiegi naiak, bihotzaren arrotasunak, eta aztura edo kostunbre gaixtoak. Galgarri gaixto oiek kendu nai dituenak beharko du bere burua hilduratu; ta, hilduratzen ezpadu, galduko ditu hilduratu ta nekatzen diranentzat dauden ondasunak.

2. Ezin erran diteke zenbat etsai irteten edo ateratzen zaizkan bidera ona izan nai duenari, ona izateko asmoa artu dezaneko. Orduan infernu guzia bere lekutik ateratzen dela dirudi, ta dituen lazo, indar ta arma guziekin, nondik galduko duen dabillela. Begietara datorkio mundua; ta burutik kentzea gatik duen asmoa, agertzen diozka ta eskeintzen bere edertasun txarrak, eta, azkenean utzi behar diran ondasunak; eta eskeintzen diozka Jesus maitatzetik izan ditzakeanak baño andiagotzat. Ingurutzen dute gaixtoak hista ta burlekin. Ona izateko asmo hau artu orduko, bere kontra ditu dituen lagun geienak. Ark bezalako asmorik ez duten lagun alferrak badute haren kontra behar ez adifia hitz eta indar. Utzi dezan artu duen asmoa, bein ta askotan esaten diote berak dakitena, ta etsaiak gogora ekartzen dien guzia. Oriei atsegin egin naiak, baita bere gaitzerako makurtasunak ere, estutzen ta premiatzen dute bein baño geiagotan, ta ekartzen dio burura asmo berri hau utzi ta leneko bidera biur- tzeke gogoa.

3. Garaitu ta igesi bidalduta gatik berealako artan onelako gogorazio txarrak, eta bein ken-erazoa gatik, etsaia baño gaixtoagoak diranak berriz etortzen zaizka, euliak bezala, ta ez diote bakerik ematen bide ta bizi guzian. Jaunak luzatzen ezpadio bere eskua, edo ematen ezpadio bere grazia- ren indarra ta laguntza, ezin burutuz orrenbat etsai gogorekin, utzi- ko du bere asmoa ta Zeruko bidea. Baña ez, etzaitzela izutu; prest dago gure Jesus behar dugun guzian guri laguntzeko; ta guk eginala egin ezke- ro, garaituak dira gure etsaiak; eta guk izain ditugu Jesusen maitazalle onak dituzten atsegin ta ondasunak.



4. Lenbiziko egin bear dezun gauza, etsai gaixtoa garaitzeko, da zere burua hilduratzea edo mortifikatzea. Ez du etsairik garaituko, ez du izain Zeruko ondasunik, hildura onetan sartu nai ez duenak. *Nerekin edo nere ondoren etorri nai duenak* —Jesus onak hitz egiten dizu— *ez dagela gogo gaixtoak eskatzen dion gauzarik: ar beza bere Gurutzea ta jarrai bekit edo betor nere ondolik: Gurutzea soñean, ta bere burua begitan arturik ez darraikidana ezin dateke nere ikasle edo eskolakoa. Ez nago ni onela ez dabilzanentzat* [(Math. c.10.&16. Luc. c.14. v. 27)]. Santuak orobat hitz egiten dizue; bada neurritu oi dute onaren birtutea daraman hilduraz edo bere buruari ematen dion atsekabearekin. Santua zela norbait esaten ziotenean Loiolako Aita San Ignaziori, ala izain da, eranzun oi zuen, bere buruaren etsai andia bada. Ez da birtuterik jaiotzen nekearekin maneatzan ez den lurrian; ta jaiotzen ta larritu dena ere laster igartzen da, nekeak berak ekartzen ezpadio Zerutik behar duen ura ta janaria.

5. Hildura modu bi dira Zeruko bidean birtuteari laguntzen diotena: kanpokoa ta barrengoia; edo gorputzarena bata ta beste bihotzarena. Galtzen bada bata, besteak ez du luzaro irauten. Birtuteak eskatzen duen gorputzaren hildura edo mortifikazioa ar diteke baruz, silizioz, diziplinaz, loa galduz ta beste asko bidez; ta, artzen denean Konfessore onak eman dituen neurriak autsi gabe, garaitzen du alferkeria, izutzen ditu etsaiak ta irabazten ditu askotan beharko dituen graziaren indarrak. Baña austen baditu neurriak, edo egiten badu behar ez bezala, birtuteari lagundu beharrean, kentzen diotza bere oñak.

6. Bihotzaren hildura da birtuteak beharren duen hildura; beti da hildura ona; ta da hildura nork-nai ar dezakeana ta artu behar duena. Bihotzaren hildura edo nekea da gogo gaixtoari burua auste, edo batek bide gaixtoz egin nai lukeana egin gabe uztea. Billa dezakezu silizioz beterik ez ibiltzeko aitzakia: baña ez da aitzakirik gauza bat esan dizunari, beste eranzun nai diozunean, ixillik ez gelditzeko. Nai gaixtoari lekurik bihotzean ez egitea da nork nai egin dezakean ta Jainkoak eskatzen duen barreneko edo bihotzeko hildura. Hildura au artu nai ez duenak onaren antz-iduria, itxurapena edo azala izana gatik, illa, ustela edo utsa dagoela aditzera ematen du.

7. Nai badezu izan birtutetsua, artu zazu gogotik eta betiko, griña txar edo barreneko nai gaixtoa garaitzeak dakarren gurutzea. «Begira, esaten dizu S. Bernardok, ez da zer eskutik armak utzi; ebakitzen den adarrak adar berriak dakazki; sua utzi duen ikatzak artzen du berriz ere; ta iratzartzen edo esnatzen da lo datzana. Ingurutu zazu, Profetak dion bezala, aranzazko atakaz zere burua, edo gordegizkitzu al egiñean zere

tea. Humiltasunik ez duenak edo gauza andizat bere burua dadukanak ez du Jesuse Bihotza ziñez ta ongi maitatzeko behar den birtuterik».

2. Balizake ez dakizula ere zer den Zeruko biderako eskatzen zaitzun humiltasuna, edo zere burua ezer-ezean idukitze hau. Anitzek uste dute, ezagutu ezker bere ezer-eza edo utskerria, bai dutela behar duten guzia: baña orretarako ez dute oraindik asiera on bat besterik; anitz geiago behar dute, behar bezain humillak izateko. Onelakoa izain zara, nai badezu zuk ezagutzen dezun zere ezer-eza ezagu dezaten beste zure berria dutenak ere; ta, izan zaitez, eska zagozu zere Jaunari dizula nor zaran ezagutzeko behar dezun argia. Argi onekin begira zazu bein ta askotan zere bihotzaren bazter ta zoko guzietara: ekusi zazu ongi zer edo nolakoa izandu zaran, edo zertarako zifiñean, ezipazenduzka, zaduzkan bezala, Jesus onak bere eskutik.

3. Ez da zer begiratu besteren gauzei; nai badezu, izain dezu, bai, zer egin, zere burua ekuste ta ezagutze onetan. Zere uts-egiteai begira bazau-de, ez diezu begiratze luzerik egiñen besterenai. Ekusten dezunean beste-eren gauza gaixto larriren bat, ohar zaitez larriagoak egiñen zenitukeala, zor ezipazeno zere Jaunari eman dizun laguntza ta grazia.

4. Ez dezazula zere gauzarik agertu. Onak badituzu, gorde-izkitzu, horien balioa ta geiago zuri emateko dagoen Jaunarenzat. Horiek besteri agertzeak bihotzaren antuste ta arrotasun gaixtoa besterik ekarriko ez dizu. Ez dezu zer ibilli, ezeri ez dagokanean, gaixtoa zarala, zu bezalakorik ez dela amaren sabeletik atera, ez likezula niork zuri begiratu behar, ta onelako gauzak esaten; bada orrelako orduetan, humiltasuna billatu beharrean, beren buruak billatzen dituzte anitz eta askok.

5. Zere txarkeri ta utsak ezagutu ezker, erran behar diozu Jaunari diela besteai ere zu nor zaran ezagutzeko behar duten argia: bada deusezean zere burua idukitzeko, anitz lagunduko dizu jakiteak ezagutzen zaituztela ekusten zaituztenak.

6. Bere burua ezagutua dadukana ez da aserretzen, esaten edo egiten bazaio nai ez lukean gauzaren bat: badaki, halabaña, ez dela bere txarke-riekin merezitu edo irabazi ez duen gauzarik. Egiten zaizkitzunak artu behar dituzu arpegi garbiarekin, ta bihotzean surik ez dezula; ta barrena berotuaz doakizula ekusten ba dezu, oroi zaitez bereala zer zor zaitzun, ta zere gaixtakeriekin irabazia dadukazun sekulako suaz; ta artu zazu su haren alde neke-pits ori. Eska zagozu Jainkoari diola eman dizunari ona izateko ta Zerua irabazteko behar duen guzia. Txarkeri ta bidegaberik egiten ezipazaitzu, erraiozu Kristo Jaunari oroit dedilla zutaz; ta, berak eskatzen duen gurutzearekin zabiltzan, bidal diezazula atsekaberen bat: onek





tea. Humiltasunik ez duenak edo gauza anditzat bere burua dadukanak ez du Jesusen Bihotza ziñez ta ongi maitatzeko behar den birtuterik».

2. Balizake ez dakizula ere zer den Zeruko biderako eskatzen zaitzun humiltasuna, edo zere burua ezer-ezean idukitze hau. Anitzek uste dute, ezagutu ezkerok bere ezer-eza edo utskeria, bai dutela behar duten guzia: baña orretarako ez dute oraindik asiera on bat besterik; anitz geiago behar dute, behar bezain humillak izateko. Onelakoa izain zara, nai badezu zuk ezagutzen dezun zere ezer-eza ezagu dezaten beste zure berria dutenak ere; ta, izan zaitezzen, eska zagozu zere Jaunari dizula nor zaran ezagutze-ko behar dezun argia. Argi onekin begira zazu bein ta askotan zere bihotzaren bazter ta zoko guzietara: ekusi zazu ongi zer edo nolakoa izandu zaran, edo zertarako ziñakean, ezpazenduzka, zaduzkan bezala, Jesus onak bere eskutik.

3. Ez da zer begiratu besteren gauzei; nai badezu, izain dezu, bai, zer egin, zere burua ekuste ta ezagutze onetan. Zere uts-egiteai begira bazau- de, ez diezu begiratze luzerik egiñen besterenai. Ekusten dezunean beste- ren gauza gaixto larriren bat, ohar zaitez larriagoak egiñen zenitukeala, zor ezpazentio zere Jaunari eman dizun laguntza ta grazia.

4. Ez dezazula zere gauzarik agertu. Onak badituzu, gorde-izkitzu, horien balioa ta geiago zuri emateko dagoen Jaunarenzat. Horiek besteri agertzeak bihotzaren antuste ta arrotasun gaixtoa besterik ekarriko ez dizu. Ez dezu zer ibilli, ezeri ez dagokanean, gaixtoa zarala, zu bezalako- rik ez dela amaren sabeletik atera, ez likezula niork zuri begiratu behar, ta onelako gauzak esaten; bada orrelako orduetan, humiltasuna billatu beha- rrean, beren buruak billatzen dituzte anitz eta askok.

5. Zere txarkeri ta utsak ezagutu ezkerok, erran behar diozu Jaunari diela besteai ere zu nor zaran ezagutze-ko behar duten argia: bada deus- ezean zere burua idukitzeko, anitz lagunduko dizu jakiteak ezagutzen zai- tuztela ekusten zaituztenak.

6. Bere burua ezagutua dadukana ez da aserretzen, esaten edo egiten bazaio nai ez lukean gauzaren bat: badaki, halabaña, ez dela bere txarke- riek merizitu edo irabazi ez duen gauzarik. Egiten zaizkitzunak artu behar dituzu arpegi garbiarekin, ta bihotzean surik ez dezula; ta barrena berotuaz doakizula ekusten ba dezu, oroi zaitez bereala zer zor zaitzun, ta zere gaixtakeriekin irabazia dadukazun sekulako suaz; ta artu zazu su haren alde neke-pits ori. Eska zagozu Jainkoari diola eman dizunari ona izateko ta Zerua irabazteko behar duen guzia. Txarkeri ta bidegaberik egi- ten ezpazaitzu, erraiozu Kristo Jaunari oroit dedilla zutaz; ta, berak eska- tzen duen gurutzarekin zabiltzan, bidal diezazula atsekaberen bat: onek

bazaie nola arkitzen diran orrenbat nekerekin. Guk gerok ekusten dugu ez dela lurrean Jesusen amoreta gatik beren buruak nekatzen dituenak bezain bizitza berdiña daramanik, eta asaldazio gutiago erakusten duenik. Bada, barreneko atsegin ta graziaren gustotik ezpada, nondik datorkie bake ta ondasun hori? Nola arkitzen ez dute nekearen igesi ta gustoen billa dabilzan gañerakoak? Nola, begiei, belarriei ta diran guziari eman ala gusto eman ondoan, illuntasuna baizik arkitzen ez dute beren bihotzetan?

5. Alferrik ibilliko gara, dio San Agustinek: ez da berdiñ Zeruko nekeak dakarren atsegin ta atsedetea beste atsedete ta atsegiñik. Atsedeteko batek mundu onetan, edo, ar dezakean deskansua artzeko, ezi behar ditu edo behar ditu ekarri eskura gaizki aziak dauden bere pasioak; eta, orien ondotik dabilenak eta nai ez duten guzia oriei eragiten dienak baizik, pasio ta aztura gaixtoak ezin ekar ditzake eskura: orregatik bada, onela Jainkoa gatik nekatzen dena da, guzien artean, atsegin ta deskansuz beterik bizi den gizona.

6. Nekez beterik bizitu zen Jesusen izenean beren buruak nekatzen dituztenak ez dira bakarrik nekatzen: nekearen uztarria Jesusekin batean daramate. Askotan arkitzen dira, nekerik andiena berekin dutenean ere, Zerukoak izain diralako uste ta esperanza andi batekin; ta uste ta espe- ranza onek dakarren atsegin ta kontentua Zeruan izan behar dutenaren asiera bezala da. Jesusen oñetan arkitzen dute emengo gauzen erokeria edo txarkeria ezagutze-ko behar duten argia: ta ezaguera onek kentzen die oriek izateko naia. Lurreko gauzen ondoan zebilzala, egin zituzten bide- gabe, txarkeri, uts-egite ta kulpen damuz betetzen zaie bihotza; ta damu andiagoo artzen dute beren kulpa, oben ta uts-egiteekin Jesusi ar-erazi zioten damu ta sentimentuaz: baña munduko atsegin guziak gatik emain ez lukeen damua da damu hau.

7. Nola hau izan ditekanean, ezin aditu dute mundukoak bezala bizi diranak: ez dute halabaña orrelako gauzen berririk. Jauna maitatzen dute- nentzat da onelako berria. «Betor, dio San Agustinek, Jauna maite duen edozein; orrek bereala adituko du ta sinistuko gauza onen gañean esaten deguna»: *da amantem, & sentit quod dica*.

8. Baña ez dakizula iduri arrizkoak dirala Jauna maite dutenak, edo ez dutela naigaberik ekusten Jaunaren izenean beren buruak nekatzen dituztenean, edo bestek nekabideak ematen dieztenean. Nik diodana da, len edo gero, atsegin ta gustoz itotzen dieztela Jainkoak, onegatik dara- mazten neke guziak: eta neketan daudenean ere, agertzen zaiela Jesus edo gogoratzen berak gatik eraman zituen nekez beterik, eta erakusten diela, hari begira daudela, aisago ibiltzeko bidea.



bazaie nola arkitzen diran orrenbat nekerekin. Guk gerok ekusten dugu ez dela lurrean Jesusen amorea gatik beren buruak nekatzen dituenak bezain bizitza berdiña daramanik, eta asaldazio gutiago erakusten duenik. Bada, barreneko atsegin ta graziaren gustotik ezpada, nondik datorkie bake ta ondasun hori? Nola arkitzen ez dute nekearen igesi ta gustoan billa dabilzan gañerakoak? Nola, begiei, belarri ta diran guziari eman ala gusto eman ondoan, illuntasuna baizik arkitzen ez dute beren bihotzetan?

5. Alferrik ibilliko gara, dio San Agustinek: ez da berdiñ Zeruko nekeak dakarren atsegin ta atsedetea beste atsedete ta atsegiñik. Atsedeteko batek mundu onetan, edo, ar dezakean deskansua artzeko, ezi behar ditu edo behar ditu ekarri eskura gaizki aziak dauden bere pasioak; eta, orien ondotik dabilenak eta nai ez duten guzia oriei eragiten diena baizik, pasio ta aztura gaixtoak ezin ekar ditzake eskura: orregatik bada, onela Jainkoa gatik nekatzen dena da, guzien artean, atsegin ta deskansuz beterik bizi den gizona.

6. Nekez beterik bizitu zen Jesusen izenean beren buruak nekatzen dituztenak ez dira bakarrik nekatzen: nekearen uztarria Jesusekin batean daramate. Askotan arkitzen dira, nekerik andiena berekin dutenean ere, Zerukoak izain diralako uste ta esperanza andi batekin; ta uste ta esperanza onek dakarren atsegin ta kontentua Zeruan izan behar dutenaren asiera bezala da. Jesusen onetan arkitzen dute emengo gauzen erokeria edo txarkeria ezagutzeko behar duten argia: ta ezaguera onek kentzen die oriek izateko naia. Lurreko gauzen ondoan zebilzala, egin zituzten bidegabe, txarkeri, uts-egite ta kulpen damuz betetzen zaie bihotza; ta damu andiagoa artzen dute beren kulpa, oben ta uts-egiteekin Jesusi ar-erazi zioten damu ta sentimentuz: baña munduko atsegin guziak gatik emain ez lukeen damua da damu hau.

7. Nola hau izan ditekian, ezin aditu dute mundukoak bezala bizi diranak: ez dute halabaña orrelako gauzen berririk. Jauna maitatzen dutentzat da onelako berria. «Betor, dio San Agustinek, Jauna maite duen edozein; orrek bereala adituko du ta sinistuko gauza onen gañean esaten deguna»: *da amantem, & sentit quod dico*.

8. Baña ez dakizula iduri arrizkoak dirala Jauna maite dutenak, edo ez dutela naigaberik ekusten Jaunaren izenean beren buruak nekatzen dituztenean, edo bestek nekabideak ematen dieztenean. Nik diodana da, len edo gero, atsegin ta gustoz itotzen dieztela Jainkoak, onegatik daramazten neke guziak: eta neketan daudenean ere, agertzen zaiela Jesus edo gogoratzen berak gatik eraman zituen nekez beterik, eta erakusten diela, hari begira daudela, aisago ibiltzeko bidea.

13. Gizon andi onek egin zuen, Konpañiako reglak dioten guzia egiteko, ta beti gauza guzietan bere burua nekatzeko botoa. Usteko dezu geroz arrastaka bizitu zela ta nekezko egunak besterik ekusi gabe. Adi zazu urte oro egin oi zituen exerzizioetako egun batean esan zuena.

14. «Seigarren egunean luzaro iduki nuen gogoan egiña dadukadan nere botoa. Ezin esan dezaket, milla katez bezala, nere bihotza Jauna serbitu ta maitatzeko lotua edo behartua dadukadala oroitzeak utzi didan atsegin ta kontentua. Ez nau izutzen boto onek dakarren nekeak: ez deritizat lotu nauela batere: nuena galdu lekuan, len baño esku geiago dudala deritizat, boto hau egin nuenetik. Milla esker ematen diozkat boto hau eragin zidan edo egiten lagundu zidan Jainkoari».

15. «Boto onez oroitzen nazanean —dio beste aldi batez—, atsegin ta kontentuz beterik uzten nauen bihotzaren lasaitasun andi batekin arkitzen naz. Ez deritizat kaltear egin nazakean gauzarik arki ditekela. Orain beintzat, ez da nere bihotzak nai lukean gauzarik, edo nai ez du Jauna maitatzea besterik nere bihotzak. Egia da, egun oro asaldatzen zaizkit nere pasione gaixtoak; baña aski dut, eskura guziak ekartzeko, begiratze bat».

16. «Jauna maitatzera behartua nagoelako oroitzapenak askotan betetzen dit atsegin ta gustoz barren guzia; ta ezagutzen dut, Errege guzien ondasunak emain lukeanak baño, geiago balio duela onek. Jauna maitatzearekin ez dute zer ekusi lurreko egitekorik andienak».

17. «Nere reglak agintzen edo erakusten dutena egiteko gogoz beterik nago beti; ta egiten dudanean, atsegin ta gustoz betetzen zait bihotza. Zenbat onetan erneago, anbat aisago bizi naz. Onetan nekatzea ez da neretzat nekea. Neke onen uztarria egun oro da biguñagoa: ta onela nekatu beharra da Jaunaren eskutik artu dudana gauzarik andiena».

18. Orra zer dion, bizi guzian bere burua nekatzea egitekotzat artu zuen gizon onek. Egin zuen, utzi gabe, eriotzeko orduraño, artu zuen egitekoa. Oian etzatea uzten etzion eritasun batek bukatu ziozkan bere egunak. Eritasunak iraun zueno, egon oi zen katadera batean, katadera, bere burua nekatzea gatik, bizkarrak ukitu gabe: ta, eritasunaren ta billatzen zituen neke guzien artean, esaten zuen ezin esan ala atsegin ta gustorekin zegoela.

19. «Jesus ekusteak guziz maitagarri egiten dit nere neke guzien gurutzea; ta, ezin arki nindekeala deritizat, gurutze ta neke gabe. Neke ta bidegabeen artean dabilzanak dira Jainkoaren adiskide maiteak, edo Jainkoak ongiena nai dienak. Neke gabe banago, ez dut oriez oroitzea baizik behar, lotsatua gelditzeko».



20. Orra non, Aldareetan dauden Santuak ez ezik, besteak ere bere nekean artean arkitzen dituzten atsegin ta kontentuek. Jauna beti bat da, eta, ez du nai geldi dakion nior artzeko. Ez dio ukatzen niori irabazten duen gauzarik. Irabaz ditzagun bada, haren izenean artu ta eramanikako nekeekin graziaren atsegin ta gustoak; eta izain ditugu gure nekeak arinduko dituzten kontentuek.

## §. V. JESUS ONGI MAITATZEAK ESKATZEN DITUEN ZENBAIT GAUZA

### LENBIZIKOA. OTOITZA EDO ORAZIOA

1. Urruti dagoen errian sarzeko, ez da asko prestatzea batek bide gauzak, ta arako bide zuzen garbia arkitzea: ibilli behar du: behar du, dabillean, galdetu, uts-egin ditekian nonbait; aitzen zaionean daramana, eskatu behar du gosea illzeko ta egarria kentzeko behar duena; lo, atsedetea edo otordua egin ondoan, artu behar du berriz bere bidea, ta behar du ibilli, bidetik atera gabe, billatzen duen Erriraño. Jesusen Bihotzean sartu nai duenak, edo nai duenak, bihotz guziarekin maite gaituen Jesus gogotik eta ongi maitatu, joan behar du egiñaz, daraman Zeruko bidean, zenbait gauza; ta lenbizikoa da otoitza edo maitatze ori bera Jaunari eskatzea.

2. Nor bagiña, aisa egin genezake nai dugun guzia: bada behar bezala eskatu ezker, emain liguke Jainkoak ori egiteko behar duguna. Bein ta askotan eman dituen bere hitzez orretara behartua dago Jesus ona. Baña, eman dituen gauzen artean, ez du bat ere ain gogotik ematen nola bera maitatzeko behar dugun eskua ta grazia. Eska bekio bada grazia ta esku hau, nai badugu laster ta fite sartu beraren Bihotzean naiez ta amorez.

3. Egin du guk asma al baño geiago guri maitaraztea gatik bere Bihotza. Bere eskuan daduka guri ematea orretarako behar duguna: bada nola ukatuko du, eskatzen zaionean? Eskatzen ez diogu orretarako behar dena, zeren ezer-ezean bezala dadukagun Jesus maitatzea. Maitatze hau gauza andia dela bageneritza, egiten dugun baño geiago egiñen genuke ez galzea gatik. Ez dugu oraindik ezagutu zenbat balio duen maitatze onek; ez dugu ezagutu ar dezakegun doairik andiena Jesus maitatzea dela; ta orregatik ez dugu oraindik ori gogotik eskatu.

4. Doai andi hau irabazteko gauzarik zuzenen ta errazena da otoitza, orazioa edo eskatzea. Eska zazu, dio Jesus onak, eta izain dezu; eska zazu, ukatuko zaitzulako beldurrik gabe: *credite quia accipietis*: ta siñistu zazu, eskatu ondoan artzen ezpadezu, ez dezula ongi eskatu: *non accipietis eo quod malè petatis*. Balizake eskatu diozula doai ori S. Agustinek noiz bait eskatu zuen bezala: *Timebam* —dio— *ne me dō exaudires*: eskatzen nizuna, esaten dio Santuak Jainkoari, nai baño lasterrago eman zenizadan beldurra nengo. Etzuen nai Santuak bereala Jainkoak ondu zezan; ta etzion orretarako behar zuena gogotik eskatzen. Zuk ere etzenuke noski, orren laster Jainkoa egin alean maitatzen asi nai; ta orregatik otz edo epel zaude maitatze orretarako behar dena berari eskatzeko. Uste dezu maitatze orretan sartzearekin, sartzen zarala bizitza nekezko batean; ta neke guziak edo kenduko edo arinduko lizki[ke]tzun maitatzean ez sartzea gatik, sarturik gelditzen zara neke utsen artean.

5. Ezagaturik noizbait zere itsutasuna, eskatu behar diozu Jesus onari dizula zure onerako dela berak dakien bera maitatzea. Maitatze onen ondasunekin arkitzen zaranean, edo maitatze onetatik datozen atsegin andiak zere bihotzean ekusten dituzunean, ekusiko dezu lenago Jesus ez maitatuaz galdu dezuna: ta, lenbait-len ekusi dezazun, asi zaitez bereala ta gogotik ori Jesusi eskatzen. Eskatzen badiozu, ez dut uste eskatzetik artzeraño luzatzerik izain dela.

6. Ez dakizula gogora behar bada nekatuko dutela Jesus zure eskatze andi-luzeak: ongi egitez ez da nekatzen Jesus: egiten ez dizu noski, dakizun baño ongi geiago, zeren ez diozun behar adiña edo behar bezala eskatzen. Etzaitzela zu, nai dezunarekin gelditu artean, eskatzetik geldi; lenbiziko ta bigarren aldian ukatzen zaitzuna eska zazu, Ebanjelioko gizonak bezala, izan artean; ta, ark bezala, izain dezu azkenean nai dezuna: ez daki Jesusek gauzarik ukatzen orrela eskatzen dionari. Gauza guzien gañean eska zagozu bera ziñez, gogotik eta garbiro maitatzea; ta eska zagozu gogotik ta eman degizun artean. Eska genitzakeen zenbait gauza ez dira gure onerako, baña Jesus maitatzea ongi dagokigun gauza da; ta, behar bezala eskatu ezker ezin uka dezakean gauza, ezpadu nai autsi emana dadukan bere hitza: ta hau ark ezin dagikean gauza da.

7. Jesusek uzten zaitu behar-bada dituzun zenbait uts-egiterek, arro ez dakizun zere bihotza, ta zere eskatze humillarekin irabaz dezazun hura ziñez ta ongi maitatzea. Maitatze onen suaz lurra edo lurrekoen bihotzak erretzera etorri zen; ta erretze hau orobat nai du orain ere: *Ignem veni mittere in terram; & quid volo, nisi ut arceatur?* Nola bada ukatuko dio, artan bera erre naiez, eskatzen dionari? Gaur gero goiz-arratsetan,



lanean ari zaranean ta atsedeten zaudenean, eska zagozu Jesus onari dizula ekarri zuen Zeruko su onetatik zati andi bat, oraindano maitatu dezun baño obeki bera maitatzeko.

### BIGARRENA. MAIZ KOMULGATZEA

1. Ez da erraz, erre gabe, kolkoan sua ekartzea. Ez eta, Jesus ziñez maitatu gabe, ongi ta maiz komulgatzea ere. Egia hau aisa siñistuko zenuke, zer den Jauna Komunioan artzea bazeneki? Ori zekiten Santuak, beren Jesus maitatu naia asetzeko, etzuten Jesus bera artzea bezalako gauza ta biderik arkitu. Jesus da alabaña, den amorezko laberik andiena. Labe onetako suak auts egin etzitzan, beren barrenean zutenean, Santuetatik zenbaitek, behar zituzten ur otzeko oialak bularraren gañean. Egunoro Jauna artzen zuten Elizako humeak etziran ezereen edo deusen beldur: Komunioko suan bihotzak berotu ezker, orobat billatzen zituzten larrutu, ezurak autsi ta ill nai zituztela zekiten Jesusen etsai edo Tirano gogorak. Komunioko suan beroturikako bihotzekin maite zuten Jesus: norbait maite duenak ez du bere gauzarik; edo dituenak noiz-nai emain ditu maite duena gatik; orregatik ematen zuten Jesusen izenean egun oro Komunioa artzen zutenak beren odola ta bizia.

2. Bizi garbia badakarzu; egiten badituzu ongi bizi diranak egin oi dituzten gauza onak, bazoazke maiz Jesus Komunioan artzera: ta, ez dut uste maiz gisa orretan artuko dezula, artu gabe beraren Bihotzeko labetik, hura egun oro obeki maitatzeko bear dezun sua. Ongi Jaun hau ta maiz edo sarri artzen dutenak obeki ta geiagotan artu naiez daude: ta zenbat obeki ta maizago artzen duten, anbat su geiagorekin arkitzen dira, ta geiago ta obeki maitatzen dute Jesus.

3. Gañerako Sakramentuak Jesusek digun ongina ta amoretik datozen gauzak dira; baña Aldareko Sakramentua Jesusen nai ta amorea da, dio San Bernardok; eta, ez nola nai, baizik amore guzien amorea: *Sacramentum Altaris est amor amorum*: bada Sakramentu onetan dago Jesus bera bere amore guziarekin. Gañerako Sakramentuetan artzen den graziarekin maita diteke Jesus; baña Jesus maitatzeko, ez du batek ere Aldarekoak adiña lagunza ta grazia ematen. Aldarekoak ematen duen grazia ta suarekin berotzen ez den bihotza otza izain da, beste edozein artua gatik.

4. Jesus onak, gu bere ganatzea gatik, ematen digu janari eginik bere Gorputz ta Odol Santua; ta artzen degunean Komunio Santuan, amorez urtu naiez dabill gure bihotza. Jaun onen deiez ta deiez egondu ziran, hau etorri arteko lau milla urtean, orduan bizi ziranak; eta, zenbait bakan ez

besteak, ill ziran hau ekusi gabe. Orain lurrean dago beti; ta dago deiez ta erakartzen dituela ar gandik igesi dabilzanak: *compelle eos intrare*. Ah, ta zenbat zor diogun Jesus onari! Ez artu naiez igesi dabilzanai ere ematen die lau milla urtetan eskatzen ziotenai ukatu ziena.

5. Zoaz, dio San Franzisko de Sales-ek, Komunio Santuan Jesus artzera, baña zoaz bera maitatzeko indar berrien billa: bada ez dirudi ongi amorez baizik billatzea amorez ematen zaitzuna. Zenbat nai dizun ezagutzeko, begira zazu zertaratzen den Jesus zu gana etortzea gatik: ezer-ez bat dirudiela gelditzen da; ta geienaz bokadu bat egiñik: orretaratzen du, gure bihotzaz jabetzeko, gure gana naiak.

6. Eta uzten diogu guk nai duena egiten? Ematen diogu geren bihotza? Zuk adiña bider Jaun hau artu gabe zenbat arkitzen dira zu baño obeak edo zuk ez bezala Jesus maitatzen dutenak? Autsi zituzten oriek zuk autsi nai ez dituzun kateak; eta egiten dute zuk egin nai ez dezuna. Lurreko gauza txar bati loturik dago zure bihotza; egiten dituzu Jesusi begietan ematen dioten zenbait uts-egite; ta, burua ezin jasoz bezala zabilza Jesusi zuzen begiratzeko edo Jesus ziñez maitatzeko. Utzi behar dituzula, diozu, zere uts-egiteak; ez diozula gogoan sartzen utzi behar munduan den gauzari. Zenbat urte da orretan zaudela? Zenbat aldiz artu dezu geroztik Jesus zere gana? Ta utzi dituzu mundua ta zere uts-egiteak? Aitortzen dezu ez dela ori orren egiteko andia: ala ere ez dezu beñ ere egiten.

7. Baña, kate txar zenbait ezin autsiz bezala ibillia gatik, ez da zer Komunio Santua utzi. Uzten bazenu, dituzun indarrak ere galduko zenituke; ta, dituzun kate txikiak autsi ordean, geldituko ziñake laster andiz lotua. Kate larririk edo bekatu andirik ez dutenai egunoro komulgatzea ez agintzen ta ez eragozten diet, dio San Agustinek; baña zortzian bein egitea ez dezatela utzi, al badagie.

8. Komunioan ikasten da, San Franzisko Salesek dion bezala, Jainko ona maitatzen, ta kentzen dira animaren uts-egiteak eta bihotzaren illuntasunak. Onak obetzen dira Jauna artzearekin; ontzen dira erdi-onak; osasuna dutenak gelditzen dira indarsu; ta eriak osasunarekin. Etxean egiteko guti dutenak Komulga ditezke askotan; ta egin bezate. Maiz, sarri edo askotan komulgatu beharrak dira egitekoen artean bizi diranak; bada oriek aski nekatzen dira, ta jan behar du ongi, ongi nekatzen denak. «Ongi komulgatzeko, komulga zaitzez maiz, esaten du Santuak; askotan egin den gauza obeto egiten da. Zuritzen dira elurra baizik ekusten ta jaten ez duten erbiak: maiz artzen den Jaunaren edertasunak bein Zeruko suaz edertua utziko du, ta berriz amorez urtua artzen duenaren bihotza».



9. Nola egin behar den, ta maiz komulgatzearen gañean hitz egin beharrak gara urrenko Buruaren VII garren §: orain asko da, ekusi den bezala, ekustea maiz Jauna artzea dela Jauna maitatu nai duenak egin dezakean gauzarik onena. Jesus maite dutenak izan oi dira maiz artu naiez dabilzanak. Anima loiean sartuak edo gaizki bizi diranak pozik egoin lira-ke beñere Jesus komunioan artu gabe.

### IRUGARRENA. MAIZ ELIZAN JESUS EKUSTEA

1. Elkar maite dutenak maiz elkarganatzen dira; ta, dezakeela, uzten balute elkarganatzea, laster utziko lukee elkar ganako amodioa. Jesus maite dutenak ere maiz argantzeko premian daude; ta zenbat maizago argantzen diran edo argana doazen, anbat geiago Jesusek ere naiko die: zeren, nola gurekin egotea gatik dagoen Jesus aldarean, nai-ta-ez ongi artu behar ditu askotan ekustera joaten zaizkanak. Gurekin egotea gatik bezala ta guri ongi egitea gatik dago Jesus Elizan. Bada zer ongiak ez diezte egin behar, berari ongi naiez, gañerakoak haren igesi bezala dabilzanean, ekustera maiz joaten bazaizka? Eman oi duen ondasunik andiena, ta geienik aldi aietan ematen duena, bera maitatzea da edo bere amorea.

2. Jai-igandetan ta geienak Elizara doazen egunetan egiten zaizkan ekuste ta bisitak naitaezko ekusteak bezala dira; ta orregatik anbat Jesusen gogoia asetzen ez dutenak. Bakarrik dagoenean, aztua bezala gañerakoak dadukaten orduetan egiten zaitzanak dira asko Jesusek nai dituen ekuste ta bisitak. Orduan bai zabaltzen dituela Jesusek eskuak etortzen zaizkanen bihotzai ar-ala ondasun emateko: orduan agertzen die gure amorez urtzen dadukan bere Bihotza: orduan hitz egiten die beren bihotzean; orduan aditzera ematen die egin dezaten nai duena: Adiskide onak bezala, illun etorri ziranak, argiz beterik bidaltzen ditu, edo barreneko neke ta tristuren artean bizi ziranak uzten ditu atsegin ta gustoz beteak, eta Jainkoaren izenean neke andiakoak eramateko indar andiekin. Zoaz bada maiz edo askotan Jesus ekustera; baña zoaz norekin hitz egitera zoazen ongi eza-guturik: orrela joaten bazera, ta joaten zeranetan egiten badezu gero era-kutsiko zaitzuna, Jesus maitatzeko bidean ongi ta zuzen ibilliko zera.

### LAUGARRENA. EGITEN DIRAN GAUZA ONAK BEÑERE UTZI GABE EGITEA

1. Jesus maite dutenak uzten ez dituzte, ezpada ezin bestez, Jesus maitatzea gatik artu zituzten gauza onak. Orretarako artu oi diran gauzak

dira komunio bat edo beste, egin oi ziranen gañera; noizean beñi, Jesus ekustea gatik, Elizan sartzea; neke ta mortifikazio txiki, orazio labur ta orrelako beste zenbait gauza. Aurkeritzat daduzkate onelako gauzak Jesus benaz edo ziñez amatzearen gañean orrenbat nekatzen ez diranak: baña benazko amatze edo maitatze onen ondoan dabilzanak beste begiz begi-ratzen die maitatze hau irabazten laguntzen duten gauza txikiei.

2. Onelako gauzak aurkeritzat daduzkatenai gertatzen zaie Naaman zeritzan Siriako gizon andiari gertatu zekiona. Zuen lepratik sendatu naiez, joan zen Naaman Profeta Eliseo gana; ta, garbi zedilla zazpi aldiz Jordango urean Eliseok gaztigatu zioneko, aserretu zen, balio bageko gauza agindu ziola iduriturik; eta artu zuen bere etxerako bidea. Lepraz beterik nai zuen gelditu, txartzat zedukan gauza bat ez egitea gatik. Gaixtoagoa den lepratik sendatu gabe daude Jesus maitatzen dutenak egin oi dituzten zenbait gauza txiki egin nai eza gatik. Esan dakieke Naamani esan zitzaiona; ta, onek egin zuena egiten badute, hura bezala, ziranetik edo lengotik besterik geldituko dira.

3. Ekusi zutenean egitera zijoana, esan zioten berekin ekarri zitue-nak: «gauza andi bat eskatu balizu ere Profeta Santuak, egin behar zenuen sendatzea gatik; zer gatik ez dezu bada egin behar eskatu dizun orren gauza txikia?». Ezagutu zuen ongi nai ziotenak bezala hitz egiten ziotela bere bideko lagunak; jaitsi zen Gurditik edo Karrozatik; egin zuen trika-tu gabe Profetaren esana; ta gelditu zen leprarik gabe gorputzean ta ani-man ere sendatua; bada, len Jainkotzat zedukatzen idolo guziak utzi, ta artu zuen bere Jainkotzat gure Jainko egiazkoa: *non enim faciet ultra servus tuus holocaustum, aut victimam dijs alienis, nisi Domino* [(4. Reg. 5. 17.)].

4. Gauza txikiak alde batera uzten dituzuna, ta animako utsegitez ta legenez betea zaudena, esan dakikezu zuri ere: eskatzen balitzatu, Jesusen maitatzalle ona izateko, dagizula gauza gogor andiren bat, egin behar zenuke, gogorragea baliz ere; bada, egiñik ere, merke erosiko zenu-ke anbat balio duen Jesus onestea; baña etzaitzu orrenbat eskatzen; mai-tatzalle ziñezkoak egiten dituzten zenbait gauza txiki egiten badituzu, horien lagun izain zara. Nola ez dezu bada, anbat balio duen gauza gatik, orren txiki bat zere kontura artzen?

5. Jaunaren izeneko gauza txikietan kontuzkoak diranak nekez kon-tua galduko dute larriagoetan; ta larri ta txikietan erne dabilzanak maite dute beren Jainkoa. Txikietan erne bazabilza ta irazarria, aisa larriak ernaraziko zaituzte. Zabilza bada beti erne, txikietatik batean ere ez uts-egitea gatik. Bein, egiteko artzen dituzun gauzak ez ditzatzula zere buruz bein-tzat utzi, ezpada obeak egitea eragozten dizutela ezagutzen dezuean.



Egiten dituzten gauzak aldatzen dabilzanak ez Jainkoari baizik beren gogoari atsegin egiten diotela dirudi.

6. Jainkoa gatik egin dezakezun guzia ez da gauza andia; baña ez da atsegin txikia Jainkoari egiten dion gauza, naiz gogoak lagun diezagula ta naiz ez, haren izenean egiten dena. Arki zaitzezela bada illun, edo argi ta alegre; zaudela zere gogara, edo nekearekin, fiña ta leiala izan behar dezu zere Jaunarekin; ez dezu egiñ alean, egin gabe utzi behar, haren izenean ta hura maitatzea gatik, egin oi dituzun gauzetatik txikiena ere: ori da Jesus ziñez maitatzea: ori da beti begi onakin zuri begiratzeko behartua bezala Jesus uztea.

### BOSTGARRENA. JESUSEN AMA MAITATZEA

1. Ezin uka ditekete Jesusen Ama dela geiena kriaturen artean Jesus maitatu duena, ta guziak maita dezaten, aski Jesusék nai lukeana. Jesusen Ama da amodio ta maitatze ederraren Ama: *Mater pulchrae dilectionis*. Bijoaz bada Ama on onegana, onen Seme Jesus maitatu nai dutenak. Elkarren onetsleak dira ta elkar maite duten Bihotzak dituzte Seme-Amak. Semearen Bihotzak ez du bihotz garbirik baizen artzen bere gana: baña lenik Amaganatzen diranak, Arteko ona gana bezala, badute bihotzak garbitzeko behar duten ura edo grazia.

2. Egia hau erakusten diguten Santuak, beharrean daudenen ustea ta esperanza dela diote Jesusen Ama; hau dela etsaien igesi dabiltzanen gorde-tokia, ta estutasun guzietan nori-nai behar duen guzia emateko dagoena. Zerorrek ezin artu zenuena Jesusen eskutik, artzen du aren Amak eta ematen dizu gero, dio San Bernardok. Ez du nai Jainkoak, dio Santuak, izan dezagun, Amaren eskutik ez datorkigun gauzarik. *Nihil nos Deus habere voluit, quod per manus Mariae non transiret*. Amaren eskutik artu behar dezu Semea maitatzeko behar dezun guzia.

3. Semea maitatzeko gogoarekin bazaude, aisa ta erraz Ama ganako zara: zeren Jesusen Amari ongi begiratzeko ez dionak ez du Jesus maitatzeko gogorik. Ekusi oi dena da Amari nai ez diotenak erra ta gorrotu diotela Semeari: ta Jesusi gaizki nai ezpazaio, ez dela aren Amari gaizki nai dionik. Lenbiziko gurasoak erakutsi oi duten gauza da Jesusen Ama maitatzea edo arekiko jaiera: ta maitatze hau aziaz doa gurekin, austen ezpazidigu aztura gaixtoaren batek.

4. Autsi etzekigun, ta autsi ta galdu lekuan izan genezan guziok egun oro debozio geiago Jesusen Amarekin, azaldu edo agertu zituzten Santu askok bide berriak, eta eman zituzten abiso onak. San Karlos Borromeok

eman zituenak, Milango Konzilioetan arkitzen dira. San Franzisko Sales Errosarioko Kofradiakoa zen; ta Kofradia berean ta beste Birjiñ Amaren Kofradietan sartuak nai zituen ekusi gañerako guziak; guziak izan zitezen aren onestariak eta debotoak. Baña, beingoan guzia erran dezadan, ez da Santu guzien artean bat Jesusen Ama anitz maitatu ez duenik.

5. Baña ez da zer Santuetara joan, Jesusen Amari ongi nai diotenak arkitzeko. Hereje biurri gaixtoak alde-batera utzi, ta guti arkituko dira bataiatuen artean, nai-ta-ez bezala, Jesusen Amak bere gana ez daramatzen. Aserre daudenai Semearekin, ematen die eskua ta laguntzen die, lotsa gutiagorekin ager ditezen haren begietara, bekatuen barkazioaren eske eta bakeak egitera. Ongi bizi diranentzat ateratzen ditu Jaunaren ondasunetatik asko grazia eta auxilio edo laguntza; ta, nai duten guzientzat da ongi baizik egiten ez dakien Ama.

6. Edozein gauza on egiten laguntzen du Jesusen Amak; baina ez gutiena Semea maitatzen. Bat maite duenak nai luke maita lezaten guziak: eta, nola ezin geiagoraño maite duen Jesusen Amak bere Semea, agitz nai du maita dezaten hau bera, munduan diranak; eta andik dator prest bera egotea beti, Semea maitatu nai diotenai, Arteko onak bezala, laguntzeko. Asi zaitze bada gogoz ta bihotzez Jesusen Ama maitatzen, nai badezu maitatu ziñez Jesus bera, ta Jesusen Bihotzean sarturik, amorez urtua gelditu.

### SEIGARRENA. SAN LUIS GONZAGAREN DEBOTO IZATEA

1. Anitz Santu dira, eskatu ezker, Jesus maitatzen lagunduko dituztenak. Orietatik bat Jesusen Konpañiako San Luis Gonzaga da. Ez da Zeruan Santurik, maitatzen ta honratzen dituenari gogotik laguntzen ez dionik; baña gogotikago laguntzen dio berak egin zituzten gisako gauzak egiten dituenari. Ala esan oi zuen San Luis Gonzagak, eta ala utzi zuen eskribiturik, ill ondoan arkitu zitzaion paper batean. «Elkarren iduriko ta gisako gizonak —dio paperak— obeki elkarri laguntzen dioten bezala, Zerukoak ere gogotikago laguntzen diote berak egin oi zituzten gauzetan ari diranai».

2. San Luis Gonzagak egin zituen gauza guzien artean, gogotikago bezala egin oi zuena zen, bere bakartasunean, gañerako gauzak gogotik utzirik, Jesus bihotzez maitatzea. Hau bera egiteko asmoa dutenak Bitartekotzat artzen badute, lagunduko die gogotik eta eramain ditu Jesusen Bihotzera: beintzat, onez baliatu diran askori ori gertatu zaie; ta gertatuko zaiela derizat, benaz ta ziñez baliatu nai dutenai. Eta, norbai-



tez baliatzeko, balia ditezke San Luis Gonzagaz, edozein estadu ta egitekotan Jauna maitatu nai dutenak; bada nori-nai erakusten dio egin dezakeana, edo erakusten du nola, bazterrai adirazi gabe ta Jaunak geiena nai duen bidez, bera maitatu.

3. Ill zen gazterik, eta barreneko birtutea agertzen duten milagro ta gauza andirik egin gabe; ta, egiten zituen gauzetan ere bere burua gorde naiez zebillen. Irabazi zuen duen gloria andia, gauza andiak egiten dituztenak eta andirik egin gabe bizi diranak irabaz dezaketen bidez; bada irabazi zuen bihotzez; ta ez da bihotzik ez duenik. Bizi izandu zen San Luis Gonzaga bere bihotzean sartua bezala; etzuen uzten ongi etzirudien pitsik bihotz onetan. Emendik beti begira zegokan bere Jainkoari, Jainkoak ekusi nai dituen birtutez betetzen ari zen beti bere bihotza; ta, ekusirik gañerako gauzen artean, Aldareko Sakramentuan zor zion amodioa, maitatzen ari zen beti Jesus, bihotzean zituen indarrekin: ta azkenean, amorez eranzutea gatik gure amorez Aldarean urtzen dagoen Jesusen Bihotzari, eskatu zuen illtzea, ta ill zen Bihotz maite onen festarako berezia dagoen egunean.

4. Bihotz eder oni begira zegoela ikasi zuen beti Jauna maitatzen egotea; ta egotea beti bihotz berdin edo egiteko ta nasterik andienen artean asaldatzen edo berotzen ere etzitzaion batekin. Bihotz onek zermatzien bidegabe ta damuak damuz betetzen zioten Bihotza ta negarrez arpegia. Bihotz onetatik ateratzen zuen, arpegia su egiñik, Bihotz oni zor zion bere bihotza erretzen zion ta ezurrak autsi edo atera nai balitu bezala saltoak eragiten ziozkan amorearen berotasuna.

5. Arki zedilla non-nai, edo zegoela edozein gauza egiten, beti zegoen gogoz ta bihotzez bere Jaunarekin. Agintzen bazioten utzi zezala zenbait denboraz gogotik bere Jainkoa, bere tokitik atere dagoen ezurrak dakarrena baño oñaze andiagoarekin erdiratua gelditzen zitzaion bere bihotza. «*Nik ez dakit*—dio Santuak berak— zertako kenerazten didaten Jauna nere gogotik. Beldur dira hura gogoan ekartzek neka dezan nere burua: baño Jauna gogoan ekartzek baño gogotik hura kentzek asko geiago nekatzen nau ni. Oitua nago Jainkoa beti gogoan dadukadala bizitzera; ta oitura onek nekatur ez, baizik atsegin ta gustoz beterik naduka».

6. San Luis Gonzagak bere bihotzeko bizitze onekin ta bihotzaz Jesus maitatzearekin zenbat irabazi zuen ekusi nai duenak ezta Sta. Maria Magdalena Pazisek diona aditzea besterik. Milla ta sei eun garren urteko Apirillaren laugarren egunean, Jaunak Zeruan erakutsi zionarekin arritua bezala gelditu zen; ta asi zen emeki ta hitzak bakan egiten: «Ah! zein andia den Ignazioen Seme Luisen gloria! Jaunak erakutsi ezpalit, ez nuen seku-

lan siñistuko. Ez dela Zeruan, iduritzen zait, Luisek adiña gloria duenik. Bai; Luis Santu andia da. Nere ustez badira Elizan Santu asko Luis adiña igan edo igo ez diranak. Nai nituke munduko bazterrak ekusi, guzietan adiratzeko, Santu andia dela Luis, Ignazioen Semea: ta ez dakit zer emain nukean adiratzek gatik zenbat gloria duen; ta onenbat gloria eman dion Jauna zein maitagarria den. Eman zaio orrenbat gloria egin zuen bere barreneko bizitza gatik. Ah! ezin esan adiña balio du barreneko bizitzak! Ez du zer ekusi kanpokoak barreneko bizitzarekin».

7. «Lurrean bizi zeño etzituen gu gatik gizon egin zen Semea gandik begiak kendu. Luis odolik ixuri etzuen Martire bat da: zeren zure berria duenak badaki, Jauna, zein andia ta maitagarria zaran, ta badaki nai adiña maitatzen etzaituela. Onelakoenzat, maitatu behar zinduztenak berriz ta berriz aserretzen zaituztela ezagutzea odola ixurtzek dakarren martirioa baño martirio gogorragoa da. Beste alde ere, Martire da Luis, bai: ukatu zion beti gogo gaixtoari eskatu ziona. Jesus! eta zenbat bere Jauna maitatu duen Luisek! Orregatik dago orain amorez dizekala ta gloriatz beterik Zeruan. Emen bizi zenean, amorezko fletxak tiratzen ziozkan beti Jesusen Bihotzari; ta fletxa berak bere bihotzari datozkio Zeruan; bada orduan Jesus maitatuak edo maitatu zuela oroitzeak ezin geiagorañoiko atsegin bat ematen dio Zeruan».

8. Orra zer dion San Luis Gonzagak Santa Maria Magdalena Pazisek. Orra zein maite zuen Jesus San Luis Gonzagak: orra zein sarturik bizi zen Jesusen Bihotzean. Ar bezate bada, Bitartekotzat San Luis Gonzaga Jesusen Bihotzean sarturik edo Jesus maite dutela bizi nai dutenak; bada berak eraman zuen bidea artu nai dutenai gogotik lagunduko die. Artzen dutenak arkitu oi dira fite ta laster, lurreko gauzetatik begiak kendu ta barrenera bildurik, Jauna maitatzen dutela, bizitzeko nai edo gogoarekin.

## ZAZPIGARRENA.

### ILLEKO EGUNEN BATEAN JAUNAREKIN KONTUAK EGITEA

1. Esan ditugun gauzetatik edozein bezain behar dena da, Jauna maitatzeko, noizean bein Jauna bera ganatzea, Jaunarekin kontuak egitea. Hau egiten eztuenak nekez eginen du, beintzat ongi, gañerakoetatik bat ere. Adiskide edo ezagunen baten uste gabeko eriotza; galtzeko bidetik, nola ez dakigula, geren burua atere ekustea; gertatu den gauza arrigarren baten berria aditzea; edo aditzea Konfessore, Predikadore edo beste ren bategandik gaixtoai gertatu oi zaiena aski da edozein beldurrean sar-



terazteko. Gaixtoa bazen, artzen du bereala ona izateko asmoa ta gelditzen da Jauna maitatzeko gogoz beterik.

2. Onelako zerbait gertatzen zaionak uste du ez dela geroz geiago leneko bide gaixtoetan sartuko, ta joain dela, gelditu gabe ta zuzen, artu duen Zeruko bidean. Baña gertatzen zaie anitzi suteagian goritu den burniari gertatu oi zaiona. Atera berrian, dirudi, ez duela galdu behar andik atera duen goritasuna ta sua; baña surtaratzen ezpada berriz, laster gelditzen da suteagian sartu zenean bezain otza ta gogorra. Misio, Garizuma edo Sermoiaren batean berotu diranak uste dute oztuko ez dirala beñere; baña sutaratzen ezpadira, laster galduko dute duten berotasuna; edo, orduan bide gaixtoa utzirazi zien kontuak ateratzen ezpaditu, gaixtatuko da berriz ere.

3. Illean bein onelako kontuak ateratzea; edo illeko egunetatik batean al dezun guzia Jainkoarekin igarotzea da egin dezakezun gauzarik onena, len bera maitatzeko artu zenuen asmoa ta berotasuna berritzeko. Egitekoetan sarturik dabiltzan munduko Gizonak erakusten digute zenbat balio duen onela kontuak egiteak. Egunoro daramate artzen, ematen, egiten ta eragiten duten guziaren kontua. Zenbait hasteren buruan artzen dituzte Libruak; begiratzen dute zertara diran eskuetan dakazten egitekoak; ekusten dute irabaziaz doazen edo galduaz beren artu-emanetan. Asitzen dira gero nondik datozen galtzeak, nondik irabaziaz, ekusten; ta daude hastiz ta luzaro irabazbide berriak asmatzen edo billatzen; ta ez dute lan hau eskuetatik uzten, aberasteko egin behar dituzten neurriak artu artean.

4. Merkatari, Zaldun ta Erregeak berak eskuetan dakazten egiteko guziak baño, egiteko andiagoa da gure salbazioko egitekoa. Nor bagara, etzaiku egunik igaroko edo joain egin dugunaren kontua geren buruai artu gabe. Goizetik arratseraño egin ditugun uts-egite ta gauz onak gogoratuko ditugu, etzin baño len, gero ezartzeko memoriako Libruan. Zenbait hasteren buruan, ta illa joan baño len, aterako ditugu denbora artako galdu-irabazien kontuak; eta artuko ditugu irabazi berrien neurriak; orobat eginen dugu urrengo illean; emendik atera baño len, Zeruko ondasunez beterik gelditzeko. Ager dezagun edo adirazi gauza hau obeki.

5. Badakizu maitagarria dela Jesus, ezin geiagoraño. Zerori lotsatzen zera askotan, maitatzen dezun baño, geiago hura ez maitatzeaz. Egun oro zor diozu len baño geiago; baña atzo baño, egun ez dezu orregatik geiago maitatzen. Egunetik egunera sartzen zara Jesus maitatzen lagundu ez oi duten egitekoetan. Egitekoen artean banaturik dabil geienean zure bihotza. Nekez hau biltzen dezu animako egitekoari kontu artzeko; ta, bil-

tzen dezunean ere, izan oi da denbora laburreko; bada laster doakizu gogoa beste behargai edo lurreko gauzetara. Ongi nai badiozu animari; nai badezu Jesus maitatu, ar zazu illean egun bat zere buruari kontuak artzeko, Jaunari emateko, ta urrengo illean egin behar diran behargaien neurriak prestatzeko ta zuzentzeko.

6. Gañerako egunetan ezin badezu, egizu eskatzen zaitzuna Jai edo iganderaren batean. Egun hartan ere egin ditzaketzu ezin utzi ditezkeen etxeko egitekoak. Baña, egitekoak uzten dizuten denboran, utzirik aldebat jostatze, hitzketa ta orrelako gauza edo arazo alferrak, ekuskitzu animako galdu-irabaziaz, edo begira zazu ongi zertan ta nola joan zaizkitzun egunak eta hasteak. Ekus zazu zertan dauden Jesus maitatzeko artu zenituen asmoak; zenbat bider edo aldiz uts-egin dezun onetan ta egiteko zeunden beste gauzetan: ohar zaitetz nondik datozen zure uts-egiteak, edo zertan dagoen ez geiago zuk irabaztea. Arkitzen badezu garaitu zaituela nagitasunak egin dituzun baño gauza on geiago ez egiteko: arkitzen badezu gaizki ezia dadukazun pasioaren batek ez dizula zuzen ibiltzen utzi Zeruko bidean, ar zazu nagitasuna garaitzeko ta pasioa eskura ekartzeko asmoa: ar zazkitzu orretarako behar diran neurri ta bideak; eta ez arren kupida izan geroz geiago zere burua.

7. Eskatzen zaitzuna egin dezakezu Elizan edo zere gelan; egin dezakezu belauniko, jarririk edo nola nai. Asmo onak ar ditzan zure bihotzak, biguinduko dezu oroitzuz ez dela eriotzeko orduan gaizki egiñaren damua ta urrikia bertzerik: ill ondoan eman behar dela kontu estu arrigarria; ta, nai-ta-ez itsusiak dirala gaizki dabilzan gauzak. Ekartzu gogora gaixtoentzat su-lezean dagoen nekez urratze ikaragarri hura. Oroi zaitetz Jauna maitatzeak dakarren emengo atsedean ta deskansuaz; baita orien ondolik datozen Zeruko atsegin ta sekulako gustoaz ere. Onelako ta beste zenbait gauza on dakartzien liburuen bat badezu, irakurri zazu artan zenbait denboraz; ta egizkitzu zere debozioak, batere utzi gabe.

8. Illean egun bat onela daramatenak badakite zenbat orretan irabazten den. Profeta Santuak zion onelako kontuetan Jaunarekin dagoenak artzen dituela indar berriak ziñez ta finki Jauna maitatzeko: & *in meditatione mea exardescet ignis*. Bakarrik arkitzen duenean hitz egiten dio Jaunak bera maitatu nai duenari. Orduan adiratzten dio egin behar duena, ta erakusten dio bere uts-egitearen itsustasuna ta erokeria; ta uzten du azkenean asmo on batekin edo ona izateko gogoz beterik.

9. Orrelako zerbait egiten ez dutenak siñistu dezakee fedeak erakusten diena; baña ez dakite zer siñisten duten; ta bizi dira ezer siñisten ezpalute bezala. Siñistuko dute guti dirala, Kristo Jaunak dionaz, Zeruan sar-





tzen diranak; siñistuko dute bai-dela gaixtoentzat Infernua ta beti beti iraun beharrak dirala infernuko neke gogorrek; baña ez dute Jauna galteko beldurrik; nolakoak diran Infernuko nekeak eta zer den eternidadea ezagutu gabe aterako dira mundutik. Zer gatik uste dezu? Zeren, beste gauzak utzirik, bilzen ez diran noizean bein bad-ere onelako gauzen gañean beren kontuak egitera edo zer diran ekusi ta ezagutzera.

10. Egiteko anitz dituela diote zenbaitek, orrela kontuak ateratzeko. Askok esan oi dute ez dutela bururik orretarako; ta guti dira ondasunez betea dagoen bide hau artu nai dutenak. Egiteko anitz dituzula diozu? Baña badezu animako egitekoak adiña balio duenik? Bada zer? Egunak eta hasteak ez dira aski ezer-ez bat baño anitz geiago balio ez duten egitekoe-tarako; ta ez diozu eman behar illeko egun bat bad-ere, gañerako guziak baño, geiago balio duen animako egitekoari? Lurreko bizitza laburra gatik nekatzen zara egun, haste, ill ta urte guzian; ta, aituko ez den eternidade-ko bizia gatik, ez dezu illeko egun bat Jaunarekin eraman behar? Ezagun zaitzu ez dituzula, azaletik baizik, Zeruko gauzak ezagutzen.

11. Autsi zazu, dio San Eucheriok, lurreko behar-gaien kate luze ori; ta egizu beñik bein animaren egiteko andia. Ez dezazula beñi ere begietatik galdu; ta illeko egun bat izan bedi orietan egin dezunaren kontuak artzeko. Hori da Jesus onak erakutsi zizuna. Ondoren zetozkion guziak utzi, ta gordetzen zen noizean bein Jesus, ta egon oi zen luzaro bere Aitarekin kontuak egiten bezala edo orazioan. Ark etzuen zer bakartasuna billatu beti Aitagan gogoia idukitzeko; guri erakustea gatik zer egin behar genuen, jendeak utzi ta igotzen zen mendira, edo bereixten zen, bein bazter onetan, bein bestean otoitza edo orazioa egitera. Dagigun bada illean bein bad-ere Jesusek erakutsi ziguna.

## IRUGARREN BURUA

*Zer gatik eta nola egin behar diran Jesusen Bihotzaren debozioak eskatzen dituen gauzak.*

### §. I.

## JESUS EKUSTEA GATIK ELIZAN SARZEAK EDO SANTISIMOAREN BISITAK DAKAZTEN ONDASUNAK

1. Jainkoa gizon egin ta lurrean agertu arteko denborak denbora gogorrek ziran. Orduraño benganzetako ta exerzitoetako Jainkoaren izena artzen zuen gure Jaunak. Hitz egin behar zuenean, sua ta trumoia zerion odeiez jaunzirik agerzen zen. Beretzat artzen zuen leku edo tokian etzuen nai Erregerik ere sar zekion: ta sartzen ziranak ongi pagatzen zuten beren ausardia edo atrebienzia.

2. Orregatik ere ekusi zezaneko Israelgo jendeak Jaunak bidaldurikako odei batez inguratua toki hau, belaunak lurrean zedukatzen, ta eskuak eta hitza goraturik; «ah! ta zein ona den —zion—, ta zein maitagarria gure Jainkoa! Odei orrek aditzera ematen digu or arkitzen dela, gure artean artu duen toki edo Eliza orretan! Ongi behartuak arkitzen gara gogoan beti ta ezpañetan egiten digun honra ekartzera!».

3. Hau zioten Israelitak; zer errain etzuten, ekusi balute guk gure artean ekusten duguna? Aientzat ain aserre ta gogorra zirudien Jauna gu gatik egin da Gizon, ill da gu gatik; eta gu gatik egiten dago, ta egoin da azken eguneraño, egin duen gauzarik andiena; bada orduraño egoin da gure onginaiez ta gure amorez urtzen Aldareko Sakramentuan. Ez dakit, adirazi balitzaie gertakizuna zela hau, siñetsiko zuten Israelitak.

4. Eta nola siñistuko zuten onen gañean gertatzen dena? Bazterrik gabeko gure Jainkoa egin da azkenean janari mundukoen ona gatik; eta mundukoak ez maitatu nai dute Jaun on andi hau ta ez ekustera doazkio, ezpada ezin bestez. Galde dezake gaur, len galdetu zuen bezala, Jesus maitak: «zer? Uste dezue, Jainko Gizon egiazkoa etortzen denean, arkituko duela fedea edo siñistea duenik?». Luc.18.8.



5. Siñisten badute, geiago da oriek egitea egiten dutena. Siñisten ezpazenu edo aztutzat bazeneduka Jainkoari zor diozuna, egiten dezun baño kaso geiago hartaz ez egitea ez lizake orren gauza arrigarria: baño siñistu zu gatik illzeko egin zela Gizon; ta, ori guti iduriturik, zure amorez loturik dadukala bere burua Sagrarioko presondegi edo karzelan, ta orregatik ere, egiten dezun baño kaso geiago hartaz ez egitea burua galezaz deza kean gauza da!

6. Ez da hau, ez, mundukoak erakusten digutena. Betor nondik nai erri batera Gizon jakinsu, aberats edo esku andia duenen bat; an izain ditu laster, ongi-etorri egitera joanak, Errian diran puntuzko guziak. Etorri bekio bati urrutitik Adiskide bat: etorri berria adi dezaneko, an da hura den lekuan: nekez ta ezin bestez kenduko da haren bazterretik edo aldamentetik; eta al duen guzietan harekin egoin da. Ongigillari nork-nai eskerrak ematen diozka; ta maiz aski ekustera joain zaizka zerbait geiago artu uste badute har gandik.

7. Jesusen humeak, zer egin da zuen siñistea edo fedea? Non arkituko dezue jakintasunean, ondasunetan, esku ta gañerako gauzetan Jainkoaren parerik? Ta, hau ain zuen aldean idukirik, ez diozute kasorik egiten? Orren bakarrik utziko dezue? [8] Non arkituko dezue, onek zuek adiña, bere adiskidea maitatu duen Gizonik? Eta, zuen amoreak katibo dadukala jakiñik ere, ez dezute noizean bein badere hura ekustera joan behar? [9] Zer ez dezue Jaunaren eskutik artu? Zer etzaudezte artzeko, nor bazerate? Ez dakizue bera dela diran ondasunen Jauna ta Jabea? Ez dakizue behar bezala eskatzen zaion gauzarik ez dakiela ukatzen? Ez dakizue onek baizik ezin eman dezakeala Zeruko gloria; eta ematen diela beraz kasorik egiten ez duten gaixtoai betiko sua ta nekea? Eta ezer zor ezpazeniote edo ezer ezin balegike bezain aztua dadukazue?

10. Zerura igotzeko zegoenean arkitu bagiña Jesusen oñetan, eta esan baligu eska geniozala nai genuena, izain genuen arpegirik eskatzeko azken eguneraño geldi zedilla gurekin? Edo, zeren eskatu genion, egin baligu anbeste, ez giñan pozez zoratua geldituko eta nola eskerrak eman ez genikiela? Guk alkez ta lotsaz eskatuko ez geniona eman digu Jainkoak: zein maite gaituen aditzera ematea gatik gelditu da gurekin juizioko eguneraño. Baña zer irabazi du azkenean, gure eskergabea, gure epeltasuna, edo gure oztasuna besterik?

11. Jauna ekusten dezun baño geiagotan ta obeki ekusten ezpazenu zuri ongi naiez ta zu ondasunez betetzea gatik zure auzora etorriko lizakean Españaiko Errege edo Erromako Enperadorea, nork-nai errain luke

ez dezula bururik, ajola gabea zarala edo animalien artean jaioa ta azia dirudizula.

12. Bere Aitagana igan ezkerro, zertako gelditu ote da gurekin Jesus? Zertara ote dator egunero Zerutik lurrera? Zertan dago gau ta egun, ogi puska baliz bezala, Aldarean sarturik? Gelditu zen, dator ta dago gu gandik ezin alde egiñez, ta zeren gurekin egotea den haren atsegiñ ta gustoa.

13. «Ez nere Semeak, ez; etzaitzuet emazurtzak utziko —dio Jesus on maitagarriak—. Zerura noa, baño lurra utzi gabe. Badakit indar gutiakoak zaratela zuek eta eriak: badakit askotan arkituko zaratela nekez ta kez kaz beteak, askotan egon behar dezuela nere ta nere Aitaren beldurrez ikara. Ez da zer izutu: Gordea bai; baño zuekin gelditzen naz, mundua mundu den arteko. Billa nazazue Aldarean: emen nago, Aitak bezala, zuen bihotzetako illuntasunak kentzeko. Diran animako eritasunak nola kendu dakidan Medikoa naz. Bide guziak dakizkidan Gidaria naz. Duda ta illuntasunak garaitzeko, badakit jakin ditekean guzia. Gose ta egarri daudenen janaria ta edaria naz, ta naz mundu guzia Zerura eramatea gatik ill ninzan Redentorea».

14. Orra zer dion Aldaretik Jesus maiteak. Orra zertako gelditu zen gurekin gure Jesus. Nork nai egin baligu Jesusek gu gatik egin duenaren laurdenik, nola eskerrak eman ez genikiela, galduak ibilliko giñan; ta onenbat Jesusi zor diogula, ezer zor ezpazenie bezala bizi gara geienak.

15. Ezagutzen dutenak ere zenbat zor dioten Aldarean Jainkoari, aitzaki billa dabilza argana ez urranzeko edo urbiltzeko. Ongi edo ondasunekin bizi diranak betarik asko badute beren jostatze ta alferkerietarako; ta hastirik gabe daude Jesus ekusteko. Hitzonzikerian egoin dira goizetik arratseraño; baño, Jesusekin Elizan hitz egiteko, mututzen dira: ta, hara ez agertzea gatik, ezer balio ez duten egitekoetan pozik sartzen dira ta egoten egun guzian. Beste guziak lanerako jaiok dirudite; bada daramazte, Elizarik denik ere gogoan artu gabe, egunak eta hasteak.

16. Egin behar lizakean gauza da Jesus Elizan noizean bein ekustea. Neke guti dakarren gauza da hara, orretarako, agertzea: orregatik ere hau da gauza bat gutik baizik egiten ez dutena. Batzuek Elizaren ondoan bizi dira: besteak haren aldetik dabilza, ta guziak dirudite dabilzala Jainkoaren igesi.

17. Japondarrak eta Kanada deritzan Indietako bazter artako tristeak askotan berreun legua bide zebilzan Elizaren batean Jesus ekusi ta adortzea gatik. Eta, onen bide luzerako indarrik gabe arkitzen ziranak eun aldiz beintzat belaunikatzen ziran, Eliza zegoen aldera begira zeudela, bertan bere Jauna ikusten ta maitatzen egon nai zutela aditzera ematea



gatik. Horien aldamenen zere burua juizioko egunean ekusten dezunean, egunean anitz aldiz bi pausuz Elizara zoazkeala, egunak eta hasteak an sartu gabe daramazkitzuna, zer errain dezu zere ajola gabe ta alferkeriaz? Ez dira nitaz oroitzen ere, dio Jesusek, asko zor didaten nere Errietako jendeak: *Populus vero meus oblitus est mei*. Jer. 2. 32.

18. Ikusirik San Juan Bautistak gure egunetan gertatuko zena munduan, begira, ots-egiten digu, begira ongi; zuen artean dago ezagutzen ez dezuten zuen Jainkoa: *Medius autem vestrum stetit, quem vos nescitis*. (Ioan, 1. 26). Gau ta egun Elizan dago, beharrean edo estu arkitzen diranei eskua emateko, nekatzen diranai laguntzeko ta ez dakienari erakusteko, illun-bean dabiltzanei argi egiteko, indar gabez erortzeko daudenak indarsu egiteko, eta loiean erori diranak andik ateratzeko. Behar degun guzia emain digu uste edo konfianza osoarekin eskatu ezker. Lenbiziko edo bigarren aldan ez emana gatik, ukatzen ez daki, esperanza galdu gabe, eskatzen zaionik.

18. Askotan ukatzen du zenbait denboraz eskatzen zaiona, geiagotan bere aldean gu ekustea gatik, edo gero berriro eskatuko diotzagun beste askorekin, nai degun gauza ematea gatik. Geiago kostatzen ezpaliz munduko gauzak irabaztea, beharsu guti arkituko lirake munduan. Aitor dezagun noizbait, ez dugula oraindik ezagutu gurekin bizi den Jesus Sakramentatua: eta nai ezpadegu oraindiano adiña behar ekusi, goazkion maiz edo askotan ekustera bere Aldarean; ta eskatzera nai genukean guzia: bada guzia daduka bere eskuan, eta eman naiez dago nai dugun guzi guzia.

19. Esaten zaikuna siñisten ezpadugu, galde bekie orretara maiz Elizan sartzen diranai nola arkitzen diran Jesus onarekin; ez dut uste arkituko dela bat, milla ta geiago Zeruko ondasun bide onez irabazi dituela errain ez duenik. Askotan Jesus Sakramentuan ekusten dutenak erraz edo aisa irabazten dute bera maitatzeko behar duten sua ta grazia. Su onetan erretzen dituzte egiten zaizten bidegabe ta txarkerien egurrak: eta, zenbat eta neke geiagoren azpian arkitzen diran, anbat atsegin geiagorekin aditzen dute Jesus bera gandik: *Venite ad me omnes, qui laboratis, & onerati estis, & ego reficiam vos*; atozte nigana: nik emain dizuet zuen neke lanak eskatzen duten atsegin ta indarra.

20. Nekezko nekez beterik bizi diranak eta mundu onetatik galduak diralako beldurrarekin ateratzen diranak dira emen Jesusek digun Bihotzeko amoreaz azturik bezala bizi diranak. An onelakoak ekusiko dute zenbat galzen duten, ezin bestez baizik, Elizaratzen ez diranak; edo

Elizaratzen diranetan, gogoia kanpoan dutela, bazterretara begira ta modurik gabe, Aingeruak ikara dadukatzen Jaunaren begietan daudenak.

## §. II.

### NOLA EGIN BEHAR DIRAN JAUNAREN SANTISIMOKO IKUSTAMENAK EDO BISITAK

1. Zoaz maiz edo askotan bere Elizan Jauna ekustera: baña zoaz, nora zoazen ongi ezaguturik. Etzaitzela beñere begi ariñekin Elizan sartu: itsi behar dituzu animaren leioak edo zere sentiduak; eta eramazu bihotza amorez ta esperanzaz beterik. Jainkoaren etxe bedekatua da Eliza. Elizan, beldurrak bezala, sartzen dira Aingeruak berak: eta hau ekustea aski dute Infernukoak, ikara gelditzeko. Ekusi zazu beste edozein lekutan bezala sartu behar dezun, Jainkotasunak betea dadukan eta Kristo Jaunak beretzat artu duen Jauregi edo Palazio onetan.

2. Negarrez urturik sartu oi dira, hara doazenak, Jesus jaio zen Belengo Etxola edo Portalean: orobat belaunikatzen dira haren odolak busti zuen Kalbarioko lurtean. Beste anbeste gertatzen ezpazaitzu Elizan sartzean, edo beldur santu batekin arkitzen ezpazara Jainkoaren Aldarera begiak goratzen dituzunean, izain da zeren erdi itzalia edo illa dagoen zure siñistea edo fedea: bada, hau bizia balego, ezagutuko zenuke edozein lekuk bezain errespetu andiarekin tratatzea merezi duela Elizak.

3. Elizan sartu baño len, oroi zaitez, Elizan dagoen Errege guzien Errege-Jainko andiaz. Oroi zaitez Aingeruz betea dagoela Eliza; eta Aingeruak lotsatuak bezala dadukatziela Errege onen izate ta edertasunak. Sar zaitez, zere bekatuak gogoan arturik, arpegitik lotsa dariezueta ta begiak lurrean dituzula, Aingeruen lagun izatera. Bere Andiz ta Zaldunetz ingurutua dagoen Espainiako Errege ekustera ta oni hitz egitera sartu behar balu beraren kontra zenbait txarkeri egin dituenen batek, belaunak ikara eramain lituke; ez lizake begiak lurretik goratzeko indarrarekin arkituko ta ezañaik lotuak idukiko lituke.

4. Eta zer? Lotsarik gabe sartuko zara zu Zeruko Andiz ta Zaldunetz, Aingeru ta Serafinez ingurutua dagoen Jainkoaren Palazio edo Elizan? Ez dakizu beraren kontra egin dituzun bekatuekin ezin geiagoraño aserratua dadukazula Errege andi hau? Gisa orretan zoaz onekin hitz egitera? Ez daki zertara sartzen den orrela Elizan sartzen denak.



5. Ez da aski Elizan ongi sartzea. Sar zaitze an egin behar dena behar bezala egitera; ta zaude an, an egon behar den bezala. Elizan sartzen zaranetan Jesus ona ekustera, obe izain da ezpañekin guti ta bihotzarekin al dezuna hitz egitea. Nai badezu bihotza bero dakizun, ar zazu gogoan zein ona den Jesus maitea; zenbat nai digun; zenbat zor diogun eta zenbat gu gatik eraman duen. Oroitzapen oriek behartuko zaitue berari eskerrak ematera ta bera maitatzera: ta zure eskerrak emate ta maitatzeak behartuko du bera ere hura berriz ez uzteko behar dezun guzia zuri ematera.

6. Zoaz batzuetan Artzaiak, jαιο zenean, joan ziran bezala, borondante onarekin, Elizan Jesus ekustera ta adoratzera. Beste aldian joan zaitzke, urrutiko Erregeak bezala, al dezun presenta egitera. Egizu zuk ere zere presenta edo emaitza. Eskeñi behar diozu egun hartako oitozten ta obra onen inzensoa; zere hilduren edo mortifikazioen ta bekatuen damua, ta proposituaren mirra, bihotz garbi baten urrearekin. Urrengo aldian bazozke Apostoloekin, zer erakusten duen aditzera, erakusten dizun guzia egiteko nai-gogo sendo batekin. Edo zoaz, Magdalena bezala, Jesusen oñetara, eta egizu negar zere bekatu ta txarkerien gañean; edo eska zagozu behar dezuna.

7. Zoazen guzietan idiki zazu, Profeta Santuak dion bezala, zere bularra, ta, ixuri zazu edo bota Jesusen oñetan zere bihotza: *Effundite coram illo corda vestra* [(Ps. 16.9.)]: nai dezun guzia adirazi zagozu ongi nai dizun Jesus onari. Eri bazaude edo bekatuan eror zaitezen beldur bazera, esan behar diozu Lazaroren Arrebak bezala: *Ecce quem amas, infirmatur* [(Ioan. 11.3.)]: zuk maite dezun anima triste hau eri dago, ta bekatuaren ortzetan illik gelditzeko zorian; lagun egiozu arren, ta eman behar duen kemena, osasuna eta grazia.

8. Bekatuaren loiera bazera, esan behar diozu lepraz josia zegoenarekin: *Domine, si vis, potest me mundare*: Jauna, nai badezu, garbi nazakezu; nai ezpazenu, etziñake ni gatik Sagrario orretan sarturik geldituko. Indazu bada nere bekatuen ziñezko damu andi bat; indazu guziak ongi konfesatzeko grazia: egizu gero nizaz nai dezuna: badakit ez dezula nere onerako ez den gauzarik egiñen.

9. Barreneko kezka edo nekeren batekin arkitzen bazera, Elizara zaitzeneko, erran behar diozu Kananeak bezain uste ta konfianza andiarekin: *Jesu, Fili David, miserere mei* [(Luc.18.38.)]: urrikari behar nazu izan, Jesus nere Errege ona. Ekusten zaude zer tranzetan nagoen; maite nazula siñistuko det, estutasun onetatik ateratzen banazu; ta aterako nazulako uste osoarekin arkitzen naz ni. Luza dezakezu niri eskua ematea; baña badakit, beranduago bad-ere, emain didazula. Badakit ez dela eder

humeen ogia zakurrai ematea; baña badira zakurrentzat ere apurrak. Zure graziaren apur edo zatitxo bat aski da niri nere gosea kentzeko. Eta nola niri zuk, ori beintzat, ukatu?

10. Idorra dadukazunean zere barrena, edo gauza onetarako gogorik gabe arkitzen zaranean, esain diozu, Soldaduen Nagusiak bezala: *Credo, Domine; adiuva incredulitatem meam* [(Math.9.24.)]. Ezagutzen dut, Jauna, ta siñisten zuk erakutsi didazun guzia; baña ez, nai nukean ezaguer ta siñiste andiarekin; ezin berotu dut, zu benaz maitatzeko behar adiña, nere bihotza: indazu orretarako behar dudan sua ta argia. Aisa egin dezakezu; zu zara alabaña gauza guzien ta nere Jabe ta Jainkoa: *Dominus meus, & Deus meus* [(Ioan. 20. 28.)].

11. Zure izenean eskatzen dugun gauzarik ez ukatzeko hitza emana dadukazu zere Ebanjelio Santuan. Bada nik, zere izen santua gatik eskatzen dizut leneko nere bizitza utzi, ta berri on bat egiteko behar dudan guzia. Lagun egidazu bada nere aztura txarrak garaitzen; estutzen nauten pasio gaixtoak oinpera edo eskura ekartzen; baita dakizun adiña falta egiten didan onelako birtutea irabazten ere.

12. Zure izenean eskatzen dizut onelakoren osasuna, alakoren zu gana biurtzea edo konbersioa, egiteko onen bukaera edo akaballa ona. Eskatzen dizut behar nukean ta zuk dakizun pazientzia ta beste birtute hura; ta guzien gañean, zu ziñez maitatzeko, zure graziaren lagunza ta indar bizia: *Amorem tuum solum cum gratia tua mihi dones, & dives sum satis*.

13. Beste batzuetan artuzazu gogoan Jesusek gogoan darabilena, ekusirik zein kaso guti egiten duten geienak haren bihotzeko amoreaz ta Aldarean egoteaz: ta azkenean esaten dizula: *Numquid, & vos vultis abire? Zer? ta zuk ere nai nazu utzi bakarrik? Eranzun behar diozu, San Pedrok bezala: Domine ad quem ibimus? Verba vitae aeternae habes*: norako naz, Jesus maitea, zu utzi ta? Emen nai dut egon, sekulako bizitza dakarten zure hitzak aditzen. Ezin bestez aterako naz emendik; eta orduan ere, nere bihotza emen zurekin utzirik.

14. Batzuetan kontu egizu galdetzen dizula, San Pedrori bezala: *Simon Joannis, diligis me?* [(Joan.c.21.v.15.)] Maite ote nazu, maite zaitudan nere bihotzeko anima? Ta eranzuten diozula: ez noski behar bezala: baña badakusazu nai zinduzkedala, ta gogotik alere, ta gauza guzien gañean maitatu.

15. *Quid mihi est in Colo, & à te quid volui super terram, Deus cordis mei, & pars mea Deus in aeternum!* Ez lurrean arkitzen da ta ez Zeruan, nere bihotzeko Jesus ona, zu baizik, nere bihotza ase edo bete dezakeanik. Zu bazaitut, badut behar dudan guzia; ta, gañerako guzia faltatua gatik, etzait



ezer faltako. Baña zu ezpazaitut, beste gauza guziak izana gatik, ezer gabe arkitzen naz, ta galduko naz azkenean: *Quia ecce, qui elongant se à te, peribunt.*

16. Gaugerero zurea nai dut izan, nazana: nai nituke nere egunak zurekin igaro leku on onetatik oñik atera gabe! *Mihi autem adhaerere Deo bonum est.* Ezin utzi ditzakedan egitekoak naramate emendik: baña ez didate zurekin beti egoteko gogoia kenduko. Ordurik beintzat ez dut uste joain zaidala zutaz oroitu gabe; ta arkitzen nazan tokitik bidalduko dut zugana nere bihotza, zure ganako nere borondate ona erakustera, ta zure bendizioa artzera: edo emen bertan utziko dizut, zuri zere bakartasunean lagun egiteko: gogoz beintzat emen geldituko da. Geldi diteke bai; zeren ez du hau bezalako atsegin lekurik bestetan idiroko: *haec requies mea: hic habitabo*

17. Noizean beñ, Jainkoaren ontasunak ematen duen eskuarekin hitz egin dakioke onela: nola bada, Jesus ona, etzera gelditu zauden leku santu orretan ni ondasunez aberasteko? Zer hari zara bada? Betoz ondasun oriek. Eragozten dizute nere zenbait uts-egitek? Ken zakidatzu oiek, eta betor neretzat dadukazuna. Etzaitut oraindik behar bezala maitatu: baña zu maitatu naiez edo maitatzeko deseoz beterik nago: ta ala ezpaliz, ez ninzake onen maiz zu ekustera onara etorriko. Besterik orain artu behar ezpadut ere, betor zu ziñez ta gogotik gaugerero maitatzea; *Diligam te, domine, fortitudo mea... & refugium meum* [(Ps. 17. 1.)].

18. Beste gauzen artean, onelako etor aldietan esan diteke: siñisten dut or zaudela, Jesus ona, Sagrario orretan; ta, zeren hau siñisten dudana, nago nagoen bezala, beldur ta ikaraz beterik. Eman ala esker, Jesus maitea, zor dizudan amorea gatik: ez dakit zer egin nezakean zu or anbat aldiz egondu zaran bezala, azturik eta gizonen txarkeriz beterik, ez ekustea gatik. Ez dut uste utziko nazula beñere bakarrik; laguntzat uste zaitut artu dudana Zeruko bidean. Idiki zazu bular ori, sar nadin nere amorez beterik dagoen zure Bihotzean: or ikasiko dut nola zu maitatu; ta, emen maitatzen zaitudala, irabaziko dut Zeruan zu beti maitatzea.

19. Bakoitzak artuko ditu emen gelditzen diran hitzetatik obekien derizkanak edo orien lekuan erran bitza bere bihotzak idarokitzen diozkanak. Aurrari erakusten zaio ibiltzen; baña ibiltzen ikasi ezker, berak artzen du nai duen bidea. Erakutsi dugu nola hitz egin Jainkoari Elizan ta Elizaz kanpoan: hari hitz egiten dakienak hitz egin biezagoko obekien derizkan bidez edo moduz.

### §. III.

## EGUN ORO HORDU LAURDEN BAT JAUNAREKIN ELIZAN EGOTeko BIDEA EDO MODUA

1. Belaunikatu zaitezeneko Elizan, ekarzu gogora zertan ote daraman Jesus maiteak egun guzia Aldareko kartzelan edo Sagrarioan. Egunduz darama bere Aitari begira: beti dago Aitaren laudario-alabantzetan, ta Aita, mundu guziaren orde, ezin geiagoraño maitatzen. Palazio eder ta leku zabalak utzirik, Sagrarioko baztertxoan dago. Hitz bi Apaizak esan orduriko, an dago preso bezala bere amorez. Bakarrik dago kasi beti: ez dirurik eskatzen du ta ez ondasunik. Bihotz bera-humil batekin erakusten digu zer egin behar dugun onak izateko ta bihotz guzitik Jauna maitatzeko.

2. Mundu guzia Zeruan sar ledin naiez dago. Guk hartaz kasi kasorik ez dugula egiten ekusten du: ta ala ere beti guri ongi naiez arkitzen da ta gure amorez urturik. Gauak, egunak, hasteak, illak eta urteak daramazki gure begira, gu ondasunez bete naiez. Haren itzuri, ta gure gogo txarren ondolik erotuak ekusia gatik, etzaio aitzen pazientzia: hordu onen baten begira dago, bere gana gu artu, bereak egin ta doaiez beterik uzteko.

3. Noizbait gure itsutasuna ezaguturik, eskatu behar diogu ar dezala bere gana gure bihotza; ta lagun dakigula oraindano galdu duguna biltzen, ta, leneko txarkerien ondoan, milla gauza on egiten.

4. Horduraño gure gaixtakerien ta bekatuen damuz beterik joan behar dugu Aita Eternoaren oñetara an hari erratera: *respice in faciem Christi tui* [(Ps.83.10.)]. Seme gaixtoa naz ni, Aita maitea; ala da: baña orra non dezun Aldare orretan, nere zorren alde, zuk nai zenuen guzia beti egin zuen zure Seme ona. Ez niri bakarrik begiratu: begira zaguzu bioi batean, orri ta niri: badugu bien artean zerekin nere zorrai eranzun. Nik nerez ez dut ezer balio; orra nere lekuan gauza guziak balio dituen. Orren ondoran ez naiz zure aserreak anbat beldur.

5. Ez dut nik nerez nondik nere oben gaixto ta kulpen barkazioa erosi edo zerekin irabazi: baña munduko bekatuen zorrak baño geiago balio dute Jesusen irabaziaz edo merezimentuak. Geldi bedi, bada, irabazi orietatik, nere obenak zor duten guzia: badakit ontzat artuko duela hori nere Jesus maite ta zuk maiteago dezun zure Semeak.

6. Eskatuko diozu gero Jesus maiteari zaramatziela berak bere Aitaren oñetara, ta eskeñi dezola bera gogotik maitatu nai lukean zure



bihotza, zere bizi ta egin uste dituzun gauza on guziekin; ta bereziko dezu egun hartan egiteko artu dezuna.

7. Azkenean eska zagozu ar zaitzala berak bere gana; egin zaitzala berekin bat, dizula bere Bihotzeko asmo galantetatik zerbait, ta utzi zaitzala bere Bihotzean sartzen; an ikasteko nola ona izan edo nola ongi bizi.

8. Gu gara Jesusen gorputzeko zati edo ezurak bezala, edo Jesusen senideak gara. Bere neke, lan, izerdi ta eriotz gogorrek irabazi zuena guri utzia daduka. Jesusen senideak bezanbeteen bagoazke haren ta gure Aita Zerukoa gana eskatzera digula onak izateko, ta bera ta Semea Espiritu Santuarekin maitatzeko behar dugun guzi guzia. Ez da erraz izain bide onetatik eskatzen diogun gauzarik guri ukatzea.

9. Biurtuko zera gero edo itzuliko zara, Aitak eman dizuna zere bihotzean sarturik idukitzeko nai andi batekin, Jesus ona gana. Emain diozkatzu eun milla esker ta geiago zu gatik egin duen ta Aldarean egiten dagoenaz; eta orrenbat zorren alde utziko diozu zere burua, bere asmo ta gauza on guziekin.

10. Sakramentu Santuan dagoen Jesus onarekin geren buruak bat egitea edo unitzea da emen izan dezakegun gauzarik andiena, ta egin alean billatu behar duguna. Hori egiten da erakutsi den otoitz edo orazio modu onetan. Ez dezatela beta dutenak egunean bein egin gabe utzi; ta, al bada-gite, egin behar dute Jesus bakarrena dagoen horduan.

11. Neka etzaitzen beti bide batez ibilliaz, erakustera noa beste bat. Begira zazu Aldarera; eta, an dagoela siñisturik zure Jesus, Bihotz eta anima guziarekin, eskazazu dizula gero baño gero gogotikago bera maitatzeko behar dezuna, bere Bihotzeko su ta gar andi hartatik.

12. Sar zaitze gero zere barrenean nola arkitzen den ekusteko. Arkitzen dituzun oben, txarkeri ta eritasunak agertu behar zaizka Jesus onari; eskatuko diozu damuz beterik, uts-egiñen barkazioa, animako osasuna ta gauza on anitz egiteko grazia.

13. Barrena garbitu ezker, sartuko zara Jesusen Bihotzean. An ekusiko dezu nola kasorik egiten ez duen lurreko atsegin ta ondasunez; ta haren atsegin ta gustoa dela bizitza gorde, humil ta estali batean bere Aita ta gu maitatzen egotea. Ez da hau munduak erakusten duena: munduak agertu nai du bere burua; ta nai du lurreko gauzen artean atsegin artu ta gusto txarrez beterik bizi. Nor gana nai dezu zuk urbildu edo arrimatu? Nork deritzazu ezagutzen dituela gauzak obeki? Munduak ote, edo Jainkoak? Artu zazu noizbait aspaldian artu behar zenuen Zeruko bidea.

14. Otoitz edo orazio modu hau noizko-nai ona da; baño uste gabe-ko nekeren batekin zaudeneko, egitekoren bat gaizki irten edo atera zai-

tzuneko; estu arkitzen zaraneko; edo nai etzenuen gauzaren bat aditu, ta barrena irakiten dadukazuneko, guztizkoa. Hori gerta dediñeko, zaude artara oitua; ta ekusiko dezu nola arintzen duen den gurutzerik astunen ta sendorrena.

15. Nai badezu jakin nola Jainkoari hitz-egin, harekin Elizan zaude-  
nean, zoaz maiz berarekin hitz-egitera; ta ikasiko dezu. Ezta Jesus ona bezain gauza maitagarririk. Haren hitzak ez dakar nekerik. Harekin hitz-egiten ez dakienak ez bere burua ezagutzen du ta ez Jainkoa zer den daki; ta onetan dago gure lan ta nekerik andiena. Ezagutzen bagenu gurekin dagoen Jesus ona, maitatuko genuke, ta hura maitatzearekin izain genuke lurrean izan ditekean atsegin ta gloria.

#### §. IV.

### JESUSEN ELIZAKO EKUSTAMENAK ONGI EGITEKO, JAKIN BEHAR DIRAN ZENBAIT GAUZA

1. Lenbizikoa. Nora zoazen ta norekin hitz-egitera begiratuko dezu Elizara zoazenean. Ohartzen bazera edo ezagutzen badezu zein Santua den gure Jaunaren Eliza ta zein andia, zein arrigarria Elizan dagoen Jauna, etzara sartuko begi ariñarekin ta beldurrik gabe. Zenbat bilduagoa zoazen, anbat obeki artuko zaitu maite zaituen Jesus onak; eta bidalduko zaitu doai ta ondasun geiagorekin.

2. Bigarrena. Zure hitzak, ezpañez erraten badiozu zerbait, izan bitez laburrak; baño beroak; ekus dezan zure Jaunak ezpañak baño bihotzak zati andiogo duela zure hitzetan.

3. Irugarrena. Edozein orduz ongi artuko du Jesus maiteak bera ekustera doana; baño jaiki bezain laster arganatzeta geiago estimatzen du. Nai badezu guztiz maita zaitzan Jesus onak, eta dizun eguna ongi igarotzeko bear dezuna, zoazkio eskatzera jaiki zaitzeneko. Ori egiten dutenak beti erran dezatela nola doakien Jesus onarekin; ta ekusiko dezu egia den edo ez orain dioguna.

4. Laugarrena. Eguerditik arratseraño bakartasun andiogoan arkitu oi da Jesus ona. Bakarren dagoen orduetan egiozu ekustamen edo bisita bat. Orduan ekusiko du zoazkiola, ez ekusi zaitzaten edo ekustea gatik Elizan edo Eliza bidean daudenak, baizik hari atsegin egitea gatik eta



zeren maite dezun: orrekin behartuko dezu begi onez zuri begiratzera, ta nekez ukatuko dizu orduan eskatzen diozuna.

5. Bostgarrena. Jai-Igandeak dira Jaunarekin guziak igaro behar lituzkeen egunak. Egun orietan maizago joan behar dezu Jesus ekustera; ta ekuste bakotxean, zaude harekin len baño luzaroago.

6. Seigarrena. Inioteriak edo yoteak eta munduak bere atsegin ta jostatzeetarako artuak daduzkan egunak dira bakartasun geiago Jesusi erakusten dioten, ta mundukoak galzen edo galzeko bidean ezartzen dituzten egunak. Al badagizu, zoaz orduan maiz bere bakartasunean lagun egitera. Zeren ori egin duten zenbaitek artu dituzte Jauna gandik artuko zituzten baño milla aldiz grazia ta ondasun geiago. Nork erran dizu etzai zula zuri orobat gertatuko, berzeak egin zutena egin ezker?

7. Zazpigarrena. Etzaitzela Elizatik atera Jakob Patriarkak esan zuena esan gabe: *Non dimittam te, nisi benedixeris mihi* [(Gen. 32. 26.)]. Ez naz, Jesus maitea, ez naz nagoen tokitik goratuko zure bendizio santua artu artean: indazu arren; ta ez bakarrik: betoz bendizioarekin batean milla ta milla grazia.. Zure grazia ta bendizioa zu maitatzeko nai ditut; eta maitatzeko, ala emen nola sekula guzian.

8. Zorzigarrena. Ezpazoazke oñez Elizara, zoaz alik maizena gogoz ta bihotzez. Nondik nai hitz-egin dezazula, hitz-egizu beti Jesus maitearekin hitz-egiten duenak bezala; edo begi ta barren bilduarekin, siñisten duenak bezala, errespetu guzia zor zaion Jaun batekin diarduela: baño eskatzen zaiunik ukatuko ez duelako uste ta konfianza andiarekin. Hitz-egiten diozun guzietan, eskatu behar diozu bereaz ta zure bihotzaz dagia bat, obeki dagizun zerearekin egin behar dezuna.

## §. V.

### MEZA SANTUA.

#### ZER DEN TA ZENBAT

#### BALIO DUEN MEZA SANTUAK

1. Jainkoaren honran egiten diran gauza guzien artean ez da bat ere Mezak adiña balio duenik. Mezako gauzak arrigarriak dira, ta misterioz beteak. Mezak eskatzen du indar guziak dituen Jaunaren eskua. Honek Mezan erakusten duen onetsmendua ta amorea ezin neurri ditekeana da; ta parerik gabekoa beraren pazientzia. Begira bekio nondik nai Mezari,

non nai ta edozein aldetatik erakusten dio zer bait dakusenari arritzeko diña ta geiago.

2. Meza da presenta bat Jaunaren eskutik artu ditugun ondasun ta fabore guziak baño geiago balio duena; ta gure bekatuen zorrak ateratzeko aski ta sobera dena. Ongi ezagutua zedukan Mezaren balio hau Colombiere len erran degun Jesusen Konpañiako Gizon andi hark: orregatik zion: «beldur naz nere baruak, nere otoitzak eta nere limosnak edo penitenziak atsegin beharrean, atsekabe eman diozaten nere Jaunari, edo garbitu beharrean, zikiñagoa utzi dezaten nere barrena: bada nere barren txarrak edo barreneko asmo ta intenzio galduak gaixta ditzake oriek eta beste edozein gauza on. Baña Meza ematen, edo enzuten dudanean, ez dut lotsarik Zeruko guziaz deitu ta galdetzeko non arkituko duten Jainkoari dakarkiodan presentak adiña, balio duenik. [3] Orduan, dio, lotsarik gabe, ta, emain didalako uste osoarekin, eskatzen diot nere obenen edo egin ditudan bekatu guzien barkamentua; eskatzen diozkat neretzat, nere adiskide ta gaizkigilleendako gogora al adiña ondasun; ta guzia deritzat guti, egiten diodan presentaren alde, ta guti estimatzea edo gutitan idukitzea dela deritzat presentak balio duen baño gutiago Jainkoari eskatzea».

4. Zori onekoak eta doatsuak bataiatuak gaudenak, ezagutzen baditugu Mezan ditugun ondasunak! Onetarako ta beste Mundurako behar diran gauzak Mezan arkitzen dira. Emendik datoz eriarren osasuna ta bekatuen barkazioa; emendik gorputz-animen gose-egarriak ilzeko behar den janaria ta edaria: emendik datoz artzen ditugun gauza guziak: eta, geiago artzen ezpaditugu, ez da zer aitzaki billa ibilli: gurea da kulpia: aski da emen gogotik billatzea nai duguna arkitzeko.

5. Mezakoan Kristo Jaunak, bitarteko onak bezala, eskatzen dio bere Aitari behar degun guzia; ta, eskatzen duenaren alde, egiten dio eriotzeko horduan egin zion presenta, edo orduan ixuri zuen odola ta eman zuen bizia ematen diotza Mezan Aitari, guri digun guretzat eskatzen diona. Nola ukatuko dio Aitak Semeari onela eskatzen dion gauzarik?

6. Zer gatik uste dezu daudela asko gaitzez, desgraziaz ta nekez beteak? Zer gatik bekatuen azpitik beñere irten edo atera gabe? Zer gatik aztura edo kostunbre gaixtoen katez lotuak? Zer gatik dabilza illun ta triste? Emazteak ezin burutu du senarrarekin, Gurasoa ezin zuzenduz dabil duen semea edo alaba. Elkar ezin ekusiz daude etxe bitako Nagusiak. Dituen diru ta ondasunak ez diote uzten aberatsari hordu bateko atsegiñik. Gutxi dira eske dagokien barrena ixiltzeko diña arkitzen dutenak. Ez da kasi bat, duenarekin, asetzen. Nondik uste dezu, galdetzen dizut berriz ere; nondik datoz onenbat lan ta neke? Nondik; ezpada behar den



lekuan ondasunak ez billatzetik? Eskatzen balitzaio, behar bezala Mezakoan, Jainkoak emango luke gure zorrak estaltzeko, neke izerdiak kentzeko ta ongi bizitzeko behar den guzia.

7. Errazu ezperen, etzigun Jainko onak guziak baño geiago ta geiagoko balio duen bere Semea eman? Nola bada, ukatuko digu, Apostoloak dion bezala, beste onetatik edozein? Ez du Jainkoak txarkeririk egiten, ain labur, maite dituen humeekin ibilizeko. Nai ezpadezu besteak bezain estu zere burua ekusi, oitu zaitetz Meza enzutera; ta Mezan egiten zaion bere Semearen presentarekin zoaz gure Zeruko Aita gana, ta eska zagozu behar dezuna, ukatuko ez dizulako uste ta konfianza andiarekin. Nola egin dezakezun erakutsi nai dizut orain.

## §. VI. NOLA ENZUN DITEKEAN ONGI MEZA SANTUA

1. Meza da, ekusi degun bezala, lurrean Jainkoaren honrarako egin ditekuan gauzarik andiena; orregatik da alik ongiena egin behar den gauza. Egondu bagia, ill zenean, berekin josirik Jesus ona iduki zuen gurutzaren ondoan, askoko zen ura urratua, nekez betea ta odola zeriolak ekustea gure bihotzak erdiratuak gelditzeko; ta begiak eta barrena argandik ezin kendu genituela. Egon behar dugu Mezan an egoin giñan bezala; bada Meza, odollik ixuri gabe, orduko gauzen berritzea da eta gauzez oroitzea.

2. Egon behar da bada Mezakoan, bazterretara begiratu gabe ta Jesusen Pasio Santuko neke-izerdiak, Bihotzaren estualdiak eta eriotz gogorra gogoan arturik. Orduan irabazi zuen guziarekin agertzen zaio Mezakoan Jesus bere Aitari; ta guzia eskeintzen dio gure zorren alde, eman dakigun guri beraren izenean eskatzen dioguna. Siñisten badugu hau egia den bezala, aisa utziko ditugu alde batera Mezakoan, orduan gogoratzen diran kanpoko gauzak; eta gogo ta bihotz osoarekin egoin gara Mezako gauzetan. Orretarako oroi gaitetzke Jesusen Amak eta onekin zegoen San Juan Ebanjelistak zer izan zuten gogoan, edo zertan zeuden gurutzeko Meza enzun zutenean, edo gurutzean nekez beterik zegoen Jesus onari begira zeuden denbora guzian: ta, egin holean, egoin gara Mezan gisa berean.

3. Ezin bestez egon behar dezu Mezatan *Ave Maria* ta ezpañezko orazioak esaten, zeren ez den erraz orrela dagoenak izatea ixillik dagoela izan lezakean ta orduan behar lukean arreta ta atenzio guzia. Otoitz horietan bazaude, utzi behar dituzu noizean bein; ta, ezpañak geldirik daudeño, adizazu zer zere Jainkoak aditzera ematen dizun; ta naiko duela ezagutzen dezun guzia egiteko asmoa arturik, hitz egiozu bihotzez eta eska zagozu behar dezuna.

4. Ohar zaitetz edo zaude begira zer egiten duen Mezakoan Apaizak. Egiten dituen gauzak misterioz beteak daude; ta guziak dira zure onerako. Misterio oriek zer aditzera ematen duten ezagutzea, ta ezaguera onek dakartzien asmo, gogo ta propositu onak artzea izan oi da Meza enzuteko biderik onena. Orretarako balia zaitetzke ori erakusten duen Libruren batez.

5. Meza behar bezala enzuteko, asko da Meza zer den ezagutzea. Meza dela bizitzeko, eriotzerako ta eternidade guziko ondasunen iturria ezagutzen duena ezin dagoke hura enzuten, ezpada beldur, ikara ta oharkera andi batekin. Gogo Mezakoan banaturik dadukanak ez daki non dagoen ta zer ari den; edo noizbait aditu badu ere, aztu zaio zer den Meza.

6. Mezaz anzirik bizi diranak edo zer den Meza bere bizian ikasi ez dutenak Mezara doaz zeren egiñak dauden hartara edo erran bidea kentzea gatik; edo datoz beste lurreko gauzaren bategatik. Orrela datozenak ez dakite zertan egon Mezakoan; eta egoin dira Elizan daudenai edo Elizako gauza ta bazterrai begira.

7. Nai ezpadezu gerta dakizun orrelakorik, eraman behar dituzu gogoan Jainkoa gandik artu dituzun fabore ta mesedeak; eta egon zaitetz guzien eskerrak ematen. Eskerrak eman gabez artu dituzunaz, artzeko daudenak galdu zenitzake, ta, zuretzat zedukatzenak eman ditzake Jainkoak artzen duenaren ezaguera erakutsiko dionari. Gauza arrigarria! Egin gin duen puntutik ongi ta ongi egiten ari zaiku Jainkoa, maite gaitu, besoetan bezala gakarzi; ta ez gara gu, eskerrak bad-ere, bein ongi emateko!

8. Artu izkitzu bada gogoan Mezan zauden denboran, Jainkoak egin derezkitzun onak eta faboreak; oroi zaitetz zenbat aldiz hura utzi ta zere burua galtzeko zeunden bidetik atera zaituen. Ekusi zazu zenbat gaixtakeri, zenbat oben ta kulpak barkatu diezkitzun. Bateo gabe utzirik, zu bezain onak izain ziran anitz milla Jentil ta Turko, bataia zindezen nai izandu zuen. Doktrina Erakusle, Predikari ta Konfessore onak diran errian edo errialdean egin zinduen. Zure onerako grazia dariola dago: ta beretu naiez zure bizi guzian ibilli da. Egun oro har gandik artzen dituzun ondasunen eskerrak emateko, ez da aski Mezako denbora. Ekusi zazu bada,





bizi guzikoak gogoan artzen badituzu, izain dezun edo ez zertan egon Mezakoan.

9. Guziak gogoan artu, ta ondoan ausardiarekin edo lotsa ta alkerik gabe erran behar diozu Aita Zerukoari: *«anitz da, Jauna, nik zuri zor dizudana. Esain diozu gero Semeari ere: zer emain dizut nere zor andien azpitik ateratzeko behar nuena ta geiago eman didazun Jesus on maitagarria? Ori, orra milla eskerekin batean, nere bihotza. Guziaz gatik barkatu arren, Jesus maitea; bada ekusten dezu eman ala ematen dizudala».*

10. Gogoan ar ditzakezu Mezakoan zere txarkeri ta uts-egite guziak. Ez da noaski egunik, ez eta egunean ordurik ere, zure uts-egiteren bat edo geiago ekusten ez duenik; eta Jainkoak ez pazenduzka bere eskutik, egiten dituzunak baño, eginen zenituen uts-egite ta kulpak geiago lirake. Eska zagozu egin dituzunen barkazioa; ta, berriz ez uts-egiteko behar dezun laguntza ta grazia.

11. Zerbaiten beharren arkitzen zara? Ezin burutu dezu zere Gurasoekin edo humearekin, zere adiskide, auzokide edo beste norbaitekin? Zoaz Meza enzutera; ta, enzuten zauden artean, eska zagozu Jainkoari eskura dakarrela zure etsaia; ken dezola zure alabari bere arinkeria; molda dezala zure senarra; zabal ditzala andrearen errai estuak; ondu dezala gaizki dabillen zure Semea edo Senidea, eraman ez dezazun orren nekezko bizia. Balizake, alferkeriz edo geiegi naiez gaizki azi dituzun zere itxekoak. Eska zagozu Jaunari zuzen ditzala zure utsak eta bera dezala gogortuaz doan zure humearen bihotza. Ez ditzan uka eskatzen diozkazun gauzak, eskatu behar diozkatzu zure gatik Aldarean arkitzen den bere Semearen izenean.

12. Nekeran batekin arkitzen zara? Ezin garaituz zabilza zere ekarrai edo natural txarra ta aztura gaixtoa? Nai etzenukean oroitzapen edo gogoratze ark estutzen zaitu edo inguruan zarabilza? Orrenbat nekeren artetik atera ta Zeruko bidean zuzen ibiltzeko, zer egin dezu? Eskatu diozu Jainkoari lagun dakizula ta dizula bere eskua? Zenbat Meza enzun dituzu orretarako? Etzaitzu orretarako behar dezun gauzarik ukatuko, eskatzen badezu Jesus, Jainko ta Gizon egiazkoaren odol Santu ta bizia gatik.

13. Meza gatik ezpaliz, ez lizake, dio Doktore batek, gaurgero mundurik. Aserre dagoen Jainkoaren ezpata Mezak daduka magian. Lenbaitlen gu galduak ekustea gatik, galdu nai luke Meza gure etsaiak: orretarako, Hereje gaixtoak biribillaturik, egin du egin ala: baño ez du nai duenik osoro eginen, Ante Kristo galdua etorri artean; bada Ante-Kristok izain du Mezaren kontra onen figuraren kontra Antiocho gaixtoak izan-

du zuen eskua: & *robur datum est ei contra jugē Sacrificium propter peccata.* Orduan Elizak lutuarekin egoin dira, dio S. Hipolito Kristoren Martire Santuak. Ez da Mezarik izain Elizetan; Elizetatik faltatuko da Jesus onaren Gorputz ta Odol Santua; ta etorriko da azkeneko eguna.

14. Gauza arrigarria! Geienak aditzera ematen dute naiago lukeela Mezarik ezpaliz Elizetan; bada sartzen ez dira hura enzutera ezin bestez baizik eta mandamentuaren kateak tiraka bezala dakartziela. Ezer ez paliz baño, kaso geiago ez dute egiten ondasun guziak dakartzen Mezan. Mezan arkitzen da zorrak ateratzeko bidea, anima eriaeren osasuna, beharren dagoenaren janari ta edaria. Aski lizake Meza bat ongi enzutea Purgatorioko surik ez ekusteko. Baña geienak orrelakoren berririk ez dute; Mezan daude zertan dauden ez dakitela: lenbait len Elizatik atera naiez daude; ta, an dauden artean, zor zarrak atera beharren, berriak egiten dituzte; ta, ondasunak ez artu naiez, aberastu nai zituen Jainkoaren itzuri doaz.

15. Meza zer den dakitenak eta Jesus ona maite dutenak, enzuten daudenean, egoin dira, Jainkoarekin daudenak bezala, beldurtasun ta atenzio andi batekin. Konsagrazioko hitzak Apaizak erran orduko, milla ongi-etorri egiñ behar diote Jesus maiteari. Guri egitera datorren ongia gatik eman behar zaizka beste anbeste esker. Erakutsi behar zaio al den damu ta sentimenturik andiena gure amoreak arrerazi diozkan bidegabe ta txarkeriak gatik. Eranzun behar diogu ziñezko nai ta amore andi batekin berak digun Bihotzeko ongina ta amore bazterrik gabekoari. Azkenean eskatuko zaio erakus dezagula Bihotzez berak egiten duen guzia; ta digula ori egiteko behar dugun grazia.

## §. VII.

### NOLA JAUN ANDIA KOMUNIOAN ARTU BEHAR DEN

1. Aldareko Sakramentua da Sakramenturik andiena; ta gure egitekorik andiena da Sakramentu onetan dagoen Jaun andia artzea. Jaun hau artzea edo komunioa da, San Juan Krisostomok dionaz, Jainkoa berriz gizon egite bat bezala. Ekusi zazu zer egitekoa den komulgatzea; ta zein garbia egon behar duen Jauna artu behar duenaren barrenak. Lenbiziko aldian artu zuena Birjina zen; ta Birjina, len ta gero, argia bezain garbia.



Zertara zoazen ezagutzen bazenu, etziñake noski komuniora urbilduko; ta, urbilzen baziña, joain ziñake joan oi zeran baño obeki prestatua.

2. Munduko guzietatik batek baizik Jaun hau artu behar ezpalu, urte bat balu ere komuniora prestatzeko, guti dela iduriko litzaioke; Jainkoa artu behar duen mihian ez luke zillegi ez den gauzarik artuko; aterako lituke bere baruak; duenetik emain lioke beharrean dagoenari; penitentiak nekaturko luke bere burua: ta guziaren ondoan, negar anitz ixuria gatik, ez luke usteko behar duenaren erdirik egin duela komuniorako. Anitzek Jauna komunioan artua gatik, ez du bakoitzak artzen gutiago. Nork-nai behar du bakarria baliz adiña kuidoarekin bere burua prestatu komuniorako.

3. Komulgatzeko asmoa artzen dezunetik egin behar dezu kontu erraten zaitzula len denbora luzean komulgatzeko zeudenai Diakonoak erran oi ziena. *Sancta Sanctis*: begira: Santuentzat gauza Santak; edo, San Juan Krisostomok dionaz, Santuak ez diranak ez datozela komunio Santura. «Ez du esaten Elizak, dio Santuak, ez dakarrela komuniora datorenak bekatuaren loirik eta itsustasunik; datorrela, esaten du, Santu egiñik». Betor bada graziaz betea, obra on anitzekin, ta birtutez anima edertua ta apaindua dadukala.

4. Ez du gutiago San Ambrosiok eskatzen komunio on baterako. «Bizi guzian, dio Santuak, gogoan idukazu nor artzeko zauden, ta zaude beti orretarako egiñ ala egiten». Bein baizik artu behar ezpazenu ere, egunoro artzeko bazeunde bezala bizi behar zenuke; bada ez luke beiñ ere Jaun hura artu behar, egunoro ar lezakean bezala, ezpadu urtea eraman: *sic vive, ut quotidie merearis accipere: qui non meretur quotidie accipere, non meretur post annum accipere*.

5. «Orrela —esain dezu—; obe izain da ezin bestez, urtean bein, edo berandutik berandura Jaun andia artzea». Hitz-egiten dezu ez dakizunak bezala. Zuk diozuna egiten dutenak izan oi dira gaizkiena bizi diranak. Askotan edo maiz Jaun hau artzen dutenai galdegiezu nola doakien artu duten bidean; ta adituko dezu oitura ta kostunbre gaixtoak garaitzeko, etsaiaren eskutik iges egiteko, ta egunoro zuzenago Zeruko bidean ibiltzeko, ez dutela maiz komulgatzea bezalako biderik arkitu. Orietatik zenbait gaixtatzen badira, asi oi dira gaixtatzen bakanago komulgatzen asi ziranetik.

6. Ohartzen bazera maiz edo askotan Jauna artua gatik len bezala, gaizki ta ondu gabe bizi zarala, ondu nai ba dezu, ez dezazula utzi maiz Jaun hau artzea; utzizatzu ongi konfesatzea eragozten dizuten gauzak eta garbi zagozu zere barrena or artzen dezun Jaun andiari. Gaixtoa bazera,

ondu zaitzez askotan komulgatzeko, edo behar bezain ona ezpazera, ar zazu maiz gauza guzien Jabe den Jauna; dizun zere burua on-ona egiteko behar dezuna.

7. Askotan elkar ekusten duten adiskideak maite dute elkar; ta aisa elkar anzten dute elkar gandik urrun dabilzanak edo gutitan elkarganatzan diranak. Ona izatea Jainkoa maitatzea da: Jainkoa maitatu nai duenak ez du onen igesi ibilli behar: ta, al egiñean, ibilli behar luke gogotik ere Jauna utzi gabe. Ken bitza Jainkoak ezin ekusi dituen txarkeriak; apain beza, alik ongiena, bere barreneko hostatua; ar beza alik usuen edo maizena; eta ekusiko du nola bera maitatzen erakutsiko dion eta zenbat ondasunekin utziko duen.

8. Janari onak ez du barren garbian gaitzik egiten: edo egiten du zeren estudio geiegirekin hura egosteko behar den beroa edo sua estomagotik kentzen den. Ez dio kenduko Medikuek gaitz egiten dionari bere janari ona gaitzik ez dagion: garbituko dio loitu zaion barrena: edo kenduko dio behar duen sua barrendik kentzen dion estudioa; ta aginduko dio ar dezala berriz ere bere otorduetan. Komunio Santua da animaren janari ona: on egiten ez dionari aginduko dio bere Medikuek Konfesoreak garbi dedilla, loitu bada, konfesioko iturrian; edo utz ditzala behar bezala bere hostatua Jainkoari apaintzera uzten ez dioten egitekoak; eta egin dezala, alik maiz ta ongiena, Komunio Santuko otordua edo barazkaria; nai badu on dagion ar ditekean janaririk onenak.

9. Aski da Komunio bat nornai Santu egiña uzteko: Komulga zaitzez bada maiz, orren laster ezpad-ere, azkenean Santu egiña edo ondua beintzat geldi zaitzen. On egiten dien gauza artzen duten eriak, artuaz badoaz, beranduago bad-ere, sendatzen dira: Komunio Santua animaren eritasuna kendu ta betiko osasuna ematen duen gauza ta erremedioa da *pharmacum immortalitatis*. Zoaz bada maiz artuaz orrenbat on dakarren gauza; ta ez dezazula kasorik egin bakan baizik ez artzeko esaten dizun etsaiak.

10. Baña begira: ez arren janari ta erremedio on hau askotan artu len bezain eri gero gelditzeko. Jesus onak sendatzen ez dituenak nork sendatuko ditu? Maiz Komulgatu ondoan, Jainkoa ziñez maitatu beharrean, gaizki edo epel gelditzen diranak; eta gelditzen diranak leneko kondizio galdu, aztura txar ta uts-egite gaixtoekin sendatuko ez diralako beldurra-ekin geldi ditezke. Nola alabaña sendatuko dira Medikuek ta erremediorik onenak ezin sendatu dituztenak?

11. Zuzen etzebilzanean Israelitak, etzien lurak ematen eman oi zuenaren laurdenik; eta ematen zuena edo zekarrena, geiena beintzat, etsaien eskuetan gelditzen zen. Bidaltzen zien gose gogorarekin erakus-



ten zien Jainkoak bere pausu makurrakin irabazten zutena; edo lurraren laburtasunarekin kastigatzen zituen gaizki bizi ziran, Israelitak. Baña lurraren laburtasuna ta gosea ez da Jainkoaren kastigurik andiena: andiena da lurrak ematen dienaz ez baliatzea. Lurrak emain dizue, esaten die Jaunaren izenean Profeta Santuak, matsa ta garia: baña matsak, dolareko ardatzarekin estutua gatik, ez du emain, beintzat indarrezko ardorik; eta gariarekin egiten den ogiak, jaten ezpazenu bezain indar gutirekin utziko zaitue: *auferet robur panis*.

12. Hau da gertatzen zaiena Komulgatzen diranetatik askori. Kristo Jaunaren Gorpuz ta Odol Santua artu ondoan, indarrrik gabeko janari ta edaria artu balute bezain gosea ta egarri andiarekin gelditzen dira. Jaten dute ta edaten berriz ta askotan Komunioko maiean; baña maiera dirala ere ezagun etzaie: len bezain indar gutirekin arkitzen dira. Mai onetan bokadu bat artzen dutenak leoiak bezain indarsuak gelditu behar lukee, San Juan Krisostomok dion bezala, infernuko etsaiak garaitzeko: *tanquam Leones ignem spirantes ab illa mensa recedamus, facti, diabolo terribiles*; eta gelditzen dira otsoak ortzekin erraz urratzen dituzten bildotsak bezala: bada leneko aztura ta kostunbreak garaitzen ez dituzte; ta edozein tentaziok garaitzen ditu berak. Ekusi dezagun, kentzeko, nondik datorren gaitz edo kalte hau.

13. Askotan Komulgatzen diran zenbaitek ez dute komuniotik indarrrik ateratzen, zeren Jauna artzen duten, barrena garbitu, moldatu ta apaindu gabe. Behar ez bezala barrena bete adukanari ez dio onik egiten den janaririk onenak; eta, indar berriak eman lekuan, kentzen diozka zituenak ere. Behar dezu, bada, Komunio Santuak on dagizun, lenik begiratu zertara zoazen ta nor artzera, ta oni zor zaion bezala zere barrena prestatua eramateko. Orretarako den liburuen batean nola ori egin ikasiko dezu.

14. Liburrik ezpadezu, siñistu zazu ta ikusi nor datorren zu gana, ta egizu zure Fedeak eragiten dizuna: *crede, & fac quod vis*. Siñisten dezu ogiaren estalkiaren edo espezien azpian datorkizuna dela jaio zenean oiaiez estali ta loturik Amaren besoetan egondu zen Jainko ta gizon egiazkoa? Siñisten dezu ori dela Aingeruz, bere Jainkotzat ezagu zezaten, Artzaiak billerazi zituena? Ori dela, Jainkoak bidalduzikako izarraren ondoren zebilzala, iru Erregeak bere Erregetzat ezagutu, adoratu ta ondasunez beterik utzi zutena? Siñisten dezu ori dela hitzketa batean Samaritana mudatu zuena; ta begiratze batekin San Pedroz, Magdalenaz ta bertze edozeñez nai zuen guzia egiten zuen Jesus maitagarria? Siñisten dezu ori dela aizeaz, etsaiaz, eritasunaz ta elementu guziaz nai duena egiteko eskua

duen Jainkoa? Siñisten dezu zuri datorkizula, ongi naiez, txarkeriak kentzera, osasuna ematera, ondasunez betetzera ta azkenean berekin bat egitera? Egizu bada siñiste orrek eskatzen duena: *Crede, & fac quod vis*.

15. Siñisten dezu ori dela Zeruak eta lurra egin zituen Jainkoa: ta ori dela Zeruan Aingeruak, lurrean Errege, Obispo ta diran Gizonik andienak, baita berak infernuan erretzen daduzkatzen etsaiak ere, gauza guzien Jabetzat eta bere Jainkotzat ezagutzen dutena? Siñisten dezu Errege andi zure Jainko hau, Aldarea ta Aldareko Aingeruak utzirik, datorkizula, komulgatzen zeranean, zere bihotzera; ta datorkizula zu ondasunez betetzera ta zurekin egoteaz atsegin artzera? Ez dut uste orrenbat gauz andi siñistea besterik behar dezula egiñ ala zuk egiteko, oraindaño koetan baño, egiñen dituzun komunioetan obeki zure barrena garbitu ta prestatzeko: *crede, & fac quod vis*.

16. Baña ala ere gogor arkitzen bazera Jauna artzereko zaudenean, ekartzu gogora ori bera dela Mundu guziaren kontuak artu behar dituen; ta agian egun gutiren buruan zureak artuko dituen, eternidade bateko atsegin andia zere lan onen alde emain dizuna, edo, gaixtoak egin badi-tuzu, ta orien azpitik zere burua atera gabe atera bazera mundutik, sekulako sua ta nekea eman behar dizuna. Jaun hau da, bokadu egiñik otamen batean, zure barreneko gelan sartu nai duena; ez ondasun eske, baizik nai dituzun guziak zuri eskeintzera, bere adiskidetasun ta Zeruko gloriarekin. Ezaguera galdu ezpadezu edo sinistea, ez da erraz egin oi dituzun baño gauz on geiago zuk ez egitea, zere Jaun hau artu behar dezunean: egiten ezpedituz, izain da zeren onelako gauzak gogoko ortzekin austen ez dituzun, edo hastiro erabilli gabez.

17. Munduan zebillenean, zenbait etxetara, Apostoloz inguruturik, joan zen bezala, Aingeruz inguruturik zure etxera datorrela Jesus ona bazeneki, zer etzenuke egiñen etxe bazterrak garbitzeko eta hark artu behar duen gela apaintzeko? Ezpazenu apaintze onek eskatzen dituen gauzak, billatuko zenituke Adiskideen artean: ta egin ala egiña gatik, behar denaren laurdenik egin etzenuela iduriko litzaikezu. Orduan artuko zenuena datorkizu; ta Aingeruz ingurutua. Begiz ekusten ezpadezu ere, komulgatzen zaranean, zure begiak ekusten dutela sartzen baliz baño, geiago zor diozu estalirik zere barrenean sartzen zaitzunean. Garbi zazu bada barren guzia; ta ezpadezu zerekin apaindu, zoaz beraren Amagana; zoaz zere adiskideetara edo Zerukoetara, ta eska zaiezu dizutela bere Jauna artzereko dagoen zere bihotza apaintzeko behar dezuna: ta eska zaiezu erakus dezazutela nola lan ori egin; bada zure txarkeriaren ta Jaunaren



anditasunaren jakintsun dira; ta badakite zer egin ditekean alik ongiena Jesusi hostatua prestatzeko.

18. San Buenabenturak dakartzi komunio santura Kristauak eraman oi dituzten edo eraman ditzakeen zortzi gauza edo motibo. Batzuek artzen dute, dio Santuak, Jauna komunio santuan, sendatzea gatik. Eri dagoenak nai du sendatzen dakien Medikua; ta al badu, billatzen du sendatze onenak egiten dituen. Aztura gaixtoz ta kostunbrez eri zauden anima, ez da komunioan arkitzen den Medikua bezain sendatzalle onik. Baditu eritasun guzien erremedioak; eta sendatu nai duenik ez du uzten sendatu gabe. Zoazkio ona izateko gogoz beterik: erakutsi behar diozkatzu beren arinkeriak gatik uts-egite anitz egiten dituzten ta eri dauden begiak. Eska zagozu oriek bilduak erabiltzeko behar dezun erremedioa. Ager zagozu hitzketa geiegi egiten duen edo behar bezala hitz egiten ez dakien zere mihia. Ager zagozu behar ez litukeen gauzen ondoren dabilen zure bihotza. Eska zagozu labur dezala ta zuzendu zure mihia; ta, behar ez diran naikunde txarrak kendurik, dizula bera maitatzeko behar dezun gogo bizi ta amore andi bat. Siñis nazazu, ez daki ziñez ta gogotik eskatzen zaion gauzarik ukatzen. Baña begira; nai badezu senda zaitzan, ez utzi egin gabe esaten edo aditzera ematen dizun gauzarik.

19. Bertze zenbait komunioratzen dira beren burua zorartetik ateratzeko asmoan. Zorrez beterik dagoenak baleki bere errian duela, eskatu ezker, behar duen guzia emain diona, estutzen dutenak ixiltzea gatik, laster billatuko luke: Bekatuen zor andiarekin arkitzen zara? Aitaren Justizia artzekoen ondotik dabil? Ez dezu nondik eman zor diozuna? Zoaz Komulgatzera; zoaz Jesus ona gana. Ondasun guzien Jabea da. Behar duena nori nai emateko, ez du eskatzea besterik nai. Eun aldiz eskatua gatik etzaitzu aserretuko. Bera bere Aitari zere zorren alde ematen badiozu ere, onzat artuko dizu.

20. Beste batzuek komulgatzen dira, dio Santuak, behar dutena izatea gatik. Emen bizi garan artean izain ez gara nekerik gabe. Nekeak garaitzeko behar dugun guzia Jainkoaren eskutik datorkigu. Etorri daki-gun, goazen maiz berari Komunio Santuan eskatzera. Animak Infernu guzia, mundu eroa ta bere gorputza bere kontra ditu. Irurak dabilza nondik galduko duten. Batean tentazioaren suan erretzen dago; bestean gauz onak egiteko gogo ta indarrik gabe: askotan illuntasunez ta tristuraz beterik arkitzen da; ta zenbait aldiz bere buruarekin ezin burutu duela. Galdu nai ezpadu, bijoa ongi prestatuak Aldarean dadukan Jesus ona gana. Atozte, dio onek; atozte ni gana nekatuak arkitzen zarazten guziok; atozte atsedetera ta indarrak artzera. Komunioko ogia jaten duenak ar ditzako

ke sekulako indarrak: *qui manducat hunc panem, vivet in aeternum*, eta garai ditzake diran tentazio ta nekeak. Emen artzen den nere Odol Santua ardo ta edaria da Adanek zikindu zuen odolaren su-gar guziak iraungitzen ta itzalzen dituen, ta Aingeruena dirudien garbitasun ederrarekin animak uzten dituen: *vinum germinans virgines*.

21. Besteak Jauna artzen dute, bitarteko on bat izatea gatik. Errege ta Gizon andietara ez dira agertzen, beintzat bakarrik, fabore baten ondoran dabilzan guziak. Billatu oi dute hitztun eder edo bitarteko onen bat: eta, berez izain etzutena, erdisten dute arekin batean. Beldur bazera edo lotsa Zeruko Aitari nai zenukeana bakarrik eskatzeko, Aldarean dadukazun haren Seme Jesus ona nori-nai laguntzeko dago. Ez dezu Aitarentzat hitzun ederragorik, ez eta bera bezalako bitartekorik ere arkituko. Onen izenean eskatzen zaion gauzarik ez duela, dio, beraren Aitak ukatuko. Eska zaiozu bada Jesusen izenean noiz-nai nai dezuna; baña nioiz ere baño uste edo esperanza geiagorekin eska dezakezu bera Komunio on batean artzen dezun aldian.

22. Beste zenbait komuniara doaz eskerrak ematea gatik. Ongilleak nai oi ditu egin dituen on edo faboreen eskerrak. Eman oi diozkate artu dituztenak; beintzat uste badute bera gandik berriren bat. Ezpadakite berak, billatzen dute nork hari hitz egin. Gizonen faboreak ez dute zer ikusi gutatik edozeñek Jainkoari zor dionarekin. Izatea bera berari zor diogu geroztik egin digun guziarekin. Zenbat den hau, ezin erran genezake. Oraindik asko geiago artu uste dugu bera gandik. Ez da erraz guk hari eskerrak ongi ematea. Esker oiek emateko billa dezagun Komunioan Jesus, gure bitarteko ona. Eskatu ezker eginen digu onenbeste: ta, egiten duen denboran, utziko du bere Aita beste anitz gauz on guri egitera behartua.

23. Zenbait komulgatzen dira Jesusen Aitari present on bat egitea gatik. Ongi gillearen begietaratzen ez dira gizonak hitz eta esku utsekin: al duten presentarekin agertzen zaizka. Zenbat present andiagoa, anbat obeki artzen ditu presentaren artzalleak. Asko zor diogu guk gure ta Jesusen Aitari. Onen begietan agertzera ta artu ditugun gauzen ezaguera erakustera behartuak gaude. Orduan nai badiogu zerbait eraman, komunio santuan arkituko dugu nai dugun guzia. Gu gatik edo gure onerako Aldarera datorren Jesus ona da Aitak ongiena artzen duen ta geiena estimatzen duen presenta. Onekin bagoaz, ongi artuak izain gara. Egunoro ezpad-ere, zoaz Komunio maiera maiz; eta, egun oro haren eskutik artzen dituzunen alde, eramaiozu bere Seme guztiz maitagarria: ta eska zaiozu zure izenekoari ta zure bitarteko izandu diran Santuei diela egin dizuten



lan ona gatik atsegin edo gloria zati berri bat, eta ez dezala geldirik iduki anbat aldiz zure onerako zabaldu duen eskua.

24. Besteak beharrean daudenai laguntzea gatik komulgatu oi dira. Bekatu larririk gabe baña zenbait zorrekin ill ziranak, zorrak atera artean, Purgatorioan suz erretzen ta agitz nekatuak daude. Nai badugu, arin ditzakegu orien nekeak, eta zorrak atera. Gure nekez ta hilduraz irabazten duguna balia dakieke guk nai dugunai. Nekatzen ta erretzen daudenak Jesus onaren humeak dira ta gure senideak. Senide bat lurreko suan erretzen ikusi ezker, asaldatuko giñake ta ez giñake geldituko andik libratu artean. Ango sua eun aldiz ta geiagotan emengoa baño gogorragoa da. Zer bihotzek orrela nekatuak ekusi ditzake luzarago nekatzen aisa daginean zerbait ez egitea gatik? Egizu al egiña orien onerako; ta komulgatzen zaranean, eskaiozu Jaunari, artu dezun Jesusen irabazi-merezimantuak gatik, atera ditzala lenbaitlen beren zorrak gatik Purgatorioan erretzen dauden guziak; eta lenbiziko lekuan oroi dedilla zuk geiena zor diezunez.

25. Badira guzien artean batzuek, maitatzen duten baño, geiago Jauna maitatu naiez komulgatzen diranak. Oiek dira noski zuzenen dabilzanak. Jesusen Gorputza artzen dugunean, bien bihotzak bat egiñak gelditu behar dute, dio Santo Thomasek: *datur ad omnimodam unionem*. Ala egiñen dira elkar maitatzen badute; Jesusek maite gaitu, eta guk hura maitatzeko, ez da ongi komuniatzea bezalako biderik; bada guk hura maitatzeko Zeruko suan berotzea da; ta Jesus, Komulgatzen garanean, Zeruko su guziarekin sartzen zaiku barrenaño. Arria baño gogorragoak gara, orrenbat su barrenean dadukagula, berotzen ezpagara.

26. Zenbat nai digun adirazteko, bularra idirikirak erakusten digu gure amarez beterik dadukan bere Bihotza; ta eskatzen digu guk hari ez ukatzeko gurea: *præbe cor tuum, fili mi* [(Prov. 23.)]. Gure bihotza izatea gatik, Aldarera etoririk dago; ta, gu beratzeko, ori aski ez dela ikusirik, egin da bokadu ta sartzen zaiku bihotzeraño. Ah! Zenbat zor diogun Jesus onari! Berarenak gara garan guzia. Ez dugu zor ez diogun gauzarik. Duguna ta geran guzia emana gatik, etzaiku artzekorik geldituko. Non da bada arpegia, eskatzen digun bihotz txar gurea ukatzeko? Zerutik eskatzearekin, edo berak eskatu gabe, gerok ematen geniola, artzen baligu, geiegi egiñen liguke: zer izain lizake bada, lurrera etorri, gure barrenean sartu ta eskatu ondoan ukatzen bagenio?

27. Jesusen Bihotzaren debozioa dutenak komunio santuan dute anitz gauz on egiteko mugon ta deretxa. Ikusi zazu hastiro, zer ari den zerekin dadukazun Jesusen Bihotza. Egizu kontu begiratu ondoan erraten dizula: ken ezazu onelako uts-egite, halako falta, ta beste begietan ematen

didan gauz ori. Emaiozu baiezkoa ta erraiozu lenago ez kenduaz dezula damu: barka dagizula oraindañokoa ta beraren lagunzarekin biziko zerala, berriz orretara gabe.

28. Ekusi zazu zein beraa, zein manso ta humilla den. Egiten zaizka anitz txarkeri; ta ixillik dago. Zure bekatuak eta mundukoen komunio gaixtoak dira urratzen duten lantza ta arantzak: eta urratze guziarekin ere, ez du ai! bat ematen. Premiatua daduka bere Bihotza Mundu guziaren eskutik artu dituen bidegabe, dongekeri ta sakrilejioen gurutze pean; ta alere ez da aserretzen. Aita maitatzen dago; ta guri ongi naiez, zer egin ez dakiena bezala. Lotsaz arrituak bezala daude onekin dauden Aingeruak. Aingeruetatik ikasi zazu nola egon Jesusen begietan ta Jesus zere barrenean daukazun artean: ikasi zazu Jesusen Bihotzean Jainkoa maitatzeko eta ona izateko jakin behar dezuna.

29. Jesus artu ondoan ezpadezu zer hari erran, edo ixillik bazaude, ez dezu anitz maite Jesus: bada ziñez onesten ta maite diranak, elkar gana ezker, badute zer elkarri esan. Onetsia baduzu, artu orduko, erraiozu: *inveni quem diligit anima mea, tenui eum, nec dimittam*: arkitu du nere animak billatzen zuen Jainko Gizon Jesus maitea. Lotu natzaio; besoen artean bezala dadukat: ez diot largatuko, ez dut, ez, beñiere utziko: Jesus maitatzeko izain da gaurgero nere egitekoa: ez dut ez, oraindaño bezala, ezer ez bategatik azturik idukiko.

30. *Deus meus, & omnia*: ezin bestez ibilliko naz lurreko gauzen ondoan; ta, utzi al ditzakedanak aisa utziko ditut Jesus ona gatik. Jesus da nere Jabe ta Jainko; Jesus da nere atsegin ta gusto. Jesusen Bihotzean nai nuke sartu ta bizi. Jesus badut, badut behar dudun guzia. Jesus izain da gaurgero, nik artuko dudun bidea. Onen ondolik nai dut ibilli berak bidalzen didan nekeko gurutzearekin. Jesus izain da bide onetako argia. Jesusek esaten didan aldetik artu nai dut; ez dut utzi behar Jesus onak adirazten didan gauzarik. Jesus izain da nere bizitza. Artuko dut maiz Komunio Santuan; ta, uzten didan graziaren indarrarekin, egin behar dut egin ala etsaiak garaitzeko, bekatuaren eritasuna aienatzeko, ta bizirik edo grazia galdu gabe Zeruan sartzeko. Hitz batean; Jesus izain da, ni gatik eraman dituen neke ta bere Bihotzeko amoreta gatik, nik beti maitatuko dudana ta behar dudun guzirako billatuko dudun Jainkoa.

31. *Dilectus meus mihi, & ego illi* [(Cant. 2.)]. Nere onetsia neretzat eta ni arentzat. Jesus, nik maite dudana, neretzat, eta ni, hark maite nauena, arentzat. Anitz nai diot ezin geiago nai didan ta ni gana etorri den Jesus onari. Nere bihotza nai nuke nere naiez urtzen dadukan Jesusen Bihotzeko suan auts egiña ekusi. Nere bihotzeko Jainkoa, nik, aberats iza-



teko, ez dut bertze ondasunen beharrik; zu bazaitut, Jesus maitea, nerekin ditut ondasun guziak; zu beste zatirik ez dut nai sekula guzian: *Quid mihi est in Colo, & à te quid volui super terram, Deus cordis mei, & pars mea Deus in aeternum!*

32. Onelako edo bertze al dituzun guziak errain diozkatzu Jesus onari Komulgatzen zaranean: baña errain diozkatzu ziñez ta bihotzez. Nola nai errana gatik etzaio deus bihotz onez erraten bazaio. Ez hitzeta-  
ra, bihotzera begiratzen du Jesusek. Baña ez du zure bihotzak ixildu behar Jesus joaten zaitzuneetik. Maite dutenak elkar elkarrez oroitu oi dira, elkarrekin ez egona gatik; eta, oroitzearekin, berritzen zaie elkar ganako naia ta amorea. Izan zaitez Magdalena bezala. Maite zuen Jesus; il ta ere gogoa-  
an zedukan beti; ta, besterik ezin zuenean, haren Gorputz Santuaren billa zebillen. Komunioa bukatu ta Jesus joana gatik, ez dezazula, egiñ alean, gogotik utzi; billa zazu, alik lasterrena, haren Gorputz Santua ta bera guzia Komunio berri batean.

## §. VIII.

### ZER DEN ZIÑEZ JESUS MAITATZEA, TA NORK ONELA MAITATZEN DUEN

1. Ez du benaz maitatzen Jesus ziñezko birtuterik ez duenak: eta Jesusek erakusten duena egiten ez duenak ez du benazko birtuterik. Birtutetsuen izena dutenen uts-egiteak edo faltak izen ori ez dutenen falta ta uts-egiteak baño, kalte geiago egiten diote birtuteari. Izen utsarekin arkitzen diranak asko nai diote beren buruari; billatuak nai dute izan: nai dute etorri edo gerta dakien guzia beren gogara edo erara; eta ez dute nai egin dakien irririk beñ ere. Hitz egiten badaude, nai dute siñestu dezaten guziak orien errana: siñisten ezpazaie, edo sumintzen dira edo gelditzen illun ta belz. Ez dute nioren behartasunik ta uts-egiterik ikusi nai; ta, dakustenean, badute zer eraman oriekin bizi diranak edo oriek behartzen dituztenak.

2. Birtutedunen izen utsa dutenak ezpadira osasuntsuak, nagitzen dira, alferkerian daude zenbait aldiz, ta ongi egiñen diela uste dutenaren ondoan ibilli oi dira. Beren gaitzak baizik ezertan ez daduzkate; eta beren buruari ongi begiratzen diote, baña besteekin gogorak dira. Geiegi iduritzen zaie bertzeren edozein gauza. Batzuetan ez dute iñorekin hitz-egin nai: gelan sartuak daude; ta, etxetik ateratzen badira, arpegi illun batekin

dabilza ta bakarrik; eta aski da orduan nor-naigana urbilzea, bera bezain illun edozein uzteko.

3. Zer den ziñezko edo egiazko birtutea ez dakien batek, ikusten baditu birtutedunen izena duten oietatik zenbait, bazuen ere, utziko du laster birtutea beretzat billatzeko gogoa: bada usteko du, birtutearen bidea artu ezker, beharko duela bakartasuna artu bere laguntzat; ibilli beharko duela beti kopeta edo bekoki belz, eta bihotz illun batekin; uste-  
ko du berekin ere ezin burutuz ibilliko dela, ta, harekin bizi diranai era-  
man ala ta zeregin geiago eman bearko diela. Arkitzen ezpadu dena den bezala erakusten dionen bat, ez du naiko oñik sartu birtutearen bidean.

4. Onelakoen utsegiteak alde batera utzirik, begira zaiezu behar bezala bizi diranai. Bizitza galduren estalki gaixtoa da gaixtoen bizitza; ez da aski hau edo hura behar bezalakoa ez izatea zu gaixtoa izateko. Zu ona ezpazera, izan dedilla bestea nai bezalakoa, galduko zera. Galdu nai ezpa-  
dezu, egizu behar bezala bizi diranak eta birtute egiazkoa dutenak egin oi dutena. Jakin nai badezu zein diran oriek, atoz nerekin.

5. Jainkoa maite ez duenak ez du Zeruko birtuterik. Beharrean dau-  
denai dezun guzia emana gatik, esaten du San Paulo Apostoluak; emana gatik gero sutan erretzeko zere gorputza, ez dezu ezer egiten, maitatzen ezpadezu zere Jainkoa. Jainkoa maite duenak ez du, dio berak, natural gogorra edo ez da natural gogorraren gogara bizi: egiten zaizkan txarke-  
riak ixillik daramatzi; ez du besteren onaz atsekaberik; ez da behar ez den lekuan sartzen; ongi oharturik oña ezartzen du sartzen den lekuan: ez du edozein gauzak izutzen, ez dabil atsegin ta gusto billa; ez dabil errea beza-  
la; aserretzen ez da, ez du uste haren ondotik dabillela nior; gaizkirik egi-  
ten ezpalitzaio baño, geiago ez du burua agertzen; esaten zaiona bereala siñisten du; behar duen guzia Jauna gandik izan uste du; egiten zaion edo-  
zein bidegabe edo dongekeri, ezpaliz bezala darama. Hau da ziñez Jesus maitatzea: hau da egiazko birtutearekin bat idirotzea.

6. Gizon birtutetsua edo Jesus maite duena ez dabil behar ez dituen lurreko gauza txarren ondotik; ez du kolkorik; ez du tolesturik, ez eta makurrik ere: bihotzean dadukana baizik ez du agertzen ezpañez: errai onak ditu guzientzat; baña beretzat beti da gogorra; ez dio bat ere bere buruari barkatzen: bere uts-egite, oker-ibilliak agertzen ditu; baña ez ditu besterenak agertu nai. Ez dio iñori zor zaion begirunerik ukatzen: guzie-  
kin dator ongi; nori nai al duen ona egiten dio; ta, egiten duena gatik, ez du nai ezer, edo saririk artu nai ez du. Ongi bizi da; baña estutzerik gabe, ta bihotz zabal batekin: bere Jainkoarekin ditu bere egitekoak: ezin bestez sartzen da gañerakoetan; ta, oietan sartua gatik, oroitzen da, beti ezpad-



ere, maiz edo sarri bere Jaunaz. Ezin utzi ditzakeen gauzak egiten ditu beste egitekorik ezpalu bezala; baña estutasunik gabe. Alferkeriari ez dio lekurik ematen. Eskuak beste gauzetan darabiltzienean, bere bihotza bidaltzen du Jainkoa gana, galdu ez dezan bere salbazioko egiteko andia.

7. Birtutetsuak edo Jainkoa maite duenak bera dela uste du den txarrrena: bera ez besteak ontzat daduzka: guziak uste du birtutez beteak dardela; beregan ez du ekusten oben, uts-egite ta kulpa besterik; bada arkitzen badu gauza onik, Jainkoarena dela dio. Ezertan hura ez dadukatenak bidegabereren bat egiten dutenak dira harentzat adituenak, eta hura nor den ezagutzen dutenak; bada ez du uste edo ez deritza iñork ongirik egin behar diola.

8. Birtutezkoa edo Jainkoa maite duena nai duen guziarekin arkitzen da; bada, duena baizik ez du nai. Ongi ateratzen zaizkan gauzak ez arrotzen dute ta ez goratzen. Uste etzuen bezala gauzak aterea gatik, len zena gelditzen da, edo damu ta illuntasunik gabe. Bere Bihotzaren Jabe da beti; ta edozein gauza gertatua gatik, ez du len zuen atsegin ta bakea galzen: badaki alabaña, ez dela gertatuko Jainkoak gure onerako eragiten edo uzten ez duen gauzarik. Egiten dituen gauzetan Jainkoaren borondatea billatzen du. Jainkoak nai duena egiten du beti; ta beti nai du Jainkoak eginen duena.

9. Ez du begiratzen, egin behar duenean bat, zein den egin dezakean gauzarik andiena; begiratzen duena da zein ote den egin dezan Jainkoak nai duena: badaki alabaña, Jainkoak nai duena egiten denean, andiena ez izana gatik, irabazten dela geiena, egiten bada berak nai duen bezala. Egin nai litukean guziak utziko ditu, egin behar duen gauzarik txikiena egitea gatik. Ezin egin baditzake beste zenbaitek egiten dituzten zenbait gauza on, etzaio ezer; zeren dakien nai izan balu Jainkoak egin zitza, emain ziola orretarako behar zuen eskua ta indarra. Nai lukeana da eman ditzan indarrak ez galtzea, eta egin ditzala agintzen ditzan gauza guziak ongi egitea.

10. Birtutezkoari guziak, edo geienak beintzat, ongi nai diote; zeren beti arkitzen duten bere-batekoa ta modu onekoa. Maite duela Jesus, Jesusen Amari asko nai diola, ta nai ta maitatze hau birtutez beterikako bihotzetik datozkiola ongi ageri zaio, begi bilduetan, ongi ibiltze ta egiten dituen gauz onetan. Jauna maiz ta ongi prestaturik artzen duela komunio Santuan erakusten du bere egunoroko bizitza obean. Zenbat geiagotan Jauna ganatzen den, berriz ta berriz bera ganatzeko naiez ta eresiaz gelditzen da. Egun oro non dagoen obeki begiratzen du, Elizan dagoenean.

Ez dabil inguruka Jainkoaren billa: zuzen doa bera gana; ta, beretzat ezer gelditu gabe, ematen dio bere bihotza ta den guzia.

11. Birtutezkoaren asmo ta gogoa da Jainkoari atsegin egitea. Jainkoari begira dago: ta dagoka beti galdez zer nai duen egin dezan hordu artan, egunean, urtean ta bizi guzian. Jainkoaren ontasunaz oroitzea aski du haren amorez irazekia gelditzeko: ta ez du onik, Jaunarekin hitz egiten ezpadago. Oroitzen denean Jesus gureak gu gatik pairatu edo eraman zituen neke, izerdi, odolezko Pasio ta eriotzaz, damuz estutzen zaio Bihotza; ta ez daki zer egin artara zuten gure bekatu gaixtoak desegitea gatik. Erasotzen dio bere buruari ta ez dio barkatzen Jesusen kontra egin duen gaixtakeririk. Egin dituenak gatik, eta berririk ez dagien, jana ta edana urri ta kontuz ematen diozka; ta nekez ta mortifikazioz beterik edo hildurazo-mendean darabil bere gorputza.

12. Onela bizi dira Jesus maitatzen ta egiazko birtutea dutenak. Onelakoa da Jesus maiteak erakusten duen birtutea. Ez da, askok uste duten bezala, arpegi aserre illuna birtutearen arpegia. Ez dutenak ere, naita-ez ongi nai diote birtuteari: onesgarria da alabaña. Ez du onesgarri hau galtzen, haren jabeak utsegite txar edo falta zenbaitekin zikindu dezan artean. Hitz egin bezate nai dutenak utsegite ta falta orien kontra; baña birtutearen kontra ez du iñork zer hitzik atera; bada berez birtutea beti da maitagarria.

13. Birtutearen jabetzea nekezko lana da: baña, gogotik artzen ez dutenentzat baizik, ez lan gogorra. Birtuteaz jabetu ziran Santuak noiz nai esan oi zuten munduko atsegin guziak gatik emain etzutela hordu laurden bateko birtutearen atsegiña. Lan ta nekerik gogorrenetan arkitzen zira-nean ere, izan oi zuten barreneko ez dakit zer atsegin; ondoren beintzat bazuten; ta anbat andiangoa, zenbat estutasun andiangoan ekusi zuten beren burua. Orregatik onelako neke ta lanen igesi ibilli ez ezen, berriak eskatu oi zituzten ta andiangoak. Siñisten ez duenak ar beza egiazko birtutearen bidea, ta ikusiko du zer gertatzen zaion.

14. Baña artzen badezu birtutearen bide hau, etzaitzela, erdira zaitzeneko, nekatu ta geldi. Bide hau artu duten asko esan dugun bezalako atsegin ta gustorik gabe bizi oi dira. Zer gatik uste dezu? Zeren nagiak diran, ta dabilzan epel ta erdizka bezala. Asitzen diranean bero dira, ta gelditu behar ez dutela dirudie akabatu artean; dirudie atsedean gabe igoko dirala birtutearen mendiko erpiñeraño: baña nekaten dira laster; itzulzen dituzte begiak utzi dituzten azpiko edo lurreko atsegin ta gauza txarretara; artzen dituzte, beera jaitzirik, guziak ezpad-ere, zenbait: abiatzen dira berriz birtutearen aldapara: badoaz zearka mendi gañera: baña erdira



baño len nekatzen dira berriz ere; beera berriz begiak; begien ondotik gogoa; gogoarekin batean oñak; eta azkenean, len bezala, lurreko gauza txarren artean arkitzen dira, iraun balue, bidearen azkenean arkituko ziranak. Onela birtutearen mendiko egalean gelditzen diranak ez dute ezpañez ere ukitzen, gañean baizik arkitzen ez den atsegin ta kontenturik. Igotzen balira gañeraño, izain lukee hara artean gelditu etziran birtutezkoak izandu zuten atsegin ta kontentu guzia.

15. Gutri dirala uste dezu, birtutearen bidea artua gatik, birtutearen atsegin ta gustoetatik bat ere artzen ez dutenak? Ez bada, esaten dizu S. Franzisko Sales-ek: geienak dira. Geienak nai dute beren gogarako ta beren moduko birtutea; ta onen ondoan dabilzaño, galtzen dute egiazkoa. Berez illun edo tristea denak uste du ez dela birtuterik eremuan ta bakar-tasunean baizik, eta arpegi argi edo humore ona duenak ezin dukeala birtuterik. Anitzek uste dute baruak ateratzea ta gorputza zilizioz edo edozein bidez hilduratzea dela egiazko birtutea. Mezak enzutera, zenbait hitzezko otoitz edo orazio esatera, edo maiz kafesatzera egiñak daudenak birtute andikoak dirala deritzate. Baña oriek guziak eta beste gorputzez egiñ oi diranak birtuterik datozkean edo birtuteen bidean lagun dezakeen gauzak dira; ez dira birtutea.

16. Birtutea, lenbizian erakutsi den bezala, barreneko gauza da. Birtutea da makurrak zuzendu nai bat, gure naiari uko egin ta Jainkoak nai duena egitea. Birtutea da geren buruai gaitz-iriztea, ta Jainkoa bera, dena gatik, eta Jainkoa gatik gure lagunak eta urkoak maitatzea. Birtutearen mendi gañera igoko denak utzi behar du bere antustea, ta bere guzien gañean ibilli naia; ukatu behar diotza bere ekarrai edo natural gaixtoari, eskatzen diozkan izakari txatarrak, eta ez du uzkur geratu behar Jainkoari dagozkan gauzetan: eta egiten dituen gauza onak egin behar ditu Jainkoaren naia edo borondatea egitea gatik, eta beraren izenean. Hau da, Jainkoak eskatzen duen bezala, bere gogoa autsi ta gurutzarekin Jesusen ondotik birtutearen bidean barrena Zerura igotzea. Hau da Jainkoaren uztarrian lepoa sartzea; ta hau da egiazko birtutea.

17. «Jauna, Jauna deitzen dioten guziak ez dira, dio Jesus onak, Zeruan sartuko: Zeruan sartuko dira Zeruan dagoen nere Aitak nai duena egiten dutenak. Anitz eta askok, dio berriz, errain didate: Jauna, ez ditugu zure izenean etorkizunak agertu? Ez ditugu bidaldu zeduzkaten gorputzetatik gaizkigiñak eta Infernuko etsaiak? Egin ez ditugu zure izenean Jainkoaren eskua zuenak baizik ezin egin zitzakean gauzak? Eta orregatik ere, "ken ortik" eranzunen diet nik: ken zaitezte ortik; etzaituzten ezagutzen». Nola obeki adirazi zezakean ez dagoela birtutea, begiz ekusten

diran gauzetan; ta, andienak diruditenak ere ez dirala ezertako, barren onaren mentikak ezpadira, ta ezpadatoz barrengo ta egiazko birtuterik?

18. Ezertan batek bere burua ez idukitzea; gogo gaixtoak eskatzen dion gauzarik ez egitea; ta egitea Jainkoak nai duen guzia da ziñezko ta egiazko birtutea. Hiru gauza oitatik edozein ezpadu, egiña gatik Gizonak egin ditzakean gauzarik arrigarrienak, ez du birtuterik. Birtutez beteak egoteko, ez dugu zer gauza andien ondoan ibilli; asko da den txarrena egitea, ori nai badu Jainkoak egin dezagun.

19. Biz bada gaugero zure egiteko guzia zu gandik Jaunak zer nai duen ikastea, ta nai duela ezagutzen dezun guzia egitea. Ez dezazula bat ere egin gabe utzi. Asko zor diozu; agitz maite zaitu; eman dizu dezun ta galdu dezun guzia; ta zuri emateko dago eskatzen diozuna. Ez hau gogotik utzi; ta, eroa ezpazera, etzara Jainkoarekin labur ibilliko. Eskatzen dizun gauzaren bat egiteko arkitzen zeranean, ekarzu gogora zenbat nekerekin irabazi zuen eman dizuna ta emateko dagoena; ta, amorez ezpada, lotsaz bad-ere egiñen dezu. Begira; zuk Jainkoa gatik egin dezakezun guzia, Jainkoak zu gatik egin duenaren aldean, ezin ager ditekian aurkeria da.

20. Ez da orregatik zer izitu: badaki Jesus maiteak noraño luzatzen diran gure besoak: al egiñak guk egin ezker, ezer egin eza gatik, etzaiku aserretuko; ta, aserretu lekuan, gure alde egoin da behar dugun guzirako. Egin ala egiten duen humearekin, maite duen Gurasoa, ez da aserretzen guti egin duelako damuarekin ekusten duenean; hitz onakin laguntzen dio, ta arintzen, astun dadukan bihotza. Gurasorik onenak humeari nai dion baño, anitz eta asko geiago nai digu Jesus maiteak. Egin ala baizik ez digu eskatzen: ori egin ezker, ongi artuko gaitu. Ezin gaudezke beti batean emen gauden artean: berak nai duena egitea gatik ekusten bagaitu nekatuak, lagunduko digu, bere burua ez agertua gatik; eta emain dio illun dagoen gure bihotzari behar duen atsegin ta argia.

21. Bide hau artu ez dutenak edo onetan arrastaka dabilzanak ez dute Jesusen esku-emate ta Zeruko atsegin andien berririk: ez dakite maite dutenentzat zein ona den Jesus: *Quàm bonus est Deus diligentibus se!* Ez dira saiatzen birtuterako behar den guzia egitera: egiten dituzte gogoak ematen diezten zenbait gauza: zenbait egunez ez dirudite diranak; ez dira aserretzen edozein gauza gertatua gatik; gauza onetan daramate egun guzia; ta, Jainkoaren gauzak baizik aditu nai ez dituzte: baña laster artzen dute leneko pausoa; bideak eman ezker, ez dakite ukatzen beren buruari eman oi dioten atsegin edo gauzarik; begiak zabalduak darabilzate beti, al dutena ekusteko; ez dira arkitzen, ezpada berriketan edo jolasean; ezer





ez bat asko dute barren guzia erretzen zaiela gelditzeko; ta zer gertatzen zaien ikasi gabe gelditu oi dira azkenean.

22. Onela bizi diranak, egiña gatik egin oi diran zenbait gauz on, ez dute birtutearen biderik, edo birtutearen mendiko egalean inguruka dabilza. Badute birtutearen azala edo larrua; baña larru ta azal utsa. Orrela bizi diraño, esan dezakee bere Bihotzeko amore andia gatik maite dutela Jesus: esan dezakee damuz betetzen zaiela barren guzia, bekatuen arantzaz inguratua ekusten dutenean Jesusen Bihotza; baña orien maitetasun ta damuak atsegin guti emain dioe estu arkitzen den Jesusen Bihotzari. Egiten duten baño geiago egin beharko dute, izain badute Jesus gogotik maitatzeko behar den birtutea.

## §. IX. JESUS MAITATZEAK DAKARTZIEN ONDASUNAK

1. Jesusen Bihotzeko nai edo amoreari erantzutetik atera oi den ondakin andiena da Jesus berak ekarri zuena dirudien bizitza egitea. Moldaturik uzten badezu zere bihotza ta Jesusen Bihotzaren iduri ta antzarekin; maitatzen badezu haren Bihotzak maite zuena; egiten badezu, egin alean, Jesus onak nai duena, berak bere Aitak nai zuena egin zuen bezala: kanpotik egiten dituzun gauzak badira Jesusek egin zituenen idurikoak, maite dezula Jesus adirazten dezu; ta arkitzen zara Jesusen Bihotzaren deboziotik ateratzen den ondasun andiarekin.

2. Jesusek du Bihotz beratx, humilla. Jainkoaren Bihotz eder hau beti zegoen prest bere Aitak agintzen zion eta nai zuen guzia egiteko; bizi guzian egondu zen Jesusen Bihotza gure oben ta txarkerien aranzaz pitsatua; ta ala ere, Pasioko nekeak eta gurutzeko eriotza zetozkion naiez ta egarriz. Uzten badezu zere bihotzaren gogortasuna ta burua goratu naia; arkitzen bazera prest agintzen zaitzun ta Jainkoak nai duena egiteko; maite badezu gurutzeta; edo zu gatik anbat nekatu zen Jesusen izenean artzen badituzu gogo gaixtoak nai ez litukean neke-izerdiak, maitetasunak dakarren elkarren iduri ta antzarekin daude zure ta Jesusen Bihotza.

3. Jesusek bezala, bihotz bera humilla du Jesus ona maitatzen duenak. Jesus mundura baño len, onen berria zuten Profetak esaten zituzten ta banatzen haren egokiak; eta lenbiziko lekuan, zioten, izain zuela Jesusek Bihotz bera, ixil-humilla. Lege zarreko guzietatik Moises ta Dabid

izandu ziran Jesusen antza ta irudi geienekoak: eta biak ziran humiltasun ta mansotasunik andiena zutenak: bada Moises gatik dio Eskriturak etzela arkitzen hura baño gizon beratx eta mansoagorik: *Vir mitissimus super omnes, qui morabantur in terra:* eta Dabidek Jainkoa gandik zerbait nai edo uste zuenean, bere beratxtasuna agertzen zion: *Memento, Domine, David, & omnis mansuetudinis ejus.* Jesusek berak esaten digu ikas dezagula haren Bihotzeko beratxtasun ta humiltasuna; oriek dirala nolakoa den ongiena adirazten duten birtuteak: *discite à me, quia mitis sum, & humilis corde.*

4. Jesus maitatzeko, izan behar dezu norgana nai bihotz onekoa: bestela ez da izain zure bihotza Jesusen Bihotza bezalakoa; ta, elkarren gisako bihotzak ez dituztenak ez dute maitatzen elkar. Bihotz onbera duenak fite birtuteak beretuko ditu. Orretara bihotza ekartzeko, nai etzenituekan gauz anitz eraman beharko dituzu, Jainkoaren izenean eramanaz, oituko zara gaizkiak asalatu gabe aditzera, bidegabeak ixillik ekustera eta txarkeriai, txarkeriekien ez, baizik al dezun ongiarekin erantzutera. Onelako aldietan arpegi aserre, kopet illun eta begi urduri-zorrotzekin gelditzen diranak ez dute oraindik Jesusen onetsiak duten bihotz beratx-humilla.

5. Zertarako nai dago Jesus maite duena. Etzenuke zuk maite zaituztela siñistuko, hori diotenak egin nai ezpalute zuk nai zenukean gauzarik. Adiskide mamiak eta maite diranen bihotzak bihotz bat bezala dira: batak nai duena nai du besteak; eta ezpadu nai, ez da bat harekin, ez eta adiskide ere. Maite gaitu gu Jesus maitagarriak; guk hura maite badugu, behar dugu nai hark nai duena. Jesus bat da maite duen bere Aitarekin; ta orregatik nai du Aitak nai duen guzia; naiez izain lizake bat Aitarekin, ta ez nai ezpalu, ez izain lizake bat Aitarekin ta ez Aita maitatuko luke. Maite badezu Jesus, bihotzez biok bat izan behar dezue; eta biok bat izateko, nai beharko dezu beti Jesus onak nai duena. Jesus maite duenak aisa uzten ditu lurreko naikundeak; eta naikunde txar oiek utzi dituenak ez du nai Jainkoak nai duena besterik. Geroz agin dakiola den gauzarik gogorrena; al badu, ez du egin gabe utziko. Jainkoak nai duela ikasi ezkeru, anbat zaio egitea gauza bat nola bestea. Gerta bekio edozein gauza, nola dakien guzia gertatzen zaiola Jesusen naiez, onzat artzen du. Gertatzen zaio beti nai duena; bada beti nai du Jainkoak nai duena; ta onek nai duena baizik gertatzen etzaio.

6. Lekuren bat, egitekoren bat edo beste edozein gauza zere aukeraz gogoan sarturik badadukazu, ez dezu naiko Jainkoak nai duen guzia; zuk nai dezun egiteko, gauz edo leku hori izain da, beintzat zure Jainko erdia, edo zure bigarren Nagusia; ta ezin egin diteke, dio Kristo Jaunak, Nagusi onek eta Jainkoak agintzen dutena. Ziñez Jesus maitatzeko, galdu behar



da beste gauzetarako jaiera ta amodioa; Jesus amatzen duenak Jesusen eskutik datorrenaren begira egon behar du. Gauza guziak utzi artean Jesusen eskuetan, ez dezu izain atsegiñ osorik. Ezta hori lenbiziko ta bigarren seiatu aldian egin oi den gauza: baña egin ditekeana da; ta egiten dutenak arkitzen dute munduko ondasunak eta atsegiñak baño geiago balio duen atsegin ta ondasun bat. Zori onekoak orretaratzen diranak.

7. Jesus maite dutenak gogoan dute beti Jesusen nekezko bizia. Irakurtzen dituzte ta ekusten ongi haren egikari santuak. Beren eginkizun guzia egiten dute, al egiñean, Jesusek egin zuena bezala. Oneta[ra]ko begiratu behar zaio maiz Jesus maitagarriari. Maiz Jesusi begiratzea hau ondasunak ugari dakartzien begiratzea da. Ezagutu ezkeron anbat zor zaion Jesusek ezin ekusi dituela bera maitatzea eragozten diguten lurreko gauzak, seiatu behar dugu guziak uztera, izan nai ezpadugu esker gabe txar gaixtoak.

8. Jesus maite duenak Jesusek egin zituenen gisara bere gauzak egiten ditu, ta hark maitatu zuen gurutzea maitatzen du. Maite diranak, agertzearekin elkarri barreneko estutasun ta nekeak, nekatzen dira ta estutzen. Ezin ekusi du Adiskideak damuz ta illuntasunez beterik dagoen bere adiskidea, illuntasuna ta damua bere bihotzera gabe. Jesus maite duenak neketan itoa bezala ekusiko du Jesusen Bihotza; baña itoa, berak nai dituen nekeetan. Ekuste onek emain dio bihotzeko estutasun ta damua; ta aski da Jesus neke ta gurutze naiez dagoela ekustea, berak ere nai izateko gurutzea ta nekea.

9. Usteko duzu onelako Jesusen Adiskide eta onesle guti arkitzen dirala munduan. Besterik iduriko leki[ke]zu, bazeneki nola bizi diran zu ez besteak, edo bazeneki zein asko ta anitz diran atsegin ta gustoz beteak daudenak, zu izutzen zaituzten neke-gurutzeen artean. Nekerik ez izatea eriotza baño gauza gogorragoa zeritzan Santa Theresak. Santa Magdalena Pazisek eriotzean izan uste zuen gauzarik gogorrena zen, eriotzarekin batean, Jainkoa gatik nekatzeak ematen zion atsegin ta gustoa galtzea. «Jesus gogo guzia gurutzean dadukana ekusteak egiten dit, zion beraren maitatzalle batek, gurutzea guztiz maitagarri; ta deritzat, gurutze gabe, ezin izan naitekeala dohatsua, zori onekoa edo ditxaz betea. Ez dut nai Jesus maitatzea beste atsegiñik eta gustorik, bizi nazan artean». Arkitzen ez dutenak atsegin ta gustorik daramazten gurutze-nekeetan ez dute maite andiangoak eraman zituen Jesus.

10. Gurutze ta nekeen igesi dabilzanetatik zenbaitek uste dute atsegin geiago artuko duela Jainkoak, haren izenean ta lagunak gatik egiten badituzte, berenak utzi, ta beste zenbait gauza; baña ohartzen ez dira egi-

ten dituztela ez Jainkoa gatik, baizik beren buruari geiegi naiez. Jesus maitatzeko, egin behar dugu, ez gogoak ematen diguna, baizik hark egin zuena ta erakusten diguna. Jesus maite duenak maitatu behar du hark maitatu zuen gurutzea. Maiteago izain du gurutzea geiago Jesus maitatzen duenak.

11. Bada oraindik Jesus maitatzen delako beste señaile bat ere. Hau da, Jesusen gauza guziaz, Jainkoarenai bezala, nai ta estimazio andi batekin begiratzea. Jesus maite dutenai, ekusi orduko beraren edozein imajiña, lasterka ta egaka doakie bihotza hura maitatzera ta haren neke ta Bihotzeko estutasunaren damu andi bat artzera. Jesus erran orduko, eztiz beteak bezala gelditzen zaizte ezpañak eta bihotza.

12. Jesus maite dutenak Jesus ekusten dutela derizte, beharrean edozein ekus dezateneko; zeren dakiten haren izenean dabiltzala, eta egiten zaien ongia berari egiña bezala dela. Emen Gizon andiai atsegin egitea gatik halakoen etxean bizi diranai nork-nai egiten die begitarte ta agur. Beharrean daudenak eta eskean dabilzanak Jesusen etxeakoak dira: orregatik zor zaie begitarte ona ta eman dakikeena.

13. Jesus maite dutenak ez dira beharrean daudenai al dutena eman ta begitarte ona egiña gatik asetzen; askotan egiten die Jesus berari egiñen likeena. Andiak eta Erregeak izana gatik, badakite beharrean daudenak ta eskean dabilzanen maiera artu behar duten janaria ta edaria eramaten; badakite beharsu gaixoen oñak garbitzen ta oriei, loiez beterik egona gatik, muñ egiten. Nork ez daki hori guzia egiten dutela beharsuen Jabe ta nagusi den Jesus maitea gatik eta zeren asko nai dioten Jesusi?

14. Zein maite duen Jesus ezagutu nai duenak ekustea baizik ez du behar nola arkitzen den agertu ditugun lau gauzetan. Zenbat andiangoa den egur pillako sua, anbat luzeago da Zerura bidaltzen duen kea ta garra. Zenbat andiangoa zure bihotzeko Jesusen amorearen sua, anbat usuago egiñak, obeak eta andiangoak zure su orrek eragiñen dituen gauzak. Su andi onekin arkitzen diranak ekusten ez dute lurrean maita ditekeala derizten gauzarik. Itsusia iduritzen zaie lurreko edertasunik andiena Zeruko edertasunen aldean. Nondik lurra utziko duten dabilta gogo guzia Zeruan dadukatenak. Zeruko suak urtuaz darama onelakoen gortputza; ta amorez zoratuak bezala dabilta maite duten Jainkoaren ondolan. Jan edanak, egon-ibilze ta dituzten egitekoak ez dira aski onelakoai sarturik dadukaten Jainkoa gogotik kentzeko. Non-nai ta beti dabilta nola maitatuko duten ta egiñen bere Jainko maiteak nai duena.

15. Egia da onara baño len igaro behar dirala asko lan ta neke; askotan autsi behar du nork bere gogoa Jaunarena egitea gatik: garbitu behar



du bihotza; ta utzi behar ditu Jesus maitatzea kenzen dioten gauza guziak. Gañ onetara igan nai duenak ar beza erakutsi zaion Jesusen Bihotz maitaren debozioko bidea. Bide onetako gogortasunak leuntzen ditu nai duenari laguntzeko dagoen Jesusen graziak. Aldapan igatean erortzen bazaio infernuko odei belza, tentazioaren ura, garra ta sua dariola, zabaldua arkituko du igan artean barrenean gordeko duen Jesusen Bihotza.

## LAUGARREN BURUA

*Jesusen Bihotzaren maitazalleak urte guzian egin behar dituzten gauzak.*

### §. I.

#### LENIK ADIRAZTEN DA NOLA TA ZER GATIK EGIN BEHAR DIRAN, EGITEN DIRAN GAUZAK

1. Jesusen Bihotzaren debozioa da, len esan dugun bezala, zor diogun amorea gatik Jauna gogotik maitatzea, ta maitatze onek dakazkien gauz onen presentak egitea, ta denbora berean, gu ez uztea gatik, Aldarean egin zaizkan bidegabeen damu andi bat artzea. Zor diozun amorea gatik bada, ta zu gatik daramanaren alde, egin behar dezu egin gogo dezuna. Ezagu dezazun zu gatik egin zuena, egiten duena ta daramana Jesus onak, hitz bian bildurik emain dizut len luzaroago erakutsi nizuna.

2. Ekus dezagun onetarako, bein gu gatik Jesusek Aldarean egiten duena; ta gero guk Jesusi egin oi dioguna. Borondate osoarekin edo nai guziarekin eskeintzen digu Jesusek Aldarean bere gorputzaren janari andia; baña edo nekez artzeratzen gara edo artzen dugunean izan oi da ezin bestez edo nai gabe bezala. Marrik eztuen naiarekin maitatzen gaitu Jesusek; eta, ezer zor ezpagenio baño, geiago ez gara gu Jesusez oroitzen ere. Maite gaituelako señale bat eskatu bagenio, eskatu gabe eman diguna baño, andiagorik ezin eman zezakean. Gu gatik eraman dituen neke, izerdi ta eriotz gogorra, maite gaituela erakusteko diña ezpalira bezala, gelditu zaiku lurrean, dituen ondasun ta izate guziarekin, gu gana etorri ta gure bihotzean sartzea gatik: eta, sar-aldietan, arzeko estadian bageunde, ematen diguna baño, geiago emain liguke. Non nai edo edozein erritan ta horduz arkitzen du Jesus, billatzen duenak. Ongi egiteko, ez dio begiratzen eskallearen anditasunari: den errumesena edo niork ez ekusi naiez dabilena, artzen du Jesusek, billatzen badu bihotz onarekin, ta beste edozein bezain ongi.



3. Baña nola erantzuten diogu Jesusen fabore ezin geiagoko oni? Agitz gaizki. Gizonen eskutik artzen du Jesusen kontara ala ta geiago txarkeri. Lenbiziko artu aldian, zikindurik utzi zuen Judasek bere komunio gaixtoarekin aldareko maia: ta zenbat onelako zikinkeria ez ditu Jesus onak ekusten geroztik? Anitz dira munduan arpegi onarekin Jesus, Judasek bezala, saltzen dutenak. Asko dira konfesioko iturrian garbiketa iduri bat egin, ta bihotz loi ta galduarekin komunioko maiera igaten diranak. Onelakoak faboretzat saldu nai diezte Jesusi Herejeen sakrilejioak adina sentitzekoak diran beren komunio gaixtoak: bada Herejeen Sakrilejioak negarrez betetzen ditu Jesus maite dutenen begiak, eta damuz ta urrikiz bihotzak: eta onelako urrikiak, damuak eta negarrak atsegin egiten diote Jesusi, egiten zaizkan txarkerien artean; baña komunio gaixtoen txarkeria ez da ekusten; ta ekusten ez den bidegabeak edo txarkeriak ez du negarrik eragiten. Beste alde, guti dira komunio gaixtoen orrenbat berri dutenak; eta gutiago, horiek gatik daramazkien miñetan, beren damuz, Jesusi lagun egiten diotenak. Egia da bietatik edozein dela txarkeri arrigarria.

4. Jakikerazko edo txanzazko Jainkoa baliz baño gaizkiago erabilli dute askotan Jesus Hereje gaixtoak. Kendu dute Elizetatik Elizetan arkitu dutena. Urratu ta erre dituzte anitz lekutan Elizetako Aldare ta Sagrarioak. Autsi ta desegin dituzte Mezako Kalizak ta Komunioko Kopoiak. Erabilli dituzte oin pean, eman diezte zakurrai bazkatat eta zaldaleztat mandoai Kopoietan arkitzen zituzten Forma konsagratuak: eta hau guti iritzirik, onelako zenbait Forma Holandako Herejeak iltzez jositik utzi zituzten gaixtoak urkatu oi zituzten tokian. Bruxelas, Borgoña ta beste anitz bazter edo aldetan ekusi zituzten Herejeak, berak ezpata puntekin egin ziezten zuloetatik odola zeriela, forma santuak: baña zakur amurratuak balira bezala, geiago berotzen ziran Jesusen kontra, edozein onelako gauza edo milagro ekustearekin; ta egiten zituzten Jesus onarekin infernukoak berak izutzeko aski ziran gauzak. Sartu oi zituzten zenbait aldiz irakiten zegoen urean. Batzuetan surtara botatzen zituzten; ta saldu ere bazituzten zenbait aldiz: baita artu ere ezin esan ditezkean gauzetarako. Ai Jesus! ta zein ona zaran, orrenbat gu gatik daramazunean! Orra zer eskerrak, zor zaitzun amorea gatik!

5. Ezta izandu zuri egin zaitzunaren laurdenik ere ekusi duen Gizonik. Milla lapurkeri ta beste anbeste eriotzen ondoan arrastaka urkaberan doan Gizonak urrikariz erdiratzen ditu neke hartan ekusten dutenen bihotzak. Jesusen nekeak Jesusi egiten zaizkan bidegabe ta txarkeriak dira —diran andienak izanik ere—, ezpalira bezala ekusi oi diranak. Arrizkoak

dirudite geienen bihotzak; bada ez ditu beratzen Jesusek dien amoreak: ez eta berak gatik eraman dituen neke izugarriak ere.

6. Jesusen amore hau ta onegatik Aldarean ekusi dituen txarkeriak gogotik utzi gabe egon behar genuke, Elizan gauden guzian. Baña anitzek onelako gauzarik gogoan artu ere gabe egiten dituzte ango aldiak. Zenbait berriketara joan oi dira Elizara. Batzuek, Jesus dagoen Aldarera baño, geiagotan daramazte begiak Elizan sartzen ta ateratzen diranetara edo bazterren batera. Besteak hitzketan ta galdeka daude; ta ez die uzten gauz onik egiten Aldamenean daudenei. Anitz, hume txikiekin doaz Elizara, Elizako guziak nastera: ta ez da faltako ezin esan ditezkeen gauzak esaten edo egiten dituen bat edo beste.

7. Onelakorik egiten ez dutenak errespetuzko edozeñekin egoin lirakean baño lasaiago egon oi dira Elizan. Mezakoan ere, zezenetan arkitzen balira edo jostatzen dabilzan aurrai begira baleude bezala egon oi dira. Zer den Meza edo zertako den oroitzen ere ez dira geienak. Mezan arkitzen den Jainkoaz ezpaliz baño kaso geiago ez dute egiten. Askotan belan bat baizik lurrean ez dutela, edo jarririk, edo eseririk daude, an dauden Aingeruak arrituak dadukatzien Jaunaren begietan.

8. Jauna artu behar dutenean, zertara doazen ez dakitela dirudite geienak. Errege edo Gizon andiren bati, ikara daudela baizik, begiratuko ez liekeenak ere ez dira izutzen, komulgatzera igotzen diranean; ogi zati bat artzera bezala doaz Errege guzien Errege, Jainko ta Gizon egiazko Jesus artzera. Ar dezateneko, Elizatik atera naiez daude: ta, an daudeño ere, zenbait *Ave Maria* esaten ari dira, berekin ez balute baño, geiago Jesusez oroitu gabe. Elizatik atera orduko, Jesus artu duen aoarekin asitzen dira berriketan bear ez diran gauzak agertzen, ta gaizki moldatua, ezi gabea dadukaten barrenak dakazkien gauzak agertzen.

9. Badira maiz edo askotan komulgatzen diranak, baño, egiten dutela agitz guti ezagun zaienak. Zer gatik uste dezu? Zeren oituraz bezala komulgatzen diran. Behar bezala edo al egiñean barrena birtutez apaindurik artzen balute Jesus, Jesusek utziko lieke utzi oi dien baño ondasun ta grazia geiago. Ez dute nekatu nai beren barrenak ustutzen, graziari onzi andi bana egiteko; ta, non utzi arkitu gabez, utziko litukeen grazia anitz utzi gabe doakie berekin iduki duten Jesus. Atoz ea; ta ez da sentitzekoa Jesus maiz artzen dutenak, eta orregatik egunoro gogotikago maitatu behar lukeenak, onen guti Jesus maitatzea? Berandutik berandura baizik komulgatzen ez diranak maitatze onetan otzak edo epelak izatea berez datorren gauza da; bada neguko izotz eta elur artean bizi diranen gorputzak bezain otzak dira Zeruko graziak berotzen ez dituen bihotzak; eta



negu otzean bein edo berriz baizik suaren ondoratzen ez diranak otzak oi daude. Arritzeko den gauza da su andiaren ondoratzea bat askotan, ta orregatik ere beti otz egotea. Hau da maiz edo sarritan komulgatzen diran askori gertatzen zaiena; bada amorez su ta gar egiña dagoen Jesusen Bihotzeko labean sartua gatik zenbait ez dira erretzen ez eta berotzen ere.

10. Otzago gelditzen dira, ala oriek, nola bakan su hau artzen dutenak, su onen ondoratzea baizik egiten ez dutenean, edo noizean bein baizik Elizan sartzen ez diranak. Ezin bestez bezala joan oi dira oriek Elizara. Dioazenean ere izan oi da nora doazen, norekin hitz egitera edo zertara begiratu gabe. Sartzen dira Elizan adiskide baten etxean bezala. Adiskidearekin baleude bezain ajola gutirekin daude beren Jaunarekin. Begien arinkerian, errespetu gutiko egotean, gogoa non nai erabiltzean, ta egiten dituzten beste asko uts-egitetan aditzera ematen dute ez dituztela beren barrenak berotu, ta etzituela Jesus maitatu naiak ekarri Elizara.

11. Aldarean balego Jainkoa Lege zarrean erakutsi oi zuen majestade ta gogortasunarekin, obeki begiratuko genuke nora goazen Elizan sartzen garenean; beldur geiagorekin artuko genuke, komulgatzen garanean, ta ez giñake ibilliko gabilzan bezain lasai. Utzirazi diozka leneko gauza izugarri guziak guri ongi naiak: orregatik maitatu behar genuke anitz geiago Jesus: baña gutiago maitatzen dugu. Ah! zein andia den gure, Jesusi zor diogunaren, ezaguera-gabea! Ah! zein gaizki eranzuten diogun Jesusek digun amoreari!

12. Korpus Kristiko egunetan ateratzen du Elizak Jesus, apainduak dauden kaleetan barrena, Elizan bezala kale ta bazter guzietan ezagu dezaten guziak beren Erregetzat, Erregeri zor zaion bezala agur dagoiten, ta maita dezaten diranak. Baña zer gertatzen da? Herejeen eskutik artu dituen bidegabeak, injuriak, gaixtoen komunioak eta Elizako txarkeriak aski ezpalira bezala, txarkeri berriak egiten zaizka, honra ta amore utserako Elizak berezi dion egun onetan ere. Hala berak aditzera eman zion Doña Sancha Carrillo zeritzan bere maitatzalle andiari.

13. Ezijako Errian Korpus Kristiko prozesioa zebillen batean nola uste dezu agertu zela Jesus Doña Sancharen begietan? Gurutzean jostera Jerusalengo Kaleetan barrena eraman zuten gisan, arantzez burua beterik, eta gurutze sendor bat bere soñean zekarrela. Arritu zen Jesus ala ekusi zuenean, ta, nola Jauna, galdetu zion, ekusten zaitudan itxuran zu, egun bezalako egunean? Bai, Sancha, eranzun zion Jesus maiteak; eta begiak estaltzen ziozkan ta odolez betea zegoen buruko illea aldaratu, ta erakutsi zion arpegi guzia odol egiña, ta esan zion; ona nola uzten nauten egun

oietan Herejerik ez den bazter oitako jendeak ere. Orra zer egunak nereztat Korpus Kristi egunak.

14. Egun onetan bada, ta urte guziko egunetan Aldareko Sakramentuan egiten zaizkan bidegabeen alde egin dakion atsegin baizik emain ez dion zerbait, berezi du Jesus onak bere Bihotzarentzat urtean egun bat. Egun hura ta urrengo zazpiak Jesusen gorputz Santuaren egunak dira, ta beste hau Bihotzaren eguna da. Egun aietan ta urte guzian erakusten ari da digun amorea. Egun onetan guk hari erakustea nai du berearen alde dioguna; ta erakustea Zeruko guziak eta lurrean diranak ezagu dezakeen bidez ta moduz.

15. Ziñez ta bihotzez maite dutenak Jesus egun onetan egin behar dute maitatze onek eskatzen duena edo al dagiten guzia. Nai badezu izan maitatzalle oitatik bat, damuz ta urrikimentuz beterik egon behar dezu egun onetan, oraindano egin zaizkan txarkeri ta bidegabeak gatik; eta bidegabe ta txarkeri guziak ezin ito dioten zure amoreari amorez eranzuten. Hori bera gogoan dadukazula, egin behar dituzu egiten dituzun komunio ta gañerako gauz onak. Egun hau ongi igarotzea izan bedi gisa berean gero urte guziko gauz onak egiteko. Ez dakizula gogotik erori Jesusek zu gatik egin ta eraman duena; ez eta bihotzetik ere egin zaizkan txarkerien damua ta zor diogun amoreari; nai ezpadituzu ortik datozen ondasun andiak galdu.

## §. II.

### JESUS MAITE DUTENAK URTE ORO EGIN BEHAR DUTENA

1. Ongi izateko, Jainkoaren izenean eta gure Jauna gatik egin behar dugu egiten dugun guzia; ez da halabaña Jaunari zor ez diogun gauzarik. Gauzak bezala egunak ere Jainkoarenak dira: ez da bat ongi igaro behar ez denik. Badira orregatik ere urtean zenbait egun besteak ez bezala igaro behar diranak: badira igandek, badira jaiak; eta jaien artean ere zenbait besteak baño andiagoak. Onelakoetan nai du besteetan egiten ez ditugun zenbait gauza guk egitea, edo, gutienez, egiten ditugunak len baño obeki egitea. Lenaz gañera berezi digu bat; hau da Jesusen Bihotzarena: ta hau da gañerakoak baño obekiago igaro behar lizakeana, lenagokoetan egin ditugun utsak ateratzen ditugula.



2. Korpus Kristiko egunetarik batean Aldareko Sakramentua begietan zedukala zegoen len esan dugun Serore edo Monja Alacoque oni Kristo Jauna agerturik erran zion zor zion amoreari erantzuteko etzela anbat aldiz eskatu zion gauza egitea bezalakorik. Agertu zion gero bere Bihotza; «ta ona, esan zion, ezin geiago gizonak maitatu dituen Bihotza; ez die ezer gorde; ustu ta aitu bezala da, dien amorea erakustea gatik; eta zer uste dezu zor diela? geienai eskerrik asko batera ez; ta eskerrak eman ta zor didatenari eranzun beharrean, txarkeriz, esker gaixtoz ta sakrilejioz betetzen naute: ta damurik geiena ematen didana da oitatik zenbait anitz geiago zor didatenak dirala, ta niganako obligazioz loturik daudenak. Orain nai dudana da egun bat Bihotz onen honrarako; ta izan bedi Korpus Kristiko zortzi egunen ondotik datorren hostirala. Egunduetan egin behar da, Aldarean dagoenetik egin zaizkan bidegabe ta injuriekintu kendu zaion honraren alde, komunio bat. Nere kontu zabalduko dela Bihotz hau, eskatzen dudana egiten dutenak ondasunez betetzeko».

3. Ondasun oek, bada, egun hartan irabazi nai badituzu, egin behar dituzu orain erakustera noan gauza guziak, edo al dituzunak. Asi zaiten lenagoko arratsaldetik bigaramuneko behar dituzun gauzak prestatzen, edo Jaun andia artzeko dagoen zere barrenara apaintzen. Ez dezazula irakurri gabe utzi zer den Jesusen Bihotzaren debozioa adirazten duen liburu onetako leku bat edo beste. Arratsalde berean zoaz Elizara; ta zaude an, al dezun horduraño, Jesus onarekin; ta, etzin baño len irakurri zazu irakurtzen zaudena baño len arkitzen den §.

4. Egunduetan hiru egunetarako, behar da barren bildua. Barrena bilzeke, utzi behar dituzu lenagoko egunetik utzi ditezkeen ibillera, dibersio ta hitzketak; eta arratsean zaude hordu laurden bat, bigaramuneko gauzen neurriak artzen. Etziterakoan eskatuko diozu zurekin dabillen Aingeruari dagoela goizeraño Elizan Jaunarekin zure oñorde ta partez; ta erraiozu Jaunari loo beharrik ezpazenu, ta al bazenu, egunduetan ziñakeala zu ere, Aingeruari lagun egiten, ta berarekin gau guzian. Egunduetan VI. §. arkituko dezun bostgarren otoitza. Belaunak lurtean dituzula ta burua beitatuturik, eskatuko diozu Jesus onari dizula bere bendizioa ta gaua ongi igarotzeko behar dezuna. Lotatik esnatzen bazara, egunduetan agur Jesus onari; ta adora zazu haren Bihotz maitagarria.

5. Alik osoena eman behar zaio Jesus onari urrengo bere eguna. Ez dezazula egunduetan artu utzi ditezkeen lan edo egitekorik; ez eta alferkerian ere galdu egunduetan onen hordu edo zatirik. Jaiki zaitezeneke, zoaz gogo guziarekin Jesusen oñetara; egunduetan agur edo adora zazu. Zor dituzun guziaren alde ta dizun amore andia gatik eskeñi edo ofrezituko diozu

egunduetan egin behar dezun guzia; ta eskatuko diozu lagun diezazula dena ongi egiten.

6. Prestatuko zara Konfesio on baterako. Artuko dituzu al dituzun bideak egunduetan eraman dezun baño, damu ta urrikimendu geiago eramateko Konfesioaren oñetara; ta ez da zer utzi konfesatu gabe Elizan egin dezun uts-egiterik, txikia izana gatik ere.

7. Egunduetan hartako Komunioan atera behar dituzu lenekoetan egin dituzun utsak. Ori egin lekuan, izain zenituke uts-egite berriak, lenekoetan baño begiratze geiago ezpazenerama. Ongi komulgatzeko, egunduetan maiz komulgatzearen gañean irugarren Buruaren VII. §. erakusten dena. Bere uts-egite andiak lotsatu dadukatena bezala joan behar dezu Jauna artzera; ta joain zara Komunio hartan atsegin andi bat Jesusi emateko naiez beterik. Oroiturik gero gu maitatzea gatik Aldarean ekusi dituen bidegabezko gauzez, egin behar dezu kontu aserre dagoela Jaun andi hau ta gozatzera zoazela zere komunioarekin; baita zere Redentore ona ateratzera bezala ere, behar ez bezala darabilten Hereje ta Kristau gaixtoen eskuetatik. Zoaz denbora berean zere kontra dadukazun Jainkoarekin bakeak egitera, ta berriz aserre dezakean gauzarik ez egiteko asmoarekin. Artuko dezu Jesus nor artzen dezun dakizunak bezala, erran nai dut, beldur ta humiltasunez beterik; eta, artu ondoan, esain diozu maite duen bihotzak erakusten duen guzia.

8. Egunduetan gero al egiña ezagutzea gatik zerekin dadukazun Jesusek digun amorea, ta gure harganako oztasuna. Ezaguera onek dakarren damuz bihotza beterik, eskatu behar diozu dizula digun amoreari eranzuten ez diotenen izenean egin ala egiteko grazia. Daramatzien eskergabe ta txarkeriak bihotza erdiratzen dizutela berari adirazteko, esazu gero VI. §ko lenbiziko otoitza; txarkeri ta eskergabetasun horien alde, emaiou zere bihotza, zere anima ta zaran guzia, ango bigarren orazioan erakusten den bezala.

9. Goiz hartan geienean edo al dezun guzian egunduetan behar dezu Elizan: ta, zauden lekuan, egunduetan zaiten Jesus maitatzen ta gogotik utzi gabe; ta egiten dituzula al dituzun gauza on guziak.

10. Arratsaldean irakurri behar dezu, Jesus maitatzeko, zure bihotza bero dezakean zerbait edo dakizkitzun gauzak gogoan arturik, egunduetan zara Elizan, zure amoreak hara ekarri duen Jesus onari al dezun guzia bihotzez esaten ta bihotzera Jesusek esain derezkitzunak aditzen. Baña ez da zer utzi orregatik egin oi dituzun beste egunduetako debozio ta gauza onak.

11. Zoaz gutienean bost aldiz egunduetan Elizara. Lenbiziko joan aldia izain da Aldarean gelditzearekin erakutsi zingun ongi nai edo amo-



rearen eskerrak ematera. Bigarrena, egin ditugun komunioetako faboreen ta orduko ondasunen eskerrak ematera. Hirugarrena, ezagutzen ez dutenen eskutik artu dituen ta Hereje gaixtoak egin diozkatzen bidegabe ta injurien damu andi bat erakustera. Laugarrena, gaizki komulgatzen diranak eta gañerakoak Elizan egin dituzten sakrilejio ta gauza gaixtoen alde, guziak urratzeko nai ta deseoa baten presenta egitera. Bostgarren aldian joain zara Elizan ekusten dituen bakartasunetan Jesusi laguntzeko naiez beterik; bada geienetan ezipal bezala utzirik dadukate jendeak; eta ezin bestez Elizaratzen dira.

12. Egun onetan, zenbaitek ekusi oi dute Jesus Erriko Eliza guzietan; guzietan artu dituen bidegabe ta injurien damua guzietan Jesusi erakustea gatik. Badira beharrean dauden zenbaiti Komunio Santua egun onetan arrezatzen dienak, nola egin behar duten lenago erakutsirik; komulgatu ondoan bidaltzen dituzte bere beharra arintzeko zerbait emanik. Beste anitz prestatzen dira zenbait baru, zilizio edo gorputzaren nekerekin. Geiena egiten dutenak ere egun hau ongi igarotzea gatik, ez dute egiñen geiegi: bada egun hau, ekusi degun bezala, beste egunetan beste guziak egin dituzten ta guk egin ditugun utsak ateratzeko eguna da; ta gure ta guzien utsak uts asko ta andiak dira.

### §. III.

#### ILLORO EGIN BEHAR DIRAN GAUZAK

1. Illaren lenbiziko hostirala ere Jesusen Bihotzaren eguna da. Egun onetan egin behar dituzu beraren egunerako berezi ditugun gauzak edo gauzetatik egin ditzakezunak. Ostegun arratsaldean irakurri zazu lenbiziko §. ta zoaz denbora zati batez Jesusekin Elizan egotera. Hostiral goizean, jaiki horduko, egin behar diozu maite zaituen Jesusen Aitari, bere Semearen honran ta izenean, egun hartako zure gauza guzien presenta. Zoaz al bait lasterrena Aldarean egiten zaizkan txarkerrien damua erakustera ta dizun amore andiari al dezun bidez eranzutera.

2. Konfesa zaitzez Elizan egin dituzun ta gañerako uts-egite ta kul-paz. Artu zazu Jauna lenagoko zure ta besteen komunioetan egin diran uts-egiñen alde; ta eska zagozu, zerekin dadukazunean, bekatu berririk ez egiteko ta ziñez bera maitatzeko grazia. Erraitzu gero bihotz osoarekin VI. garren §an. arkitzen diran lenbiziko ta bigarren orazioa.

3. Hordu bat, edo beintzat erdia, egizu arratsaldean Jesus onarekin Elizan. Ez da zer utzi Jesus ekustea gatik bost aldiz Elizaratzea: ta zoaz lenagoko §. erakutsi dena gatik.

4. Egin oi dituzun gañerako gauz onetatik ez da zer bat ere utzi; ta al badezu, emaiozu zerbait beharrean dagoenen bati.

5. Zabilta egun guzian egiten zaizkan txarkerien artean Jesus onak Bihotzean dadukana gogotik utzi gabe. Amorez bete dagoen Jesusen Bihotza gogoan artu ezker, arrizkoa ezipada, berotuko da zurea bera maitatzeko. Zenbat geiago maitatzen dezun, anbat geiago zorko diozu; bada, aziaz badoa zure ar ganako maitatzea, emanaz joain zaitzu Jesus ondasun berri andiagoak.

6. Zuk bezala bera maitatzen dutenak gatik eskatu behar diozu Jesus onari: maitatu behar dute halabaña elkar Jesus maite dutenak; elkar maite dutenak lagundu behar diote elkarri; ta ez da Jauna gandik elkarrenzat Zeruko grazia ta ondasunak ateratzea bezalako laguntzerik. Mezakoan, bada, ta Komunio santuan, eska zagozu Jesusi egun oro maita dezatela geiago ta geiago bein maitatzen asi diranak; eta ar ditzala millaka egun oro bere maitatzalle berriak. Artzen dituen guziak eskatuko diote gero zuretzat; eta geiena maitatzen dutenak gogotikago. Orregatik zeretako ari zara beste gatik eskatzen diozunean Jesusi. Oro bat irabaziko dezu, egun onetan ta beste edozeinetan, eskatzen badiozu Purgatorioko suan erretzen daudenak gatik: bada berak ere beren aldetik egiñen dute zu gatik al dutena, ta eskatuko diote behar dezuna; ta zuk baño gogotikago, ala suan dauden artean, nola gero Zeruan; ta lagunduko dizute, bizi zaraño ez ezik, Purgatorioratzen bazara, han zauden artean.

7. Lenbiziko ostiralean ezin dagikeanak erakutsi duguna, egin dezake urrengoan edo beste edozein egunetan; ta, bein baño, geiagotan egiten dutenak illean, maiteago dutela Jesus aditzera ematen diote, ta egunoro doaz, Jesusen Bihotzean barrenago sartzeko, beren bihotzak prestatuaz. Egunoro egiten bazenu ere, zor dezun baño, geiago eginen etzenuke; bada zor diozu zure Jesusi egun, ordu ta instante-oro dizun amore. Geiagotan ezipada, ez da, erakutsi zaitzuna, illean bein bad-ere, egin gabe zer utzi.



## §. IV. HASTE ORO EGIN BEHAR DENA

1. Hasteko egun guziak dira onak Jesusi zor diogunaren alde zerbait egiteko; baña guzien artean ez da orretarako ostirala bezalakorik. Ostiralean gu gatik asko egin ta eraman zuen Jesus maiteak; eta egin ta eraman zuenari eranzun geniozan damuz ta amorez, berezia bezala utzi zigun orretarako ostirala. Egizu bada ostiraletan zor onen alde zerbait geiago: ta, egiten dituzun gauzak egiñen dituzu gañerako egunetakoak baño obeki begiraturik.

2. Komulgatzen ezpazara, zaude Mezakoan beste egunetan baño atenzio ta arreta geiagorekin. Eska zagozu Jaunari lenagoko uts-egite ta bidegabe guzien barkazioa; ta utzaiozu Meza guzia Aldarean Jesusi egin zaizkan txarkeri ta injurien alde. Apaizak Jauna artzean, gogoz ta deseoz artu zazu zuk ere: ta eska zagozu dizula hark bezala artzen bazenu, irabaziko zenuen guzia.

3. Egun guzian oroi zaitetz Aldarean Jesusi zor diogun amoreaz. Ez gaitu berak gogotik uzten beñere; ta gure artean badira haste guzian bein Jesusez oroitzen eztiranak. Oroitzen diranetatik guti dira behar bezala edo egin alean maitatzen dutenak; eta geienak gaixtakeriz eranzuten die Jesusez eskutik artu dituzten ondasunei. Oroitze onek emain dizu, bate-tik Jesusek daramatzien penen miña, ta bestetik bera maitatzeko gogoia.

4. Zoaz, joan zaitetzkean guzietan, Jesus Elizan ekustera edo bisita-tzera: ta zure bisitak eta ekustek izan bitez, Jesusek eraman dituen nai-gabeen alde zor diozun amore andiari eranzutea gatik, eta bere bakarta-sunean laguntzeko. Nai adiñetan ezin bazoazke Elizara, bidaldu behar dezu gogoz, zauden tokitik, zere bihotza, Aldarean dagoen Jesusez Bihotzeraño, begira diezagon ongi ta ikas dezan nola egon, nekez ta nai gabez beterik dagoenean. Noiz-nai hau egiteko aski da, zere bihotzaz, behar ez diran gauzen ondolik ez dabillen, kontu idukitzea: bada, banaturik ez dabillen bihotzak laster ikasiko du, noizean bein Jesusez Bihotzari begiratzen badio, nola nekeak, asaldatu gabe, eraman ta nola gaizkigilleai amorez eranzun.

5. Ez doakizula egun hau, besteetan egin oi dituzun gauzez gañera, egin gabe bat edo beste. Artu zazu zu gatik nekatu den Jesusez izenean zerbait hildura edo mortifikazio, edo emaezu beharrean daudenai al dezuna. Jesusez Bihotzaren debozioak eskatzen duen damu ta amorearekin egun hau igarotzeko. Irakurri zazu orretan lagunduko dizun ta emen

arkitzen diran gauzetatik bat edo beste. Zaude gero hordu erdi, edo beintzat hordu laurden bat, Jesusez amore-nekeak gogotik utzi gabe.

## §. V. EGUNOROKO GAUZAK

1. Jesusez eskutik egunoro artzen ditugun ongite andiai, ongi izateko, egunoro nolere bait eranzun behar diegu. Jaiki zaitezeneko, asko Santuk egin oi zuten bezala, jarri zaitetz belauniko, Jesus Sakramentatua dagoela dakizun Elizaren alderat arpegia itzulirik. Han bazeunde bezala, adora zazu, buru ta bihotz guziarekin; emaitzatu alik ongiena, beste bera gandik artu dituzun ta Sakramentu onetan egin derezkitzun faboreak gatik milla esker. Zuri ongi egitea gatik ekusi dituen naigabe ta txarkeriak gatik erakutsiko diozu damu andi bat; eta eskatuko diozu erakutsi ta lagun diezazula bera maitatzen. Guziak ongi egiteko gogo andi batekin utziko diozkatu Jesusi bere eskuetan, egun hartan egin behar dituzun gauza guziak; eta eskatuko diozu ezertan uts egin gabe eguna igarotzeko grazia.

2. Mezan egoin zera zer den ta zertarako dakiena bezala. Gauza oiek eta nola enzun behar den Meza arkituko dituzu Liburu onen Irugarren Buruko pag. 209. Ikara bezala dauden Aingeruz ingurutua dagoen Jesus Zeru ta lurraren Jabearekin zaudela gogoan artzea asko da zu Mezakoan behar bezala idukitzeko.

3. Arratsaldeetan bakarrik egon oi da Jesus. Egitekoen artetik atera al bazaitetz, etzaitetzela Elizara gabe geldi beñere; ta egizu han Jesusekin al dezun denbora: ta eska zagozu, artu dezunaren eskerrak eman ondoan, behar dezun guzia. Ez dizu ukatuko, ez, ongi dagokizun ta gogotik eskatzen diozun gauzarik.

4. Etxiterakoan ekusiko dezu zer egin dezun egun guzian; lagundu dizuna gatik emain diozkatu eskerrak Jaunari: ta, urrengo aldiaren erneago ibiltzeko asmoarekin, eskatuko diozu barka ditzala zure uts-egite guziak. Hau egin ondoan hiru *Ave Maria* esan oi ziozkan Jesusez Amari San Luis Gonzagak; eta eskatzen zion, bere Bihotzeko amoreak gatik Sakramentuan dagoen Jesus onari, ar zitzala bere kontura Elizako guziak eta guzien artean geiena bera maite zutenak. Etxukeala nai, zion, Jesusez Bihotzean baizik lorik ere egin: *in pace id ipsum dormiam, & requiescam; id est in te uno summo bono*.





5. Jesusekin egotea gatik Elizara joateko gogoarekin arkitzen bazera, ta Jesusi egiten zaitzan txarkeriak zeretzat artzen badituzu, adirazten dezu nai zenikeola zor diozun amoreari amorez eranzun. Zure Jesus ganako nai ori aziaz doan bezala, aziaz ta andituaz joain da haren Bihotzarekiko zure debozioa. Debozio onekin arkitzen zarala ezagu dezan mundu guziak, zoaz alik geienetan Jesus Elizan ekustera; zaude han norekin zauden daki-zuna bezala, edo begiak lurrean daduzkatzula ta Bihotza Jesus maitatzen. Eraman behar dituzu al dituzunak oro bat egitera: bada Jesus maite duenak nai du ezagu dezaten guziak, eta maitatu bera bezala.

## §. VI. JESUS MAITE DUENAK EGIN DITZAKEAN ZENBAIT ERREGU, OTOITZ EDO ORAZIO

### LENBIZIKOA.

#### JESUSEN BIHOTZAREN EGUNEAN TA ILLAREN LENBIZIKO OSTIRALETAN EGIN BEHAR DENA

1. Gure amorez urtzen zauden, urrikari gaituzun, gu ondasunez bete naiez zabilzan ta zaran guzia ar zaitzagun nai zenukean Jesus maitagarria! Eun milla bider ta geiagotan egun oro gure zorren alde, Mezatan zere Aitaren begietaratzen zaran Jesus gure Jaun ta Jabe maitea! Zer deritzazu zutaz azturik bizi diranen bihotzeko gogortasunaz? Etzen aski diguzun naia ta amore andia bein guri erakustea? Zertako da, Jesus, gu bezain esker gaixtozko batzuek gatik odolezko nekez ta izerdiz beterik bizitzea? Etzenekien zenbat injuria, zenbat txarkeri ekusi beharra ziñan, Aldarean gurekin gelditu ezgero? Ori guzia zenekiela, gelditu ziñan, ta zaude gurekin. Ah! ta zenbat zor dizugun, Jesus ona!

2. Ona ni beintzat, Jesus, Herejeen ta Kristau gaixtoen eskuz egin zaizkitzun txarkeri ta sakrilejioen damuz beterik zure oñetan! Ai Jesus! orren gaizki erabilli zaitudalako damuz erdira balekit bihotza! Negarrez edo nere odolarekin garbi al banitza egin zaizkitzun bidebageak zikindu dituzten bazterrak, pozik emain nuke dudan guzia. Geldi bitez arren barkatuak Aldarean gelditu ziñanetik oraindano ekusi dituzun txarkeri ta utes-egite guziak! Munduko bihotzen Jabe banintz, diranak ekarriko nituke zure oñetara, uts-egin dutelako damuz urratuak.

3. Baña ai! Zertan nabil ni besteren utsak edo txarkeriak ekusten? Ez naz ni gaizkigille gaixtoetatik bat? Ez naz ni beste anitz bezala bizitu, Jesusi Aldarean zor diodanaren berririk ez banu bezala? Askok baño gei-ago zor diodala, ez naz ni besteak bezain labur Jesus onarekin ibilli? Ala da Jesus, ala da: ta ori da, odei beltzez estalia dagoen gaua bezain illun nere bihotza dadukana. Ez dakit zer egin nezakean onen labur ta gaixtoa zurekin nazala oroitzeak ematen didan neke petik nere burua ateratzea gatik. Erre nazazu Jesus; urra nazazu edo egizu nitaz nai dezuna; ta barkatuak geldo bitez oraindano nere uts-egina.

4. Aserretua iduki zaitudan Jesusen Aita, zere Seme maitearen Bihotzeko amoreak gatik, eta Seme onen Amak hura Gurutzean josirik ekusi zuenean eraman zuen bihotzeko estutasun ta nekea gatik, eskatzen dizut utzi dezazula betiko zere aserretasuna ta lagun zakizkidala orain dudan asmoan nere egunak igarotzen edo bukatzen. Asmoarekin nago, bizi nazar artean, zuri egin zaizkitzun injurien ta zure Semeak Aldarean ekusi dituen txarkerien damuz beterik ibiltzeko. Asmoarekin nago zor diodan amoreak gatik Jesus maitatzen dudala beti bizitzeko. Ni joain naz, alik maizena, Elizan Jesus ekustera. Oraindano baño erneago ibilliko naz nere Konfesio ta Komunioetan, Meza enzuten, edo beste edozein gauza on egiten dudanean; arki ez dedin batean ere, lenekoetan bezalako utes-egite ta txarkeririk. Nere gogoz ezta bat arkituko Jesus nik bezala ta nik baño gogotikago maitatuko ez duenik; eta al ditudanak orretara zuzenduko ditut. Indazu arren zuk, zere Seme ta Espiritu Santuarekin batean, nere asmo onetan beti irauteko grazia.

### BIGARRENA.

#### JESUSI BATEK, BERE BIHOTZA TA GAUZAK UZTEKO, EGIN DEZAKEAN OTOITZA

5. Aitzen ez den Iturria ta birtute guzien Jabe Jesus maitagarria, zer gatik onen ongi nai diozu gaixtakeriz betea egondu den ta zu ganako daki-zun adiña oztasun izandu duen nere bihotzari? Arriturik naduka onetan zor dizudanaren ezaguerak: eta zor oni eranzun naiez nago. Nai bazenu, gaurdanik emain nikezu zor onen alde nere bihotza, bihotz onetan arki ditezkeen asmo ta gauz on guziekin. Badakit ezer ez bat bezala dela zuretzat hau guzia: baña ekusten dezu ez dudala geiago balio duen gauzarik, ez eta zuk ditudan guzien artean naiago dezunik ere.

6. Orra bada, Jesus ona; gaur gero izan bedi zurea, bere gauza guziekin, nere bihotz osoa. Gaurgero begira zagozu zereari bezala. Erakutsi zagozu nola bizi ta nola zu maitatu. Zeretzat egin zenuen; izan bedi bada,



ongi bizi dela, dena zurea. Ni gatik bizia gurutzean eman artean, ta geroz Aldarean egin dezunaz oroitu ezker, ez dut lotsarik edozein gauza zuri eskatzekoa. Eskatzen dizut bada, begira dagidazula Aitak, Adiskideak eta Maisuak bezala. Aitak bezala, barkatzeko nere utsak. Adiskideak bezala, beharrea arkitzen nazanean eskua eman ta laguntzeko; ta Maisuak bezala, egin behar dudana guzia niri erakusteko.

7. Ez diot gaugerero nai nere buruari begiratu; begiratu nai diot zure Bihotzari. Nere buruaz azturik bizi nai dut, zure Bihotza astiroago maitatzea gatik. Zureak dira, Jesus, gaugerero nik egin behar ditudan gauzak; izan bitez bada guziak zure begietan ager ditezkeanak. Nai nuke jakin nola nik zu maitatu; sekulako zu maitatzen bertatik asitzeko. Erakutsi zadazu arren maitatze hau, ta indazu maitatze onek eskatzen duen grazia guzia. Hala gerta dedilla.

### IRUGARRENA.

#### OROBAT ERAKUSTEN DUEN AITA COLOMBIEREREN BESTE OTOITZ EDO ORAZIO BAT

8. Ezagutzeko zenbat zor zaion Jesusi, ekusi behar da zer ari den Jesus Aldareko Sakramentuan. Maitatzen dago ezin geiago bere Aita, ta begira dagoka, begira dakikeon errespeturik andienarekin. Hitz bat atera gabe daramatzi ekusten dituen sakrilejio ta egiten zaizkan bidegaberik andienak. Jesus bera lotsatzekoak dira bere gain artu zituen gure obenak eta kulpak gaixtoak. Gure beharren, nekeen ta estutasunen urrikariz dago; ta dago guri ongi naiez edo gu maitatzen. Mundu guzia nastua ekusten balu ere, ta bere kontra, ez lizake Jesusen Bihotza asaldatuko. Beti bat da Jesus; beti berdin. Baña geienei zer zor die Jesusek? Eskergabea baizik ez, eta asma al diña txarkeri ta injuria. Onen erantzute gaixtoaren damuz betetik, eta bere zorrari al egiñean eranzun naiez, zuzendu zuen Jesusen Konpañiako gizon andi Aita Colombierek emen arkituko dezun ta berak askotan ill oro esan oi zuen

### OTOITZA

9. Eskergabez, txarkeriz ta sakrilejioz zure amoreari ta Aldarean zor dizugunari eranzuten diotenen lagun ez izatea gatik, ematen dizut bein, berriz ta askotan nere bihotz osoa, egin ditzakean gauza on guziekin. Ni barrenean artzeko zabaldu dezun zure Bihotzean sartzea gatik, ez diot begiratu nai nere buruari; nitaz azturik nai dut bizi, zutaz oroitzen nazala ta zu beti maitatzen zaitudala bizitzea gatik. Ez nuke nai Bihotz orretatik atera, atera dediño gorputzetik nere anima, obeki zu maitatuko zaituen

tokian sartzeko. Komunio, Meza, Otoitz ta gauza on guziekin irabazten dudana guzia izan bedi, Jesus, zor dizudan zure Bihotzeko amorearen ize-  
nean ta ekusten dituzun bidegabeen alde. Obekiena deritzazuna egin dezakezu denaz: dena, dakizun bezala, utzia dago, Purgatorioan daudentzat; izan bedi, bada, dakizunen onerako.

10. Onzat artu behar didazu bestela zor ditudan edo karidadeak eskatzen dituen Meza edo beste zenbait gauza emendik aldaratzea. Baña orduan ere zorrak atera edo karidadeak eskatzen duena eman, ta gelditzen den guzia izan bedi zuk nai dezunerako.

11. Zurekin orain egiten dudana guzia gatik nai nukeana da garbi balekit, zu maitatzeko behar bezala, nere bihotza. Zuk nai dezuna nai nuke egin; baña ezin dagiket, erakusten ezpadidazu nola egin; ta, ikasten dudana egiten laguntzen ez didazula. Erraz da zuretzat ori guzia; egizu bada, dagidan nik ere zuk nai dezuna. Zurea izain da egiten dudana honra; hau da nik arkitu nai nukeana. Lagun zakizkit onetarako artu dudana bidean. Ala maita zaitzatela nerekin batean munduan bizi diranak. Amen.

### LAUGARRENA.

#### JESUS EKUSTERA ZOAZEN ZENBAIT ALDIZ, ELIZAN EGIN DEZAKEZUN OTOITZA

12. Gu ganako urrikaltasunez ta maitatzez beterik zaudena, ta ni gandik beintzat oztasuna ta eskergabea baizik ekusten ez dezun Jesus; zerk gelditu zaitu zauden Aldare orretan? Gurea bezain erantzute txarrentzat, etzen asko ta geiegi eriotzeko horduraño gu gatik egin zenuena? Obenik gabe obendun tristeak galdu ez gindezen, utzi zenuen urra zitza-tela arantzak zure loak eta burua, azoteak bizkarra ta lantz-hiltzeak zure eskuak, oñak eta Bihotza; ta azkenean gelditu ziñan odola ta bizitza gal-durik: eta neke ta eriotz orren gogorra asko ezpalira bezala, maite gaitu-zula guri adiratzeko, gelditu nai izandu dezu Aldareko Sakramentuan; zenekiel or gelditu ezker, ekusi beharko zenituela millaka txarkeriak egunoro! Eranzun ez ezen, noiz ezagutuko ere dut nik zuri zor dizudan amore! Orrelako zorrik ezpanu bezala bizitu naz oraindañoakoan, ta nere eskergabetasun ta txarkeriekin zor berriak egiten ditudala! Ai ene! Ez al dut berriz, onelako utsik egiñen! Indazu arren, Jesus, bihotza erdira leza-kean oraindañoako nere utsen urriki ta damu bat. Eskatzen dizut damu hau, nere uts-egiteak gogoratzearekin, odolezko izerdia zeriezula gelditu ziñanean izandu zenuen Bihotzeko estutasuna gatik. Indazu halaber, orrez gaiñ, zu ziñez maitatzeko behar dudana grazia. Maitatzen etzinduda-



nean ere nai zenuen maita zintzadan: ona bada non zu maitatu naiez arkitzen nazan. Nola bada uka zenezake orretarako eskatzen dizudan gauzarik? Ez, nere Jesus, ez arren ukatu, zu maitatzeko ta gaurgero zurea izateko behar dudarik.

### **BOSTGARRENA.**

#### **GOIZ-ARRATSETAN TA NOIZEAN BEIN EGIN DITEKEAN JESUSI ZOR DIOGUNAREN AITORMENA**

13. Badakit, Jesus ona, ta aitortzen dut Aldarean arkitzen zerala Zeruan bezala. Badakit zenbat or zuri zor dizudan: badakit ni maitatzen zaudela beti ta ni ondasunez bete naiez. Zure maitatze ta ondasunen alde ez dakit zer egin; bada nik egin nezakean guzia ezer-ez bezala da nere zorrentzat. Artu zazu horien alde maitatze ori bera; baita lurrean bizi ziñanean ta geroz zure Bihotzak egin duen ta sekulan eginen duena ere: ta artu zazu errekin batean nere aitormena edo zor dizudanaren ezaguerara, ta ezaguerara edo aitormen onek dakarren maitatzea: ta, obeki maita zaitzadan, ar nazazu ta gorde zure Bihotzean. Hala gerta dedilla, nere Jesus.

### **SEIGARRENA.**

#### **DAMUZKO OTOITZA EDO ORAZIOA**

14. Jesus, zere gain gure pekatuak artu zenituena ta Bihotza damuz bete zizutena, indazu arren, edozein bihotz erdira lezakean zure miñnekeen ta nere kulpen damu andi bat: garbi beza zure penak nere bihotzean nere damuak ezin garbitu duena. Lagun zakizkit zikindu gabe gordetzen bein garbitzen didazun bihotza; begitan arturik, ala zuk artua dadukazun edozein uts eta falta, maitatzen dezuna zuk maita dezadan gaurgero nik ere. Ez Jesus Ona, ez hau niri ukatu.

### **ZAZPIGARRENA.**

#### **KONSAGRAZIO ONDOAN EGIN DITEKEANA**

15. Jesusen ta nere Aita Zerukoa, ematen dizut, zor dizudanaren alde, zure ta nere amarez urtzen dagoen ta zuk nai dezun ondasun utsa besterik ez duen zure Semearen Bihotza. Ar dezakezu, bai; nere da; bada ni gatik dator Aldarera: ta zor dizudanak adiña ta geiago balio du. Baña ez naz asetzen nere zorrak ateratze utsarekin: zorren gain, ematen dizudana gatik, indazu zu ziñez maitatzeko ta maitatze onetan nere egunak bukatzeko behar dudarik guzia. Alere ez didazu emain ematen dizudan Jesusen Bihotzean artzen dezuna baño geiago.

### **ZORZIGARRENA.**

#### **SANTA GERTRUDES-EK**

#### **JESUSEN BIHOTZARI ESAN OI ZIONA**

16. AGUR, maite zaitudan Jesusen Bihotza. Zu zara aitzen etzeran ta bizia ematen duen ura dakartzun Iturria. Zuk dituzu Jainkotasunaren ondasunak. Zu zara Jainkoak digun amoreak berotzen duen sutegia: ta zuk izan behar dezu nere gaztelu ta atsedeteko tokia. Urtu zazu, Jesus, zurea urtzen duen suan nere bihotza. Bete zazu zureari dariezkazun graziez ta ondasunez nere bihotza, emen ta beti maita ez dezan zuk nai dezuna besterik.

### **BEDERATZIGARRENA.**

#### **AMODIOZKO OTOITZA**

17. Ez dut zer zuri eman, Jesus maitagarria. Ezer-ez bat dira nere gauzak. Nik dudana da zuk emanikako bihotza; ta bihotza, niork kenduko ez didana. Egin dezakedana da bihotz onekin zu maitatzea. Ongi da Jesus: nik maitatuko zaitut: ta nere maitatze onegatik ez det nai eman dakidan, sekula guzian, zu maitatzea besterik.